

JAKIN

ENRIQUE MORAN / JESUS RODRIGUEZ
GAUR EGUNGO PLANTEAMENDU DEMOGRAFIKOAK

IÑAKI LARRAÑAGA
EUSKAL DEMOGRAFIAREN BILAKAERA

RAMON SAIZARBITORIA
ZAHARTZE DEMOGRAFIKOA

JOSE MARI AGIRRE
OKUPAZIO SEKTORIALAREN BILAKAERA (1977-1992)

PATXI ESPARTZA
IRAKASKUNTZAREN EBOLUZIOA

IÑIGO GARAIALDE
DEMOGRAFIA ETA LAN-MERKATUA EUSKAL HERRIAN

XABIER AIZPURUA
EUSKAL HERRIKO BIZTANLEEN HIZKUNTZ GAITASUNA

XABIER CILLERO
GUGGENHEIM MUSEOAREN ARGITZALAK

JOSEBA ZULAIKA
GU GU GUGGENHEIM

ANDONI EGAÑA
HASIER ETXEBERRIA
ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA

JENARO GARATE
BEGOÑA DEL TESO
EGLUNEN GURPILEAN

77-78

UZTAILA-URRIA 1993



JAKIN

77-78

UZTAILA-URRIA 1993



Kultura eta Turismo Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
G	AI NAGUSIA	
	ENRIQUE MORAN / JESUS RODRIGUEZ GAUR EGUNGO PLANTEAMENDU DEMOGRAFIKOAK	11
	INAKI LARRAÑAGA EUSKAL DEMOGRAFIAREN BILAKAERA	33
	RAMON SAIZARBITORIA ZAHARTZE DEMOGRAFIKOA	49
	JOSE MARI AGIRRE OKUPAZIO SEKTORIALAREN BILAKAERA (1977-1992)	59
	PATXI ESPARTZA IRAKASKUNTZAREN EBOLUZIOA	67
	INIGO GARAIALDE DEMOGRAFIA ETA LAN-MERKATUA HEGO EUSKAL HERRIAN	79
	XABIER AIZPURUA EUSKAL HERRIKO BIZTANLEEN HIZKUNTZ GAITASUNA	91
G	AIK	
	XABIER CILLERO GUGGENHEIM MUSEOAREN ARGITZALAK	109
	JOSEBA ZULAIKA GU GU GUGGENHEIM	131
E	GUNEN GURPILEAN	
	ANDONI EGAÑA HASIER ETXEBERRIA ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA JENARO GARATE BEGOÑA DEL TESO	151

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1993ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	4.200 pta.	—
Ale arrunta 700 pta.	1.050 pta.	
KANPOAN		
Harpidetza	4.750 pta. (235 FF)	—
Ale arrunta	790 pta. (40 FF)	1.200 pta. (60 FF)

SUMMARY

DEMOGRAPHIC EVOLUTION

VARIOUS AUTHORS

The demographic situation in developed countries has undergone a great change in recent years to the extent that it could be said that it has become one of the most disturbing subjects facing us at the close of the century, due to all the repercussions which could arise within the not too distant future. To examine the subject in depth, we can count here on the collaboration of Martín González and Enrique Morán who inform us on the present approaches to demography in Europe. Additionally, Iñaki Larrañaga presents us with the demographic evolution which the Basque Country has undergone in recent years.

Ramón Saizarbitoria, for his part, informs us on the demographic ageing in the Basque Country while Jose Mari Agirre touches upon the transformation which the Basque economy has undergone in the last fifteen years. Likewise, Patxi Espartza tells us of the evolution which has arisen in the education system while Iñigo Garaialde does the same of the impact that demographic changes have on the labour market. Finally, Xabier Aizpurua displays what the linguistic capacity of the inhabitants of the Basque Country is with regard to the Basque language and the changes which have taken place in recent years.

GUGGENHEIM

VARIOUS AUTHORS

The Guggenheim Museum which is to be constructed in Bilbao is, without any doubt, the cultural project which has stirred the most controversy in Basque society in recent years. So as to get to know the Guggenheim Foundation a little better, *Jakin* has turned to two people who are well familiar with the subject, with the aim of gathering more information and being able to count on new data. On the one hand, Xabier Cillero relates us the history and evolution

of the Foundation, in addition to future plans which are currently being considered.

On the other hand, Joseba Zulaika does not appear convinced by the notion of the Guggenheim Museum in Bilbao as a mere branch of the Guggenheim Museum of New York, among other reasons due to its lack of autonomy and zero capacity for decision making in the acquisition of new works and its future development.

NEWS TODAY
VARIOUS AUTHORS

In this section, as has been customary since the beginning of the year, Andoni Egaña, Hasier Etxeberria, Alfontso Martinez Lizarduikoa, Jenaro Garate and Begoña del Teso comment on current affairs related to the world of culture, art, science, economy and entertainment respectively.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 77/78 zenbaki bikoitza da eta 1993ko laugarren eta boskarrena osatzen dituena.

Esan bezala, bada, zenbaki bikoitza jartzen dizugu eskutan, aspaldiko partez. Azken zenbaki bikoitza 1987an kaleratu genuen (42/43 zenbakia). Geroztik banaka banaka kaleratu ditugu zenbaki guztiak Zergatik orain atzera zenbaki bikoitza?

Diru-iturriak murriztu egin zaizkigu. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak iaz baino 1.775.800 pta. gutxiago eman digu. Aurtengo jaitsiera iazkoari erantsiz, azken bi urteotan ia %25 gutxiago jaso dugu Eusko Jaurlaritzatik. Baldintza hauetan kultur homologazio bila normalizazio eta profesionaltasun-bidean hartu genuen bideari ezin diogu osoki segida eman. Horregatik hain zuzen, kostuak murriztu asmoz, neurri hau (eta gogorago beste zenbait) hartu beharrean gaude. Azpimarra dezagun, azkenik, ez uler eta ez onar ditzakegun arrazoiengatik

aldizkarietan gehiena *Jakini* jaitsi zaiola dirulaguntza. Aurten 6.892.800 pta. eman digu Kultura Sailak.

Zenbaki honen edukiari dagokionez, bi gai-sail nagusi ditugu begien aurrean.

Demografi eboluzioari buruzkoa da lehena. Jakina da zein gai larria den herri hazietan. Gurean ere bai, askorentzat. Egoera argitu nahian Martin Gonzalez eta Enrique Moran-ek Europan gaur egun egin ohi diren planteamendu demografikoak azaltzen dituzte. Sarrera orokor honen ondoren, Euskal Herrira mugatzen gara azterketetan. Mende honetako bilakaera demografikoa deskribatzen du Iñaki Larrañagak. Zahartze demografikoaz ari da Ramon Saizarbitoria. Euskal ekonomiaren eraldaketa eta okupazio sektorialaren bilakaera azken 15 urteotan aztertzen du Jose Mari Agirrek. Iñigo Garaialdeak, aldiz, demografi eboluzioak lan-merkatuan duen eragina du aztergai. Eta, azkenik, irakaskuntzan eta hizkuntz gaitasunean ere zein den bilakaera demografikoaren eragina aztertzen dute, hurrenez hurren, Patxi Espartzak eta Xabier Aizpuruak.

Zenbaki honetako bigarren gai nagusiak, Guggenheim-ek, gaurkotasun ezin handiagoa du. Jarri berri-berria da Bilbon Museo honen lehen harria, eztabaida berpiztuz. Orain baino lehen ere Guggenheim dela-eta eztabaida ugari izan da euskal kulturaren. Aldizkari honetan ere agertu dira iritziak, aldeko eta kontrako. Oraingo honetan, bi artikulu dakartzagu, erreportaia bat eta iritzi-lan bat, Ipar Amerikan idatziak biak. Guggenheim Fundazio eta Museoaren gorabehera argigarriak eskaintzen dizkigu Xabier Cillerok. Joseba Zulaikak eromenaren laudoriotan idazten du eta beronen ustez Guggenheim Museoa Bilbon jartzeak euskaldunon menpekotasun intelektual eta estetikoa adierazi eta areagotu egiten du.

Egunen gurpilean sailaz isten dugu zenbaki hau. Zenbakiero bezala, kultura, artea, zientzia, ekonomia, ikuskizunak eta abar lantzen dituzte, gaurkotasunez landu ere, Andoni Egaña, Hasier Etxeberria, Alfontso Martinez Lizarduikoa, Jenaro Garate eta Begoña del Tesok.

GAI NAGUSIA

ENRIQUE MORAN / JESUS RODRIGUEZ
GAUR EGUNGO PLANTEAMENDU DEMOGRAFIKOAK

IÑAKI LARRAÑAGA
EUSKAL DEMOGRAFIAREN BILAKAERA

RAMON SAIZARBITORIA
ZAHARTZE DEMOGRAFIKOA

JOSE MARI AGIRRE
OKUPAZIO SEKTORIALAREN BILAKAERA (1977-1992)

PATXI ESPARTZA
IRAKASKUNTZAREN EBOLUZIOA

IÑIGO GARAIALDE
DEMOGRAFIA ETA LAN-MERKATUA HEGO EUSKAL HERRIAN

XABIER AIZPURUA
EUSKAL HERRIKO BIZTANLEEN HIZKUNTZ GAITASUNA

GAUR EGUNGO PLANTEAMENDU DEMOGRAFIKOAK

MARTIN GONZALEZ

ENRIQUE MORAN

Egoera demografikoa arras aldatu da. Orain urte gutxi batzuk demografia hitzak superpopulazioaren eta jende-pilaketaren irudiak ekartzen zituen gogora. Edozein planteamendu politikok populazioaren neurrigabeko hazkundera kontrolatzea eraberrizana azpimarratuz bukatuko zuen, hondamendia ebitatu asmoz. Gaur egun, ordea, panorama erabat aldatu da eta ikuspegi hura komunikabideek edota teknikoek mundu-mailako egoeraren berri ematen duten kasu bakanetarako soilik geratu da, praktikan horrek Hirugarren Munduko egoeraren berri ematea esan nahi duelarik.

Herrialde garatuetan, populazioaren gaia jaiotza-tasaren beherakadaren sinonimo izatera pasatu da, famili eredu berriak,

zahartze demografikoa, inmigrazioarekiko beldurra, rolen gatazka bereziki emakumeen artean, etab. Eta guzti horrekin lotuta dago, modu gutxi-asko esplizitoan, eremu hertsiki pribatu batean Estatuaren eskuhartzea ea beharrezkoa den ala ez eta baita eskuhartze posible horrek har zitzakeen formak planteatzen duen eztabaida ere.

Eboluzio demografikoak herrialde garatuetan eduki duen zeinurik nabarmenena, eta neurri handi batean bere eragile edo motorra izan dena, emakumea lan-merkatuara samaldan inkorporatzea izan da, horrek atzetik ekarri duen gizarte-baloreen eta rol sexualen birdefinizioarekin. Emakumeak status profesional berri baten atzetik egindako bilaketak beren ama-rolarekin gatazkan egotera daramatza, eta horrek ugalkortasunaren beherakada bat eta ohizko ezkontza-tasaren atzerakada bat dakar, aldi berean bizikidetzak agertuz, dibortzioak edo banantzeak areagotuz eta famili elkarbizitzako forma berriak eratuz, ez hain egonkorrak eta bizi-zikloan zehar aldaketa gehiago jasango dituztenak.

Egoera berri honek ia erabat baliorik gabe uzten ditu ohizko eskuharmen politikozko ereduak, demografiaren esparruan; esate baterako Frantzia famili eta gizarte-politika baten alde egindako jarduera-multzoa, jaiotza-tasa modu positiboan baloratuz, emakumeei beren rol sozial edo gizarte-eginkizun desberdinak, alegia beren jarduera profesionala eta ugalketa aldi berean betetzeko aukera eta laguntzak eskaintzen dizkiena.

Duela hilabete gutxi, EMAKUNDEK Gasteizen Demografia eta Politika Publikoari buruz antolatutako mintegi batean R. Cagiano de Azevedok «politika sozialaren kontzepzioan trantsizioa» bezala izendatu zuena planteatzen zuen, Suediako kasuari buruz ari zela.

Eskema horri jarraituz, politika sozialak, demografiari eta familiari dagokionez, hiru fase nagusi beteko litzuke:

- Lehenengo fasean, eztabaidaren muina jaiotza-tasaren beherakadak eta honek biztanleriaren egituraren batetik eta lan-merkatuan bestetik eragin ditzakeen ondorioak hartuko lukete; azken kasu honetan, gai nagusia emakumearen enpleguarekin eta atzerriko esku-lanaren inportazioarekin, alegia inmigrazioarekin, lotzen da.

- Bigarren fasean, kontsiderazioak beste bide batetik abiatzen dira, gizonezkoaren eta emakumearen paperak bateratzeko modukoak ote diren eztabaidatzera hain zuzen ere, ugalketari begira: hasi emakumearen emantzipaziotik eta gizarterolen osagarritasunetik pasatuz, rolen berdintasunera iristeko.

- Azken estadioak, politiken indibidualizaziora eramango gintuzke, hau da umea pertsona gisa kontsideratzera, zein famili testuingurutan garatzen den kontuan ere hartu gabe ia, bizitzan zehar oso aldakorra izan baitaiteke testuinguru hori.

Eskema honi beste fase goiztiarrago bat erantsi dakiok, populazioaren gehikuntza larregiak sortutako kezka inguruan hezurramitzen den fasea. Bertan gaur egun gure testuinguruan zaharkituak geratu diren hainbat termino eta esamolde aurkituko genituzke, esate baterako lehertzapen demografikoa, larpopulazioa, biztanleriaren optimoa... duela hogeita bost urte eskas arte hainbat herrialderen idearioaren barruan egon diren terminoak hain zuzen.

Trantsizioa bizkor egin ohi da, eta Suedia barruko testuinguru demografikoaren beraren aldaketarekin zerikusi zuzena du, mendebaldeko herrialdeen eboluzio demografikoaren eredu kontsidera dezakeguna. Aurreneko fasea jaiotza-tasaren beherakadarekin batera joango litzateke, eta mailarik baxuena lortzen den unearekin batera bereziki, analisi eta azterketa guztiak berorren eragin «mekanikoenetan» zentratuz. Bigarren faseak beherakadaren arrazoiak aztertu nahi ditu, ezkontza eta famili eredu etako aldaketak batipat. Azkenik, familiaren eboluzio honen ondorio etako batzuk seme-alabetan azaldu edo nabarmenduko lirateke, A.M. Jensen-ek «haurtzaroren feminizazioa» deitu duena.

Deskribitutako eredu berdin-berdin aplika daiteke demografi kontuan egin beharreko jardura politikoei dagozkien planteamenduen eboluziora. Esan genezake gaur egun, gero aipatuko ditugun salbuespenak izan ezik, posizio edo jarrearik gehienak aipatutako bigarren fasean kokatzen direla. Salbuespenen artean, Frantziako iritzi publikoaren zati handi batez gain hemen bertako autore batzuk ere sartu behar dago, horiek egunkarietan eduki duten oihartzuna oraindik

e re fresco-fresco daukagularik gure belarrietan. Geroxeago, Espainiari dagokion zatian, xehetasun handiagoz tratatuko dugu alderdi hau.

Komentaturiko ildo horretan ezartzen da A. Heitlinger-en posizioa. Autore honek emakumearen berdintasun-politika zabalagoak onartzea proposatzen du, diskriminazio zeharkakoa eta sistematikoa tratatuz, jaiotza-tasak gehitzearen aldeko politika baten oinarri gisa. Teoria horren arabera, emakumeentzako aukera-berdintasuna lortzeko proposaturiko neurri guztiak, hala nola aitatasunagatik bajak, haurtzaindegi-zerbitzuak, ordutegiengain malgutasuna, lanera berriro inkorporatzeko foma edo trebakuntzako programak eta emakumeak bere amatasunagatik diskriminatuko ez dituzten gizarte-segurantzako eta esparru fiskaleko xedapen oro, pronatalistak kontsidera daitezke potentzialki, jaiotza-tasak gehitzea espreski aipatutako helburu bezala eduki nahiz ez. Eta noski, guzti hori etxeko lanak eta jarduera profesionala bateratu edo konpatibilizatzaren bidetik lortuko litzateke.

Proposamen erradikalago bat lehen aipatu izan den R. Cagiano de Azevedoren eskutik dator; autore honen abiapuntua bizimodu laboralaren eta familiarraren arteko sinkronizazioaren ideia da, Suedian denbora partzialeko enpleguaren sarrera masiboan gauzatu zena adibidez, astegun jakin batzuetan soilik lan egiteagatik edota jornada murrizteagatik, baita orduen lautik hiru ere murriztuz. Demografo honen arabera, denboraren erabilera gaizki antolatua dago gaur egun. Ume, heldu nahiz zaharrek desgaraian egiten dute beste adin batzuetan egin behar luketena eta itxuraz inor ez da arduratzen bere adinaren arabera legokiokoen lanak egiten. Horrela, ikasleek denboraldi luzeetan eskolaketa derrigor jasaten dute; gazteak, sarritan arrazoi ekonomikoak direla medio, ezkontza eta familia baten sorrera, seme-alabak edukitzea barne, atzeratzen behartuak aurkitzen dira, eta bestalde, ezin dute lan-merkatuan integratu ere, gazteen langabezia dela eta; heldu okupatuak kultur edo hezkuntza-munduko hainbat interes baztertzen edo ahazten behartuta daude, interes horiek bateraezinak baitira lanaren jarraitasun eta tentsioarekin; eta zaharrak, azkenik, garaia baino lehenago aguretzat hartuak eta enplegu-gabetuak, nahitaezko jubilaziora eta jar-

duerarik ezara kondenatuak daude denboraldi luzerako, okupazio marjinalen batean edota hezkuntza-garai berriren batean ordu batzuk bete arren.

Ondorio bezala ateratzen duena zera da, biztanleria osoaren, orokorrean, eta emakumeen, partikularrean, «adina» eta «egutegia» aldagaiak sinkronizatu beharra dagoela. Hipotesi bezala planteatzen du borondatezko erretiro goiztiarraren aukera, gizonezkoekiko dauzkaten bizi-itxaropeneko 7 urte gehigarri horiek beren seme-alabak eduki eta hazteko unerik egokien hartu nahi duten emakumeentzat, jubilazio-adina denboraldi beretsuan atzeratuz noski.

Posizio edo jarrerarik modernoena, A.M. Jensen du ordezkariarik ezagunena bezala, bere herrialdearen, Norvegiaren, egoerarekin bat etorri eta umeenganako ardura eta kezka berezia erakutsiz. Teoria horren arabera, ugalkortasunaren beharakada, emakumeen lana eta famili eruedetako aldaketa oso lotuak daude emakumeak gizartean hartu duen paper edo rol berriarekin, gizonezkoarekiko duen autonomia handiagorekin. Dena den, txanponaren beste aldea ere hortxe dago, emakumeak seme-alabekiko dituen erantzukizunak ere gehitu egin direla.

Jarrera horren ondorioa haurtzaroaren feminizazioa litzateke, honek dakarren umeen marjinalizazioarekin. Beharrezkoa litzateke, beraz, haurtzaroa gizartearen zati garrantzitsu bezala berriro ere deskubritzea eta famili politikak zuzenean umeengana bideratzea, gizarte-ongizatearen bidezko zati bat lortzeko beren eskubidea defenditu asmoz.

J. Commaille ere korrante horren aldekoa da esaten duenean ezen garrantzia duena eta zalantzarik gabe gero eta garrantzia gehiago izango duena umearen interesa dela batetik, eta horregatik umearen eta helduen arteko lotura edo harremanaren izaerak baino gehiago balio duela lotura edo harreman hori, dena delakoa izanik ere, benetan existitzeak. Eta bestalde, hortxe dago pertsonak seme-alabaren bat edukitzekoan duen interesa, edozein dela ere pertsona hori aurkitzen den egoera familiarra. Umearen eskubideen historia joera historiko horren barruan txertatzen da, familiaratik indibiduorako iragate horretan, eta hori bera famili politikan isladatzen da, familiak uni-

tate bat izatetik poliki-poliki gizabanakora eta, bereziki, umea-
rengana askotan egin duen trantsizio horretan.

POLITIKA DEMOGRAFIKOAK: IKUSPEGI OROKORRA

Ez datoz bat iritzi guztiak politika demografikoa zer den erabakitzeke orduan. Definizio zabal batek politika publiko ia osoa besarka dezake, eragin zuzena nahiz zeharkakoa baita-
tauka biztanlerian eta, beraz, baita portaera demografikoetan e re. Baina definizio hertsiago baten aldeko gara gu, eta horre n arabera, populazioaren politika biztanleriaren mugimendua zentzu jakin batean bideratu edo aldarazteko helburu esplizituarekin landu eta martxan jarritako programa integratuen multzoa litzateke.

Jaiotza-tasa bultzatzeko politika batek hainbat neurri hartu beharko lituzke bere baitan: bultzada finantzarioa (famili pre s-
tazioak, diru-laguntzak, maileguak), bikoteei seme-alaben kos-
tuak aurrera ateratzeko konpentsazio egokiak eskainiz; eki-
pamendu kolektiboen sorrera (haur-lorategiak, haurtzainde-
giak), gurasoen independentzia ekonomikoa errazteko, beren
seme-alabak zaintzeko posibilitatea gordez; ordutegi malguak
hartzeko aukera eta orain artean emakumeei soilik zegozkien
hainbat abantaila (amatasuneko baimenak, adibidez) bikote-
kide biei zabaltzea, seme-alaben kargei modu parekatuago eta
ekitatezkoagoan aurre egin ahal izateko.

Testuinguru honetan ulertu beharra dago 1991. urtearen
hondarretan Parisen ospatu zen Demografiari buruzko Euro-
pako Kongresuan, Europa-Ekialdeko herrialdeak izan ezik,
oso gutxik aitortzen zutela politika demografikorik egiten zute-
nik, nahiz eta mendebaldeko herrialderik gehienek badituz-
ten politika sozial, familiar eta inmigraziozkoak, biztanleria
edo populazio-arazoekin lotu-lotuak daudenak.

Garai bateko Ekialdeko herriek famili politikak bideratzen
zituzten, eta oraindik ere bideratzen dituzte, biztanleria gehi-
tzeko helburu deklaratuarekin. Familiei laguntza garrantzi-
tsua ematen zitzaien, seme-alaben kostua gutxitzeko eta gura-
soen bizimodua errazteko —zerga-murrizketak eta famili lagun-
tzak, 3 seme-alaba zituen familia batean batezbesteko famili

errentaren %15etik %50eraino irits zitezkeenak, partzialki bakarrik itzuli beharreko maileguak famili tamainaren araberak, 1,5-2 urte bitarteko amatasun eta aitatasuneko baime-nak, %30etik %75eraino ailegatzen ziren soldatekin, etab.—, baina gaur egun herrialde horietako askok oso zalantzan jar-tzen dituzte gisa horretako politikak, kostu handikoak eta era-ginkortasun eskasekoak gertatzen baitira (AEDn erabat desa-gertu dira noski, AEFn integratu ondoren).

Mendebaldeko herrialde ia guztietan zerga-murrizketak egi-ten dira, famili tamainari lotuak, eta famili laguntzak ere ema-ten dira, izanik laguntza horiek handiagoak Europako Erdial-dean eta txikiagoak Hegoaldean. Azken urteotan prestazioak gehitzeko joera bat eman da, zuzeneko ordainketak gehituz, amatasunagatiko —eta zenbait kasutan baita aitatasunaga-tiko ere— baimenak sortu edo gehitu diren bitartean.

Hurtzaindegiak, aitzitik, oso eskasak dira eta ez dute dagoen eskaria betetzen Mendebaldeko inolako herrialdetan, Suedian izan ezik. Horregatik, herrialde hau hartu beharra dago eredu bezala emakumearen lanaren antolamendua erraz-tera bideratutako politika baten arrakasta baloratzeko orduan, hala nola baita emakumeen laneko partaidetza-maila altua amatasunarekin nola bateratu bilatu nahi lukeen politikaren eredu bezala ere.

POLITIKA DEMOGRAFIKOAK: HERRIALDEZ HERRIALDEKO AZTERKETA

Atal honetan Europako hainbat herrialdetan politika demo-grafikoa zertan dagoen laburbiltzen saiatuko gara; ondoren go atalera jo beharko da prototipo bezala hautatu ditugun hiru herrialdeetako (alegia Frantzia, Erresuma Batua eta Suediako) hala nola Espainiako politika demografiko, familiar eta sozia-len azterketa zehatzagoa ikusi nahi bada. Zerrenda honetan Europaren Ekialdeko nahiz Mendebaldeko herriak sartzen dira eta informazioa nahiko berria da: 1991. urtearen erdialdeari dagokio.

- *Alemania*. Alemaniako Errepublika Federaleko (AEFko) gobernuaren ikuspegi ofiziala da ez dela komeni politika pro-

natalista bat ezartzea. Bikoteek askatasun osoa dute beren seme-alaben kopurua eta tartea erabakitzeke. Garai bateko AEDk (Alemaniako Errepublika Demokratikoak) bultzatzen zuen politika pronatalista gogor hura desagertu egin da. Hala ere, bada seme-alabako subentzioak, amatasun-baimenak eta bestelako neurriak ematen dituen politika familiar bat, baina arazoaren koska lana eta gurasoen famili aspirazioak uztartu eta bateratzean datza.

- *Austria* Gobernu austriarrak politika demografikoaren helburu oro bazterten du. Dena den, 1960. urtetik martxan dago Austrian famili politika eta errenta-politika garrantzitsu bat, seme-alabak eduki eta horiek zaintzera jarritako amen mesedetan ezarritako gizarte-zerbitzuen sare oso batez gainera. Legeak aurrakusten dituen neurrien artean —amatasu-nagatiko edo seme-alabengatiko prestazioak, etab.— azpimarratzekoa da Estatuak subentzionatzen duen 2 urtetako amatasun/aitatasuneko baimena.

- *Bulgaria*. 1968. urtean sartzen dira indarrean familia babesteko eta ugalkortasuna gehitzeko neurriak, hiru printzipiotan oinarrituak: gurasoen aukeratzeko askatasuna, Estatuaren laguntza seme-alabak hazteko kostuak estaltzeko eta amatasunaren babes soziala, azken horretan sartzen delarik emakumeek beren enpleguarekin jarraitzeko eta beren karrera profesionala gordetzeko behar dituzten baldintzak sortzea. Neurri desberdinen artean aipa daitezke famili ordainketak eta sorospenak, bekak, baimen ordainduak eta kredituak baldintza abantailazkoetan, oso ongi desberdinak daudenak segun eta umearen ordena zein den.

- *Danimarka*. Ez da inoiz egon politika demografikorik egiteko saiorik, txikiena izanda ere, biztanleria daniarraren tko-purua edota konposizioa aldatu asmoz. Hala ere, hainbat lege eta erregulaziok bere eragina eduki dute jaiotza, heriotza edo inmigrazioen kopuruan. Famili politikaren barruan sartzen dira amatasun-baimenak eta seme-alabengatiko sorospenak, baina ordainketa hauen munta ez da nahikoa politika hori, oro har, pronatalista bezala definitua izateko.

- *Finlandia*. Ez dago politika demografiko berezitu eta espezifikorik, baina gisa horretako neurriak aurkitu daitezke politikako hainbat esparrutan (familia, gizarte, osasun eta etxe-

bizitza-politiketan, besteak beste). Ez da saiorik egin ugalkortasunaren gain aritzeko, baina seme-alabak dituzten familiak bere etekina ateratzen dute hainbat neurritatik: amatasunagatiko mozkinak eta seme-alabengatiko ordainketak, maileguak etxebizitza erosteko, baldintza egokietan eta zenbatekoa seme-alaben kopuruaren arabera erabakitzen delarik, edota ekonomikoki aktiboak diren emakumeei umeak eduki ditzaten erraztasunak ematen dizkieten beste neurri batzuk.

- *Grezia* Famili politikak diru-laguntzak, zergarinketak, etxebizitza erosteko laguntzak eta etxea finantzatzeko edota haurtzaindegiko gastuei aurre egiteko laguntzak aurrikusten ditu, beti ere seme-alaben kopuruaren arabera. 1990. urtean sartu zen indarrean hirugarren seme-alaba edukitzeagatiko famili sorospena, umeak 3 urte egin arte irauten duena, alokairu minimoaren balioarekin.

- *Irlanda* Herrialde honek ez du sekula eduki politika demografikorik, hitzaren zentzu hertsian. Gaur egun, gobernuak dioenez, ez da bere ardura herriaren garapen demografikoa, eta batipat jaiotza-tasak eta ezkontza-tasak, zuzenean gidatzea. Hala ere, giro politikoa arras aldatu da: 1977an Erret Batzorde batek gobernuari biztanleriaren gorakada geraraztea gomentatzen bazion, ahalik eta lehenbailehen, populazio geldikorra lortu asmoz, 1988. urtean gobernuak berak lege-dekretu bat jarri zuen indarrean, bikotekideengan seme-alabek eragindako gastuen pertzepzio negatiborik txikiena sortaraziko lukeen edozein neurri galerazi edo debekatuz.

- *Hungaria*. Azken hamarkadaotan, hainbat inizatiba onartu dira Hungarian helburu demografikoekin. Ekimen horien helburu nagusia ugalkortasunaren garapena bultzatzea zen, eta zenbait kasutan abortuaren erregulazioari buruzkoak ziren. Amatasunaren beharraren eta garrantzi sozialaren onarpen gisa, amei diru-laguntza bat eskaini zitzaizen umeek 3 urte bete bitartean, jatorrian batezbesteko errentaren laurdena suposatzen zuena. 1988. urtean, beren seme-alabatxoak 2 urte egin artean hazten zituzten amei ordainsari bat eman zitzaizen, beren diru-sarre ren arabera, gastu horien %65-75 adina estaltzera iristen zena.

- *Italia* Italian ez dago interes orokorrek helburu sozialak lortzera bideratua legokeen inolako famili eta gizarte-politika

koordinaturik. Egon dira, bai, lege-andana bat helburu berezi eta espezifikoeekin, baina guztiak elkartuz gero, horien emaitza anti-natalista da, argi eta garbi. Dena den, irauten dute oraindik ere formalki pronatalistak diren neurri batzuk, esate baterako famili sorospenak, lanean ari diren amen asistentzia edo laguntza eta beren kargura seme-alabak dauzkaten familiei zuzendutako salbuespen fiskalak. Neurri guzti horien pisu finantzarioa hutsala da hala ere, eta horrek erabat iluntzen du bere asmoa.

- *Luxemburg* Famili politikako zenbait neurri, aspaldidanik sartuak, arrazoi demografikoengatik ezarriak bezala aipatu izan dira. Neurri horien artean daude jaiotzagatiko prestazioak, seme-alabak dituzten familiei aplikatu beharreko zerga-kenkari garrantzitsuak, 2 seme-alaba edo gehiago dituzten familietako umeak eskolarizatzeko diru-laguntzak eta 4 hila-beteko amatasun-baimenak, baita alokairurik jasotzen ez duten amentzat ere, hauek ordainsari bat jasotzen baitute denboraldi horretan zehar ama alokatuek bezalaxe.

- *Norvegia* Sekular ez da egon herrialdearen populazio orokorrari dagokion politikarik, baina bi politika-molde desberdinek eduki dituzte bere ondorio demografikoak. Politika sozialak batetik, eta hor barruan sartzen da gizarte-ongizateko politika, birbanaketako politika, gizarte-segurantzari buruzko legeria, famili eta haur-politika, eta baita sexuen arteko aukera-berdintasunekoa ere. Bestetik, eskualde-politikak bere eragina eduki du populazioaren banaketa espazialean ere.

- *Polonia* Populazioari buruzko politikarik ez da inoiz egon, zentzu hertsian, baina bai ordea populazioaren hazkundea sustatzera bideratutako neurri politiko eta ekonomikorik: seme-alabak dituzten eta seme-alabarik gabeko familien arteko bizi-mailaren aldeak edo desberdintasunak murrizteko famili prestazioak, nahiz eta beren mailagatik beharrianetara ongi ez egokitu, lanean ari diren gurasoei destinaturiko beste hainbat neurriekin batera.

- *Portugal*. Ez dago politika demografikorik. Eragin demografikoa duten neurriak ugariak dira, baina horietako batzuen eragina oso zeharkakoa da, ez baitago helburu politiko zehatzik esparru honetan. 1988. urtean famili prestazioak gehitzea eta seme-alabak dituzten familientzat ordutegi malguagoak

ezartzea erabaki zen. Hala ta guztiz ere, famili sorospenerako diru-laguntza desberdinak oso maila apalean mantentzen dira.

POLITIKA DEMOGRAFIKOAK FRANTZIAN, ERRESUMA BATUAN ETA SUEDIAN

Famili politika baten edo jaiotza-tasak gehitzera bideratutako politika baten (politika pronatalista esaten zaionaren) arrakasta urte jakin batean umeak edukitzeko adinean dagoen emakumeko batezbesteko seme-alaben kopuruak neurtzen du, eta indize hori 2,1eko tasan kokatzen da, belaunaldien ordezkapena gertatzeko. Azter ditzagun hiru herrialdetako (Suedia, Frantzia eta Erresuma Batuko) famili politikak. Bi aurrenekoen politikak famili politika garatu eta generalizatu baten ereduak bezala kontsideratzen diren bitartean, Erresuma Batuak aurrera daraman politika estiloz oso desberdina izanik ere, herrialde horretan lortzen diren ugalkortasun-indizeak altuak dira Europako herrialdeen artean.

EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK

Gaur egun hiru herrialde horiek gainerantzeko herrialde europarrek baino ugalkortasun-indize altuagoak dauzkate, Suedia izanik emakumeko 2,1 seme-alaben tasa gainditzen duen bakarra 1990. urtean, eta Frantziako indizea 1,80 da, eta Erresuma Batukoa, berriz, 1,86 urte horretan bertan. Ugalkortasunaren eboluzioa herrialde horietan oso desberdina izan da mende-hasieratik gure egunotaraino. Horrela, Frantzia, munduko bi gerrateetako urteetan izan ezik, ez da inoiz 2,1 seme-alaba emakumeko tasaren azpitik egon 70eko hamarkadaren erdialdea iritsi arte, baina Suediak ugalkortasun baxuko denboraldiak ezagutu izan ditu hogeitamarreko hamarkadan. Urte horietan Frantzian jaiotza-tasaren beherakada bat gertatu zen, baina Suedian baino askoz ere arinagoa, Suedian 1900ean emakume bakoitzeko 4 seme-alabatik gora baitzeuden eta Frantzian ia 3ren inguruan, baina inoiz ere ez ordezkapen-atalasetik behera.

Europa guztian 50 eta 60ko hamarkadetan hedatu zen «baby boom» deitu fenomenoak ez zen Suediara iritsi, herrialde honetan indizeak nahiko baxutik ibili baitziren garai hartan. 60ko hamarkadaren erdialdera hasi zen ugalkortasunaren beherakada antzekoa izan zen bi herrialdeetan, baina Frantzia maila altuagoetatik abiatzen zenez, indizeak ez ziren 2,1 seme-alabetatik jaitsi 70eko hamarkadaren erdialdea iritsi artean, Suedian hori 60ko hamarkadaren bukaeran lortu zela-rik jadanik. Ordudanik Frantzia indizea egonkor samar mantentzen da 1,8tik gora, eta Suediak, berriz, 1984. urtean hasi zuen bere errekonstruzio-prozesua. Erresuma Batuak ugalkortasunaren eremuan edukitako portuera Frantziaren oso antzekoa da, mende-hasieratik.

Ezkontza-tasak behera egin du hiru herrialdeetan, baina prozesuaren dinamika desberdina izan da: Erresuma Batuan eta Frantzia beherakada etengabea izan da 1965. urtetik hasita, eta 1990. urtean maila baxuagoa zuen Frantziak Erresuma Batuak baino. Suedian ematen da, bien bitartean, mundu industrializatuan ezagutzen den ezkontza-tasarik baxuena-tako bat eta baita emakumeak lehenengoz ezkontzen direneko batezbesteko adinik altuenetakoa ere —duela gutxi Suedian ezkontzen leherketa izugarria gertatu da, beste inon ez bezalako gorakada, seme-alabarik gabeko emakume bikotedunen pentsioei buruzko legeria aldatu egin delako—. Ezkontzen beherakada honekin batera kontsentsuzko elkarteak gora egin zuten, eta igoera horren mailak Suedian eduki zuen bere sapaia, portzentaia Frantzia ere altua izan zen eta zertxobait gutxiago Erresuma Batuan. Guzti honen ondorioz, Suedian 1988. urtean egondako jaiotzen %50 ezkontzaz kanpokoak izan dira, beste bi herrialdeetan portzentaia hori %25 inguruan dagoen bitartean, EEEko herrialdeen artean portzentaia nahiko altua hala ere. Dibortzioen tasa oso maila altuan dago Erresuma Batuan eta Suedian, 42 eta 44 dibortzio 100 ezkontzako 1988. urtean, hurrenez hurren, eta Frantzia tarteko maila batean dago oraindik, ehun ezkontzako 31 dibortzio besterik ez.

60ko hamarkadaren erditik hasita, emakume aktiboen proportzioa azkarrago hazi da Suedian mendebaldeko herrietan baino, eta bertan lortu da indizerik altuena, 16tik 64 urtera

bitarteko emakumeen %82, portzentaia horiek Erresuma Batuan %64 eta Frantzia %56koak ziren bitartean. Baina emakumeen traiektoa edo ibilbidean bada alderik herri batek bestera: horrela, Suedian 25-45 urte bitarteko emakume aktiboen proportzioa %91koa da, beste bi herrialdeetan %70 inguruan dagoen bitartean. Emakume ingelesak lehenago hasten dira lanean Frantziakoak baino: 16tik 19 urte bitartean %72 batean eta %12 bestean, baina emakume frantziar eta suediarrek luzarago jarraitzen dituzte beren ikasketak. Seme-alaben etorrerak ez dakar frantziarrentzat eta, are gutxiago suediarrentzat jarduera laborala bertan behera uztea, Erresuma Batuko emakumeek maila handiagoan uzten dutelarik beren jarduera profesionala, seme-alabak txikiak diren bitartean bederen, eta proportzioak berdinduz doaz umeez adinean aurrera egin ahala. Denbora partzialeko lanaren garrantzia askoz ere handiagoa da Erresuma Batuko eta Suediako emakumeetan, Frantzia baino; horrela, 1989an %44 suposatzen zuen britainiarrentzat eta %42 suediarrentzat, Frantziako emakumeen artean apenas %24era iristen ez zen bitartean.

FAMILI POLITIKAK KONPARATUZ

Herrialde hauetako famili politikek hainbat neurri hartzen dituzte beren baitan, hasi etxebizitza-politikatik eta haurtzaroren babeskuntzaraino, seme-alabako zuzeneko laguntzetatik pasatuz. Ondoren, jaiotza-tasak zuzenean gehitzen dituzten hainbat neurri aipatuko ditugu, familien bizimoduan, bizi-mailan eta emakumeen famili bizitzan eta bizitza profesionalean eragin zuzena dutenak.

Zuzeneko prestazio ekonomikoak

Familietara zuzendutako prestazio ekonomikoak era askotakoak izan daitezke eta eginkizun asko bete ditzakete, segun eta zein paper edo eginkizun esleitzen zaien. Prestazio batzuk neutroak izango lirarteke batez ere, famili baldintzak bete gabe eta helburu bezala gizarte-desberdintasunak konpontzeko inolako asmorik gabe ematen diren neurrian. Nolabaiteko baliabide-muga batzuetan oinarria hartzen dutenek, bestetik, eginkizun soziala edukiko dute. Eta hirugarren kategoria batean sar

daitezke pronatalista gisa edo jaiotzaren aldekoak bezala hartzen diren prestazioak, jaiotza-tasa gehitzeko eta familia ugariak sortzeko bultzadak eskaintzen dituztelako. Azken kategoria honetako prestazioak, zenbait kasutan, lanaren eta umearen zaintzaren arteko bitartekari bezala balio dezakete.

Famili sorospenak familiei jaiotako seme-alabengatik egingdako zuzeneko prestazioak dira. Frantzia 1932an ezarri ziren eta urteak aurrera egin ahala biztanleria osoari hedatuz joan dira. Ez dituzte, ordea, seme-alaba guztiak hartzen, aurreneko umeak ez baitu jasotzen diru-laguntza hori eta hirugarrenetik aurrera modu progresiboan haziz doaz. Diru-laguntza edo subentzio hauek bitan errebalorizatzen dira urtero, baina nahiz eta inflazioarekiko eros-ahalmenik galdu ez, alokairu minimoa erliko proportzioa 1950eko %23 hartatik, 1988ko %13ra pasatu da.

Suedian 1948. urtean ezarri eta berehalaxe populazio osoari zabalduak izan ziren, eta baita seme-alaba guztiei ere. Eta 1982. urtea bitartean ez zegoen alderik seme-alaben artean, baina urte horretatik aurrera hirugarren umeak eta ondorengoen frantziarren antzerako tratamendu bat jasotzen dute. Diru-laguntza horien berrikuskapenak ez dauka arau zehatzik eta beti ere gobernu-politikaren baitan daude, maila altuetan mantendu izan diren arren, 1987. urtean langile suediarren batezbesteko alokairuaren %3,6 suposatuz. Seme-alaben adin nagusitasunak markatzen du diru-laguntza hauek ematen jarraitzeko muga, Frantzia bezala, baina gazte suediarrek ikasketengatik diru-laguntza bat jasotzen dute 19 urteraino edota ikasketak bukatu arteraino, famili laguntzen kopuru berekoa.

Erresuma Batuak badu baita ere famili sorospen bat 1977. urtetik, baina diru-laguntza horren munta askoz ere txikiagoa da eta diru-sarrera baxuak dituzten familiei soilik ematen zaie.

Fiskalitatea, Frantzia, familia ugarien mesederako da, oinarri zergagarria zuzentzen duen famili zatidura familiaren tamainaren arabera aplikatzen baita. Suediarrek seme-alabengatik kenkariak dituzte eta famili sorospenek ez dute zergarik ordaintzen. Erresuma Batuan, berriz, ez da inolako kenkaririk ez onura fiskalik ere aplikatzen seme-alabengatik.

Seme-alabei lotutako baimenak

Laneko baimenak hiru egoera hauengatik eman daitezke, seme-alaba baten jaiotza edo amatasuna, gaixotasuna, edo hezkuntzagatik. Suediak amatasunagatiko duen baimena bakarra da munduan, bere iraupenagatik eta alokairu-mailagatik, eta gaur egungo muntan 1974. urtean finkatu zen. 1955. urte-tik bazen amatasun-aseguru bat, 6 hilabetez irauten zuena, eta diru-konpentsaziotan gaixotasun-aseguruaren kategoriaren arabera zegoena. Gaur egungo amatasun-baimenak, ordea, 15 hilabete irauten ditu, eta horietatik 12 hilabete aurreko soldataren %90ean ordaintzen dira eta gainerako hirurak 27.000 pezeta inguruan, hilabete-ko. 1990ean azken hiru hilabeteetara aurreko 12 hilabeteetako konpentsazioa zabaltzea proposatu zen. Baimen hori guraso biek erabil dezakete, baina normalean amek hartzen dute, diru-sarrera baxuenak dituen gurasoak hartu ohi duelako, ama izanik gehienetan. Horretaz gainera amak 50 eguneko beste baimen bat du erditzearen aurretik eta aitak 10 egunekoa erditzearen ondoren. Bestalde, gurasoek 450 egun erabil ditzakete, bien artean banatuz, umeak 4 urte bete artean. Umearen gaixotasunagatik gurasoek 60 egun ematen zaizkie urteko eta 12 urtez azpiko seme-alaba bakoitzeko. Azkenik, suediarrek 6 ordu lan egin dezakete 8 ordu egin ordez, baina konpentsazio finantzariorik gabe, umeak 8 urte bete artean.

Amatasun-baimenak, Erresuma Batuan, 11 aste hartzen ditu jaiotza aurretik eta 20 asteraino luza daiteke erditze ostetik, baina horietatik sei lehenengoak bakarrik dira ordainduak aurreko soldataren %90erainoko diru-laguntzarekin. Baina diru-laguntza hori emateko bete behar diren baldintzak hain dira zorrotzak ezen ia emakume guztiak kanpoan geratzen direla: gutxienez bi urte eta aste bakoitzeko ez 16 ordu baino gutxiago egin behar dituzte lanean, enplegu berean, erditzea baino lehenagoko hamaikagarren astean kontatzen hasita. Baimen hau emateak lanpostua gordeko zaiela esan nahi du, baina gainerantzeko emakume aktiboek, baimen hori hartu ezin dezaketenean, ez daukate garantizatua lanpostua gordeko zaiela amatasun-baja eta gero. Horregatik, Ingalaterrako emakumeek eten egiten dute beren jarduera amatasun-garaian

eta normalean ez dira beren lehenagoko enplegura itzultzen, beste lan batera baizik.

Frantzia da, aitzitik, amatasun-baimenarentzat baldintzarik eskuzabalenak ezarri dituen EEEko herrialdea. Baimenaren iraupena sei astetakoa da jaiotzaren aurretik eta hamar astetakoa erditzearen ostetik, soldataren %84 inguru ordainduz muga bateraino, amatasun-baimenak irauten duen bitartean, emakumeak 200 lan-ordu justifikatuz gero sorkuntzaren aurreroko hiru hilabeteetan. Hirugarren seme-alabaren kasuan 26 astetara zabaltzen da amatasun-baimena. Emakume frantsesek, ingelesak ez bezala, garantizatuak dauzkate lanpostua eta jubilazioari dagozkion eskubide guztiak amatasun-baimenak irauten duen denbora guztian. Aitek hiru egunetako baimen ordaindua dute seme-alaba jaiotzen denean eta enpresetako hitzarmen kolektibo gehienetan seme-alaben gaixotasunagatik baimenak aurrakusten dira. Seme-alaben hezkuntzagatik baimena urtebetekoa da, baina birritan zabaldu daiteke eta ondorengo jaiotzekin akumulatu ere bai, jarduera laborala erabat eteteraino edota lan-denbora erdiraino murriztuz. Baimen honen alde txarra zera da, ez dela ordaindua, hitzarmen kolektibo batzuetan alokairua osorik edo partzialki mantentzea aurrakusten den arren.

Umeen zaintza

Famili politikaren alderdi hau ez da berdin ikusten herrialde guztietan, eta bere helbururik behinena bi gurasoei, eta bereziki amei, beren jarduera profesionala bizitza familiarrarekin uztartu eta bateratzeko modua eskaintzea da. Suedia da umezaintzan botere publikoek erantzukizun-maila oso altua duten herrialde edo nazioen adibiderik onena. Umeen abegirako egitura publikoak udalerriei dagozkie Suedian, eta legeak bost urteko planak ezartzera eta eskaintzaren eta eskariaren egoera mugatu eta zehazteko inkestak egitera behartzen ditu udalerriak, 6 urtetik beherako ume bakoitzarentzat gutxienez ere denbora partzialeko haurtzaindegi-plaza bat ziurtatzera behartuak egonik. Eta 1990. urtean 6 urteko ume suediarren %98k bazuen bere plaza. Derrigorrezko eskola-adina 7 urtetakoa da Suedian eta adin horretara iritsi arte umeen abegi-sistemak erabil daitezke: seaska-etxeak, denbora partzialeko haurtzainde-

giak eta ama-eskola irekia. Beren gurasoak lan egiten duten 7tik 12ra urteko umeentzat badira aisia etxeak —hemen «ludoteka» esaten zaienak—, eskola-orduen aurretik eta ondoren, eta baita eskola-oporrak bitartean ere irekita daudenak. Eskolako orduen antolamendua ere emakumeei lanean aritzeko erraztasunak emateko esfortzu edo ahalegin horretan sartzen da, eskolak ez baitira arratsaldeko 4ak arte amaitzen. Umeen zaintzako kostuak, 6 urtekoentzat izan ezik horientzat dohainik baita, gurasoen diru-sarre ren arabera, abegi-denboraren arabera eta hartutako ume-kopuruaren arabera mugatzen dira. Bikotekiderik gabeko gurasoek plaza subentzionatueterako eskubidea dute beren umeentzat. Hala ere, Suedian ez dago desgrabazio fiskalik gurasoek hartutako kostuentzat.

Frantziak ere badu umeak zaintzeko sistema publiko oso aurreratu bat. Eskolaritatea derrigorrezkoa da 6 urtekin eta adin horretararte seaska-etxeak, ama-eskolak eta goimailako haurtzaindegiak dauzkate gurasoek, guzti horrek 3 urtetik 6ra bitarteko umeen %95ari asistentzia ematea suposatzen duelarik. Beste aukera bat, umea etxera datorkion ama-laguntzaile batek zaintzea da, eta horretarako bere soldataren gaineko gizarte-kotizazioen balio bereko diru-laguntza bat jasotzen du, edozein izanik ere bere famili egoera eta bere baliabideak.

Bere printzipio liberalei jarraituz, Erresuma Batuak premia gorrian, arriskuan edo laguntza beharrean aurkitzen diren umei soilik luzatzen dien bere interbentzio edo eskuharmen publikoa. Lan egin nahi duten amek antolatu beharra daukate, beren enplegua famili erantzukizunekin bateragarria izan dadin eta denbora partzialeko lana da horretarako modu bat, ezkontidea, auzokoak edota ahaideak arduratuz umeen zaintzaz laneko orduak bitartean eta, baita, umeak derridorrezko adina baino lehen, alegia bost urte egin baino lehen, eskolarizatuz. Zenbait enpresak haurtzaindegiak ezarri dituzte beren emakumezkoen koadroak mententzeko, baina estatuak enplegatuaren mozkin edo onura bezala kontsideratzen dituen bezala, zergak ordaindu beharrean daude.

Laneko denboraren antolamendua

Emakumeentzako laneko denboraren entolamendua gero eta faktore garrantzitsuagoa ari da bihurtzen, beren jarduerara

profesionala bizitza familiarrarekin bateratu ahal izateko. Lan egiten duten emakumeen portzentaia nahiko altua da hiru herrialde horietan, umeak edukitzeko adinean dauden emakumeen artean batipat, produkzio-aparatuaren presioaren ondorioz eta, neurri batean bederen, sektore publikoaren hedapenari, sexu-berdintasuneko politikari eta legeria fiskaletan egondako aldaketei zor zaizkie, emakume ezkonduak modu indibidualean tratatzen dituzte eta legeria horiek, soldata bakarreko bikoteak penalizatuz.

Suedia eta Erresuma Batuko emakume aktiboetatik askok denbora partzialean egiten dute lan, %42 hain zuzen 1989. urtean Suedian eta %44 1988. urtean Erresuma Batuan. Frantzia, aldiz, 1989an emakume aktiboen artean denbora partzialean lan egiten zutenek %24 besterik ez zuten suposatzen. Gisa honetako lanaren garapena aurreneko bi herrialdeetan legedia faboragarri baten ondorio da, Erresuma Batuan neurri partikularretan gauzatu dena, horietatik garrantzitsuena izanik enplegatzaileentzat bezala baita alokatuentzat ere karga sozialak ordaintzeko salbuespena, 40.000 pezetatik behera irabazten badute hilabetean (1991. urtean). Emakumeak enplegurik eskasenetan eta gizonaizkoak baino kualifikazio-maila baxuagokoetan pilatzeak ere (umeen zaintza eta hezkuntza, sanitate-zerbitzuak, adineko pertsonen asistentzia, etab. bezalako jarduera-sektoreetan, hain zuzen) horretara laguntzen du.

EGOERA ESPAINIAN

Espainiak du gaur egun ugalkortasuneko mailarik txikiena herrialde industrializatuetan, eta 1992. urtean indize hori 1,23 seme-alabakoa da emakume bakoitzeko, lehen aipatu izan den 2,1eko muga horretatik oso urrun beraz. Ezkontza-tasa ere bere mailarik baxuenetan dabil, baina arestian aipatutako herrialdeetan ez bezala, kohabitazioa edo bizikidetzak oso ahula da, ezkontzatik at jaiotako eta dibortzioen indizeak ez direlarik urrutitik ere haien parera iristen. Ugalkortasunaren beherakada, bada, bi faktore demografikoren baturak zuzenean emandako ondorioa besterik ez da: ezkontza-tasen gainbehera ika-

ragarria batetik eta ugalkortasunaren beherakada garrantzitsua ezkontzen barruan bestetik, hirugarren seme edo alabak oso bakanak izatera iristeraino. Arrazoi sozioekonomikoak anitz dira, baina aldi berean ez dago ugalkortasuna estimulatzen saiatuko den famili politika koordinaturik.

Badira neurri isolatuak, alderdi honetan eragin nahiko luke tenak. Horrela, 1990. urtea arte bazeuden prestazioak, adibidez 250 pta. hileko (gehi %25-35 familia ugaria izanez gero) gurasoen kontura dagoen seme-alaba bakoitzeko, famili osagarri bezala eta beste prestazio gehigarri bat, diru-sarrera txikiagoengatik, 1.050 pezetakoa. Urte horretatik zenbatekoa 3.000 pezetara jaso zen hileko, jaiotza-ordena kontuan hartu gabe, baina aurreko egoeran ez bezala, diru-sarrera maximoen maila batzuk ezartzen dira prestazio horietara ailegatzeko, famili babeskuntzarako zuen izaera argi eta garbia galduz eta bere izaera birbanatzailea indartuz, arrazoi sozialak direla medio. Seme-alabengatik prestazio hauen zenbatekoak Europako baxuenen artean daude.

Sistema fiskal espainiarrak kuotan aplikatzeko hainbat kenkari baimentzen ditu, gurasoen kontura dauden senideengatik. Ezkontide bakoitzeko eta diru-sarrera propiorik ez duen 30 urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko, 20.000 pezeta deduzitzen dira kuotatik. Frogatua dago populazioaren geruza nahiko murriztu batek, maila ertain/baxuko sarrerak dituen geruzak hain zuzen, onura fiskal garbia lortzen duela, familiarik pobreenak eta diru-sarrera altuak dituzten familiek beren seme-alabengatik zergak ordaintzen dituzten bitartean. 1991ko erreforman, ume txikiaren haurtzaindegiko gastuen zati bat desgrabatzeko posibilitatea sartu da, baina dituen baldintza bereziengatik neurri horren alkantzua nahiko apala da.

Amatasuneko baimen ordaindua 16 astetakoa da 1989. urtetik, eta horrek Europako Elkarteak herrialde kideentzat ezarri berri duen 14 astetako minimo horren goitik kokatzen du Espainia. Baimen honen ordainketa oinarri erregulatzaileraren %75eko diru-laguntza batean datza, denboraldi osoan zehar. Diru hori jasotzeko hainbat baldintza bete beharra dago derrigorrez, esate baterako atsedendia hasten deneko aurreko urtean gutxienez ere 180 egun kotizatu izatea. Funtzionarioek eta zenbait enpresak Gizarte-Segurantzak eskainitakoa hobe-

tzen duten osagarriak dauzkate. Amatasuneko baimen hau aitak ere disfruta dezake azkeneko lau asteetan. Bada, horretaz gain, umeak zaintzeko baimen ordaindugabea hartzeko aukera ere, hiru urtekoa, lanpostua gordetzeko obligazioarekin, eta bai aintzinasunean eta baita Gizarte-Segurantzako aktiboan kotizatzeke denboraldi gisa konputatzen duena.

Seme-alaba txikien zaintzak ez du inizatiba argirik botere publikoen aldetik. Eskolaurreko hezkuntzan badira plazak irakaskuntzako zentroetan 4 eta 5 urteko umeentzat (6 urterekin hasten baita derrigorrezko hezkuntza). Adin horietatik azpikoentzat haurtzaindegietako plazak nahiko gutxi dira, horietako asko inizatiba pribatukoak izanik eta gutxi batzuk ekimen publikokoak, udalenak gehienbat.

Emakumeen jarduera-tasa Espainian Europako baxuenetako bat da, %39raino iritsiz 15 urtetik 64era bitartekoetan emakume aktiboak 1988. urtean. Seme-alabak baldin badi-tuzte, proportzioa askoz ere txikiagoa da oraindik eta egoera hori ezingo litzateke denbora partzialeko lanarekin hobetu, emakumeen enpleguaren %13 soilik baita gisa horretakoa. Hala ere, denbora partzialeko enpleguaren erdia ia ezkonduetako emakumeek hartzen dute.

KONKLUSIO GISA

Desberdintasun demografikoak (ezkontza eta dibortzioen tasak, adib.) eta sozioekonomikoak (emakumeen jardueratasei dagokietan) badauden arren, Suedia, Erresuma Batua eta Frantziako ugalkortasun-tasak Europako altuenetakoak dira. Baina horretan hainbat faktore ren konbinazioa hartu behar da kontuan.

Faktore horietako bat esparru familiarrean egindako eskuhamen politikoaren historia bera izango litzateke, eskuhar-men horiek Suedian eta Frantzian 30eko hamarkadan eman-dako ugalkortasunaren beherakadarekin gertatu zirelarik, jaiotza-tasak gehitzeko neurrien aplikazioa eskatzen zuen iri-tzi-egoera baten ondorioz, neurri zehatzak desberdinak izanik oso, eskatzaileen ideologiaren arabera. Frantzian urte horietan ezarri ziren famili subentzioak, ondoren, erreforma eta aldaketa

batzuekin, langile guztietara zabaldu zirenak, eta subentzio horiexek dira Frantziako famili politikaren zutabe funtsezkoena oraindik ere. Suedian neurriek familiaren beste eremu batzuk ere afektatu zituzten, hala nola etxebizitza, amatasun-baimenak, seme-alabengatikoen kenkari fiskalak, ama-ardura eta zaintzen eta seme-alaben elikaduraren dohakotasuna, alderdi sozialaz kezkatuak gehienbat, eta ikuspegi honek bere gora nabaragarriko hamarkadan lortu zuen sozialdemokratak botere aristearekin, famili sorospenak, Frantzian bezala, inola ere ahaztu gabe. 60ko hamarkadatik aurrera, politika familiar suediarra lehendik bazeuden neurriak zabaldu eta sendotzen aritzen, errealitate sozial berrietara egokitzen saiatuz, alegia famili eredu aldaketari eta batez ere emakumeen lanaren eta bizitza familiarren arteko egokitzapenari egokitzen saiatuz. Famili politikak Frantzian 70eko hamarkadaren erdialdetik norabide horixe jarraitzen du, baina neurri zuzenean pronatalistak azpimarratuz.

Erresuma Batuek bezala Espainiak ere, alderantziz, ez daukate famili politika definiturik, eta horretaz gainera ez dago behar adinako gizarte-kontsentsurik ere, betidanik eremu pribatua bezala kontsideratu izan den familian eskuharmen publikoak nolakoa izan behar duen erabakitzeko.

Politika demografikoei buruzko eztabaida horrela labur genezake gaur egun: ea politika horiek, beren kabuz, nahikoak ote diren ugalkortasuna bultzatzeko, edota familiak eta bereziki emakumeak mugitzen direneko baldintza berrien gain jarduten saiatuko den politika zabalago bat beharrezkoa ote den. Aurkeztutako azalpenaren arabera, Suedia izango litzateke famili eta gizarte-politikarik hobereana eskaintzen duena, gizarte-desberdintasunak eta genero-desberdintasunak gutxitzea lortu duena, bizitza familiarra jarduera laboralarekin ongien egokitzea lortu duena eta zeharka, ez baita izan espreski bilatutako ondorioa, ugalkortasuna gehitzea lortu duena. Baina politika honek kostu oso altua du, 1988. urtean jadanik Bame-Produktu Gordinari %5,5ean kokatzen zena, eta kostu hori egungo krisi-egoeran mantendu ezina bezala kontsideratzen da. Horregatik, entzuten dira jadanik lehenengo ahotsak, gobernu kontserbatzaileak bultzatuak, famili politika honek berekin daramatzan prestazioak murrizteko.

Frantziak, politika pronatalista argi batekin, eta horri neurri sozialak erantsiz joan zaizkio, emakumeen bi bizitzak (fami-liakoa batetik eta lanekoa bestetik) batera konpaginatzea posible egingo lukeen emakumearen lanaren antolamendua ezinezkoa egiten duten egitura laboralak mantentzen ditu oraindik. Famili prestazioak eta zuzenean hirugarren seme-alabari begira prestaturiko politika fiskala, badirudi eragina edukitzen ari direla beren gizarte-jatorriagatik eta beren egoera laboralagatik seme-alaben kopuru hori edukitzeko joera duten emakumeetan. Baina ez dirudi politika pronatalista hori, Estatu-politika bezala hartzen dena eta boterean dagoen partiduarekiko independentea kontsideratzen dena, gutxitua edo murriztua izango denik.

Erresuma Batuan, ugalkortasun-indize altuetan ez dute inolako eraginik famili politikek, eta ez dirudi aurrerantzean edukiko dutenik ere, botere publikoek alor honetan esku hartzeko betidanik eduki izan duten erreparragatik; dena den, emakumeen lan-antolamendua, Britainia Haundian, ugalketara egokituagoa dagoela dirudi.

Espanian ez dago ez famili politika egituraturik ezta amatasuna bideratu edo erraztuko duen lanaren antolamendurik ere, eta hori, adinik ugalkorrenetan populazioa penalizatu edo zigortzen duen lan-egiturarekin batera, Europako ugalkortasunik baxuenean gauzatzen da.

Euskadin, gaur egun, ugalkortasuna maila minimoetan aurkitzen da (0,96 seme-alaba, emakume bakoitzeko, 1992. urtean) eta dagoeneko entzuten dira ahotsak etorkizuneko ondorioen arriskuak aipatuz. Beste iritzi batzuek diotenez, berriz, posible da eskuharmen publikoek, premiak eraginda, gaur egun emakumeak lan-merkatuan sartzeko duen zailtasun-egoera hori eta rol sexualen desberdintasuneko egoera hori, bai familiaren eta baita lan-munduaren barruan ere, indartzea, zeren eta berorietan emakumeen emantzipazioa ezin ezkondu eta batera daitekeela familiaren mantenimenduarekin eta ugalketarekin pentsatzen duen ideia piztu daitekeelako. Eta hemen aipatutako adibideek juxtu-juxtu alderantzizkoa erakusten dutela dirudi.

EUSKAL HERRIKO DEMOGRAFIAREN BILAKAERA

IÑAKI LARRAÑAGA

Azken aldi honetan Euskal Herriko herrialde desberdinetan egin diren biztanleen Errolda edo Zentsuak dira eta, han-hemenka agertzen joan dira herrialde batzuetako eta besteetako datuak. Inoiz ez da ordea, Euskal Herri osoari dagokionik azaldu, beti datu partzialak izan dira.

Halere, datu horiek, partzialak izan arren, zenbait alditan era alarmista batean baloratuak eta besteetan behar bezala neurtuak izan ez direnez, eztabaida edo polemika-gai bilakatu dira, batez ere hazkunde negatiboa agertzen duten datuak zeinen kaltegarriak diren azpimarratuz.

Guzti honen azpian, aspaldi batean, demografi zientziako adituen artean patriarkatzat onartua izan den Alfred Sauvy jaunak planteatzen zuen galdera dago. Biztanleriaren hazkun-

deaz hitz egiterakoan hazkundera zenbat eta handiagoa besterik gabe ona al da? Edozein neurritako hazkundera? Hazkunde demografiko optimo batez hitz egin al daiteke? Nola definitzen da hazkunde optimo hori? Hazkunde optimoaz hitz egitea baino ez ote litzateke hobe izango hazkunde-eritmo optimoaz hitz egitea? Galdera guzti horiei erantzun ahal izateko gauza asko izan behar dira kontuan.

Euskal Herriari dagokionean arazoari abiapuntu egoki bate-tik heldu asmoz, lehen urrats gisa, Euskal Herri guztiko herrialdeetako (hau da 7 herrialdeetako) datuak biltzen ahalegindu gara, guztiak bildurik ikuspegi orokor batean eskaini asmoz. Horrela Euskal Herriko demografia bere osotasunean hobeto ezagutu eta baloratu ahal izango dugunaren ustetan. Izan ere, Europako batasunean garenez gero, bada Euskal Herri osoaren (Ipar eta Hego) ikuspegia erabiltzen hasteko garaia. Gaurko saio honetan ikuspegi orokor horretatik Euskal Herriak mende honetan zehar izan dituen biztanle gorabeherak aztertzer mugatuko gara.

Horretarako ordea, esan beharrik ez dago, iturri desberdinetara jo behar izan dugu:

- alde batetik, Euskal Autonomi Elkarteari dagokionean, EUSTAT erakundeak argitaratutako datuak erabili ditugu
- beste aldetik, Nafarroako herrialdeari dagokionean, Nafarroako Gobernuko Ekonomi sailak argitaratutako datuetaz baliatu gara
- azkenik, Iparraldeko datuei dagokienean, Frantziako INSEE erakundeak argitaratzen dituen datuetara jo behar izan dugu.

Era horretan osatu ahal izan ditugu berez sakabanaturik eta inongo argitalpenean bildurik agertzen ez diren datuak.

Datu hauen bildumak guretzat ezezik beste jende askorentzat interesik izango duelako ustetan eskaintzen ditugu aurkezpen labur honetan.

Metodologiari dagokionean, datuen azterketan normalki erabili ohi den prozeduraren kontrakoa erabiliko dugu. Hau da, oraingotik lehengora, ezagunetik ezezagunera, aurretik atzera urratsak eginaz, momentu jakin batean gertatzen dena, lehen gertatu denaren argitan ulertu ahal izateko. Horrela, azkenean, etorkizunean zer gerta daitekeen aurrikusi ahal izango dugu.

GAUR EGUNGO EGOERA

Argitaratu diren azken datuak honako hauek izan dira:

- Frantziako estatuan, 1990. urteari dagozkionak
- Espainiako estatuan, 1991. urteari dagozkionak

Urte horietan egindako biztanleen Errolda edo Zentsuetan Euskal Herriko lurraldeetako biztanleen kopurua honako hau izan da:

Euskal Herri osoak 2.876.142 biztanle ditu

Hegoaldean 2.625.981

Arabakan	272.447
Bizkaian	1.155.106
Gipuzkoan	676.488
Nafarroan	521.940

Iparraldean 250.161

Lapurdin	203.696
Naf.Beherea	29.838
Zuberoan	16.627

Datu hauen artean bereziki azpimarra daitezkeen puntuak honako hauek dira:

- Euskal Herria, egun 3 milioi eskaz biztanle (2.876.142) dituen lurraldea da.

Bestalde, Euskal Herriko zatirik nagusiena, bere 2.625.981 biztanleekin (%91,3), Hegoaldean (Espainiako estatuan) kokaturik dago, eta bestea, txikiena, bere 250.161 biztanleekin (%8,7), Iparraldean (Frantziako estatuan). Aitortu beharra dago Iparraldeak Hegoaldearekiko duen pisu espezifikoak, garapen sozio-ekonomiko eta kulturalari dagokionean, hamarretik batekoa baino handiagoa dela.

- Oraindik arrazoi handiagoz esan daiteke gauza bera Nafarroako herrialdeari buruz, bere 521.940 biztanleekin, Euskal Herri osoko %18,1 eta Hegoaldeko %20,0 inguru biztanle dituen herrialde honek, lur-eremuei dagokionean Euskal Herri osoko lurraldeetatik erdia inguru bereak osatzen baitu. Guzti honen ondorioz esan daiteke datuak aztertzerakoan ezin daitekeela ikuspegi orokor hau alde batera utzita jokatu.

Honen ondorioz esan behar da, sarritan egiten den arren, Hegoaldeko 4 herrialdeak edo, okerrago dena oraindik, Euskal Autonomi Elkarteko 3 herrialdeak Euskal Herri osotzat hartzea eta zati horietako batean gertatzen dena Euskal Herri osora generalizatu nahi izatea ez dela inolaz ere onargarria.

Esate baterako, azken aldi honetan behin eta berriz entzun da 1981-91 hamarkadan Euskal Herriak 32.000 biztanle baino gehiago «galdu» dituela. Eta hori, besterik gabe esanda, ez da egia. Euskal Herriari bere osotasunean dagozkion galerak guztira 3.155ekoak izan baitira. Ez dira, beraz, hainbeste aldiz aipatu diren zifren antzekoak, ezta gutxiagorik ere. Hori ziurtatzeko eman dezagun lehen urrats bat pasa den hamarkadara begira eta ikus ditzagun datu zehatzak.

AZKEN 10 URTETAKO BILAKAERA DEMOGRAFIKOA

Gauza asko esan da Euskal Herriak azken urteoten bizi izan duen biztanleen bilakaera dela eta. Hala nola «galera» handiak izan dituela, jaiotzen direnak hiltzen direnak baino gutxiago direla eta bide horretatik Euskal Herriaren etorkizuna benetan iluna agertzen dela eta abar.

Hasteko komentario guzti horiek momentu bateko eta partzialak diren datuetan oinarrituz egin direla esan behar da.

Izan ere, azken 10 urte horietan Euskal Herriak, bere osotasunean harturik, izan duen biztanleen gutxitzea, guztira 3.155 biztanlekoa izan dela kontuan hartzen bada, aitortu beharra dago, galera ez dela hain alarmagarria izan, betiere, gutxitze bat dela ahantzi gabe.

Populazio bati gerta dakizkiokeen gauza txarren artean, hain zuzen ere, ez dira kontatu behar biztanleen kopuruak gutxitzearenak bakarrik. Kopuruak handitzeak kopuruak gutxitzeak bezain kaltegarriak izan daitezke eta zenbait kasutan kaltegarriagoak. Ikus bestela Hego Ameriketara, Afrikan eta beste zenbait lekutan biztanleen neurrigabeko ugaritzeak ekaritzen dituen ondorio larriak.¹

Euskal Herriko azken 10 urtetako datuak zehazki aztertuz honako emaitzak nabarmentzen dira:

HEGOALDEA	1981	1991	IPARRALDEA	1982	1990
Araba	260.580	272.447	Lapurdi	188.803	203.696
Bizkaia	1.181.401	1.155.106	Nafar-Behe	30.434	29.838
Gipuzkoa	692.986	676.488	Zuberoa	17.726	16.627
Nafarroa	507.367	521.940			
GUZTIRA	2.642.334	2.625.981	GUZTIRA	236.963	250.161

Taula honetako datuen arabera, Hegoaldeak galerak izan ditu; Iparraldeak, aldiz, irabaziak

16.390 biztanle gutxiago Hegoaldean	13.235 biztanle gehiago Iparraldean
<i>Herrialde batzuk behera</i>	<i>Herrialde batzuk behera</i>
Bizkai 26.000 inguru	Naf. Beherea 600 inguru
Gipuzkoa 16.000 inguru	Zuberoa 1.100 inguru
<i>Beste herrialde batzuk gora</i>	<i>Beste herrialde batzuk gora</i>
Araba 12.000 inguru	Lapurdi 14.800 inguru
Nafarroa 14.000 inguru	

Datu hauek garbi adierazten dute herrialde batzuek behera egin duten bitartean, beste herrialde batzuek gora egin dutela. Eta batzuen beherakada besteen gorakadarekin guztiz konpentsatuta gelditu ez bada ere, beherakada orokorra nahiko errebajatu gelditu dela. Era honetan ikusten dugu herrialde desberdinek dinamika demografiko desberdinak bizi dituztela.

Ezin da beraz, besterik gabe, datu partzial batzuk erabiliz, generalizazioak egitera pasa, batez ere, datu horien perspektiba 10 urte baino zabalagoa den epe batean aztertzen bada. Adibidez, azken 30 urtetako epean.

AZKEN 30 URTETAKO BILAKAERA DEMOGRAFIKOA

Urrats berri bat emanez eta begirada atzerago luzatuz, ikus ditzagun lehenik datu orokorrak:

IKUSPEGI OROKORRA

Euskal Herri osoko biztanleak

1960	1.978.643
1970	2.562.310
1981	2.879.297
1991	2.876.142

Datu hauen arabera:

- 1960-70eko hamarkadan ematen da hazkunderik handiena (583.667).

- 1970-81eko hamarkadan, hazkundera ez da hain bizia, apalagoa baizik, aurreko atalean aztertu dugun bezala (316.987).

Bi hamarkada horietan eman den hazkundera ez da berezko indarrei bakarrik zor zaiena. Etorkinak, besteak beste, uholdeka etortzen ziren garaia zen.

- Azken hamarkadan (1981-91), hazkunderaren estankamentua ezezik, handia ez bada ere, biztanleen kopuruaren gutxitzea gertatu da (3.155).

Biztanle gutxitze honen iturri nagusiak honako 2 hauek dira:

- Jaiotze-kopuruaren beherakada nabarmena (15 urtetan erdira)
- Inmigratio-emigratio saldoaren aldaketa
 - . Etorkin berririk ez etortzea
 - . Etorkin zaharrak beren jaioterrira bueltatzea
 - . Bertakoak kanpora joatea

Garbi dago beraz, Euskal Herriko bilakaera demografikoak azken 30 urte hauetan bi aldi guztiz desberdinak izan dituela. Bata 1960tik 1981erakoa eta bestea azken 10 urteotakoa. Ikusten da baita ere, Euskal Herriko demografiaren berri jakin nahi bada, ez dela nahikoa azken hamar urteotan zer gertatu den aztertzea baizik eta ezinbestekoa dela epe zabalagoa hartzea, gutxienez azken 30 urteotakoa.

Euskal Herriko demografiaren historia sakonago aztertu nahi duenak ordea, gutxienez mende honen hasierara edo XIX mendeko erdialderaino zabaldu beharko lituzke. Oraingoz ordea, nahikoa izango dugu mende honen hasieratik honakoa aztertzea. Has gaitezen azken 30 urtetakoa aztertzen.

IKUSPEGI ZEHAZTUA

Aurreko atalean azken 10 urteei buruz esan dugun bezala, ikuspegi orokorrari dagokiona ez da, era berean ematen, herrialdekako ikuspegiari dagokionean. Izan ere, herrialde batzuek eta besteek hazkunde-prozesu eta dinamika desberdinak eraman dituzte azken 30 urtetan. Ikus ditzagun zehazki datuak.

**AZKEN 30 URTETAKO
GERTATZEZKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA**

URT.	HEGOALDEA				IPARRALDEA				E. H. OSOA	
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	GUZTIRA	Lapurdi	Naf. Beh.	Zuberoa		GUZTIRA
1960	138.934	754.383	478.337	402.042	1.773.696	149.824	34.490	20.633	204.947	1.978.643
1970	204.323	1.043.310	631.003	464.867	2.343.503	166.197	33.126	19.484	218.807	2.562.310
1981	260.580	1.181.401	692.986	507.367	2.642.334	188.803	30.434	17.726	236.963	2.879.297
1991	272.447	1.155.106	676.488	521.940	2.625.981	203.696	29.838	16.627	250.161	2.867.142

Taula hauetan agertzen diren datuetan hiru motatako joerak nabarmentzen dira:

- Alde batetik, Araba, Nafarroa eta Lapurdiko herrialdeek agertzen dutena, non, hamarkada guztietan, hazkunde-erritmo desberdinekin bada ere, hazkunde-dinamika bat jarraitu duten. Hazkunde-erritmorik biziena Arabako herrialdean eman da, 30 urtetan biztanleria bikoiztu egin baita. Nafarroan eta Lapurdin erritmoa apalagoa da.
- Beste aldetik, Bizkaia eta Gipuzkoak 1960tik 1981era bitartean, batez ere lehen hamarkadan, hazkunde bortitzak agertzen dituzte; 1981. urteaz geroztik ordea, biztanleen kopuruak behera egiten du, Bizkaiaren kasuan nabarmenago Gipuzkoakoan baino.
- Azkenik, Nafarroa Beherea eta Zuberoak 1962tik hasi eta 1990era bitartean, handiak ez badira ere (hamarkada bakoitzean 1.000 biztanle baino zerbait gehiago) biztanleen gutxitzeak jasan dituzte.

Guzti honen ondorioz esan daiteke Euskal Herria osatzen duten herrialdeek demografia aldetik norabide desberdinak eraman dituztela.

- Lehen taldeko Araba eta Nafarroako hazkundeak gehienbat, industrigintzaren eraginari zor zaizkiola esan behar bada ere, Arabako kasuan (azken 15 urtetan) Euskal Gobernuak, Legebiltzarra eta beste hainbat erakunde ofizial han kokatuak egoteak ekarri dituen ondorio demografikoak ezin dira ahanzi. Lapurdiko kasuan aldiz, herrialde honek izan duen hazkunde gehienbat kostaldean kokatu da eta turismoari eta bertan bizitzera etorri diren hainbat frantziarrei zor zaiela gauza jakina da. Multzo honetako hiru herrialdeen pisu espezifikoak (1.044.548

biztanle) Euskal Herri osoaren %34,7koa denez, aurrera begira pentsatzekoa da herrialde hauek izan dezaketen eragina gutxienez maila horretakoa izango dela. Aintzazkotzat hartzekoa da beraz, herrialde hauek etorkizunean demografia aldetik izango duten eragina.

- Bigarren taldeko Bizkaia eta Gipuzkoako kasuak, elkarren berdinak ez badira ere, antzekoak dira 1961etik 1981era arte industrigintzaren eta hirigintzaren eraginez izan duten hazkundean (Bizkaian Gipuzkoan baino fuerteagoa) eta azken hamarkadan krisi ekonomikoaren ondorioz izan duten gutxitze nabarmenean (Bizkaian gehiago Gipuzkoan baino). Kontuan izanik bi herrialde hauek duten pisua (1.831.594 biztanle) Euskal Herri osoaren %63,7koa dela, ezin uka bi herrialde hauetan gertatzen denak baldintzatuko duela, maila handi batean bederen, Euskal Herri osoak demografia aldetik etorkizunean eramango duen norabidea ezezik abiadura ere.
- Hirugarren taldeko Nafarroa Beherea eta Zuberoak dararmaten biztanle-gutxitzearen prozesua, laborantzari loturik jarraitzen dutenez eta laborantzan geroz eta jende gutxiagorekin ekoizpen edo produkzio berdinak edo handiagoak lortzen diren heinean, eta beste lanbiderik sortzen ez den bitartean, herrialde horiek, poliki-poliki husten joateko arriskuan aurkitzen direla esan behar da. Nola nahi ere, ezin da ahanzi herrialde hauek duten pisu demografikoa (46.465 biztanle) Euskal Herriko %1,6koa besterik ez dela. Beren eragina beraz, Euskal Herriko demografian etorkizunean handia izango ez bada ere, bai ordea, beste nekazal lurralde batzuetan gerta daitekeenaren adierazgarri.

**XX. MENDEAN ZEHAR EUSKAL HERRIKO
GERTATZEKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA**

URT.	HEGOALDEA					IPARRALDEA				E. H. OSOA
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	GUZTIRA	Lapuri	Naf. Beh.	Zuberoa	GUZTIRA	
1900	96.385	311.361	195.850	307.669	911.265	118.820	38.293	22.994	180.107	1.091.137
1920	98.668	409.550	258.557	329.875	1.096.650	128.721	36.223	21.420	186.364	1.283.014
1940	112.876	511.135	331.753	369.618	1.325.382	138.623	35.235	20.821	194.679	1.520.061
1960	138.934	754.383	478.337	402.042	1.773.696	149.824	34.490	20.633	204.947	1.978.643
1981	260.580	1.181.401	692.986	507.367	2.642.334	188.803	30.434	17.726	236.963	2.879.297
1991	272.447	1.155.106	676.488	521.940	2.625.981	203.696	29.838	16.627	250.161	2.867.142

GERRA ONDORENGO (1940-60) BIZTANLERIAREN BILAKAERA

Beste urrats bat atzera emanaz 1940. urtean kokatzen gara. Hogei urte horietako lehen hamarkada (1940-50) biztanleriaren bilakaera aldetik guztiz moderatua edo hazkunde apalekoa izan zen bitartean, bigarren hamarkada (1950-60) hazkunde biziagokoa izan zen. Azken hamarkada honen erdialdetik aurrera hasten da Bizkaia eta Gipuzkoan ondorengo 20 urtetan bide beretik jarraituko duen hazkunde-tasa handitzen, bereziki etorkinen eraginez.

Horren ondorioz ematen dira hogei urte horietan 1940-60 Hegoaldeko herrialdeetan honako indize biderkatzaileak.

Bizkaiak	1,48	aldiz	biderkatzen	du	biztanleria
Gipuzkoak	1,44	"	"	"	"
Arabak	1,23	"	"	"	"
Nafarroak	1,09	"	"	"	"
Iparaldeak	1,07	"	"	"	"
(1936-62)					

Hogei urte horietan eman den hazkundeari dagokionean hiru prozesu desberdin nabari dira:

- Alde batetik, Bizkaia eta Gipuzkoak indize biderkatzaile altuak (1,48 eta 1,44) agertzen dituzte. Hogei urtetan biztanleria erdi bikoiztu egiten da.
- Beste muturrean, Nafarroa eta Iparraldea indize biderkatzaile askoz apalagoekin (1,09 eta 1,07) agertzen dira. Biztanleria mantentzea baino askoz gehiago egiten ez dutelarik.
- Bien tartean Arabako herrialdea agertzen da, erdi pareko indize biderkatzailearekin (1,23).

Urte horietan beraz, Bizkaia eta Gipuzkoak kanpotarren etorrera dela eta hazkunde handia ezagutzen dute. Araba eta Nafarroa geroago, 1960tik aurrera, emango dena Iparraldean bezala.

Urte hauetako bilakaera demografikoak ematen ditu gero emango den prozesua ulertzeko klabe edo ardatzak. Urte hauetan hasten baita geroko 20 urtetan (1960-80) biziagotuko den hazkunde-erritmoa eta aurreko hamarkadetan, mendearen hasieratik, emandako bilakaera demografikoarekin haustura adierazten duena.

Izan ere, urte horietan:

- alde batetik, hazkunde naturalaren tasa baldintzatzen duten jaiotze eta heriotze-tasek aldaketa nabarmenak ezagutzen dituzte (jaiotze-tasa mantendu eta heriotze-tasa jaitzi) eta ondorioz, hazkunde naturala igo
- beste aldetik, inmigrazio-tasak lehen inoiz ez bezala hazkunde naturalaren tasa gainditzen du.

Bi faktore horien ondorioz urte horietan hazkunde orokorraren abiaduran ziztu bizia hartzen du, kontrola ezin edo kontrolatu nahi izan ez den hazkunde orokorra 40 urtetan Hego Euskalerriko biztanleria bikoiztera eramaten duena. Iparraldeko hazkundeak ez du horrelako abiadurarik ezagutu. Martxa horretan jarraituz gero 40 urtero biztanleria bikoiztea gerta daiteke. Hazkunde-erritmo hori populazio edo biztanleria batentzat luzaro jasan ezinezkoa gertatzen da.

MENDEAREN HASIERATIK GERRA ZIBILA (1900-40) BUKATU ARTEKO BILAKAERA DEMOGRAFIKOA

Azken urrats bat atzera emanaz mende honen hasieran hasten gara (1900).

Oro har, mendearen hasieratik guda zibila bukatu arteko urtealdiko biztanleen hazkundea nahikoa moderatua izan da. Ikusi besterik ez dago herrialde bakoitzeko biztanleriaren indize biderkatzaileak nolakoak izan diren. Handienetik txikienera honela banatzen dira.

Gipuzkoak	1,69	aldiz	biderkatzen	du	biztanleria
Bizkaiak	1,64	"	"	"	"
Nafarroak	1,20	"	"	"	"
Arabak	1,17	"	"	"	"
Iparraldeak	1,04	"	"	"	"

40 urteren buruan (1900-40) beraz, indize biderkatzailea Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan ondorengo 20 urtetan (1940-60) baino zerbait handiagoa bada ere, kontuan izan behar da epea ere bi aldiz handiagoa dela. Araban eta Iparraldean aldiz,

zerbait baxuagoa da 40 urte horietan ondorengo 20 urtetan baino.

Horrek esan nahi du urte-multzo horretan indize biderkatzailerik baxua izan dela hazkunde-tasa motela izan delako. Izan ere, 40 urtetan ondorengo 20 urtetan baino ezer gutxi gehiago hazi baitziren.

Urte-multzo honen hazkunde-tasa motela izatearen arrazoia besteak beste, urte horien barnean eman diren bi momentu historikoei zor zaie.

- Alde batetik, 1936-39ko gerra zibilari.
- Beste aldetik, 1918ko gripe-izurriteari eta 1920 inguruan eman zen krisialdi ekonomikoari.

a) Gerra zibilari dagokionean, ikusi besterik ez dago nola Hego Euskalerrian 1930 eta 40 bitartean biztanleriaren hazkunde moteldu egiten den (10 urtetan 90.000 biztanleetak gehikuntza besterik ez) aurreko 10 urtetan (1920-30) 140.000tik gorakoa izan zen bitartean.

b) 1918ko gripe-izurriteari dagokionean bere eragina ez zen hainbeste nabarmendu. Izan ere 1910-20 bitartean eman zen hazkunde altuagoa izan zen (90.000koa) 1900-10 artekoa (75.000koa) baino.

Gripe-izurriteak baino eragin handiagoa izan zuen agian, Iparraldean 1914-1918ko Europako gudak, bertan hil zen jende kopuruagatik eta jaiotze-tasaren beherakadagatik.

Hegoaldean berriz, beste faktore bat, 1920-21eko krisi ekonomikoa izan zen demografia aldetik ondorio handienak ekarri zituen.

Mende honetako urte-multzo honetako biztanleriaren bilakaera orokorra aztertzerakoan, ez da ahanzi behar demografiaren oinarrian dauden jaiotze eta heriotze-tasak biziki altuak zirela eta elkar konpentsatzen zutela hazkunde-tasa naturala inoiz %1-1,5etik pasatzen ez zelarik.

Hori alde batetik eta etorkinen kopurua garai horretan oso handia izan ezenez, hazkunde orokorra ere nahiko moderatua gertatzen da.

EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA ETORKIZUNERAKO ABIAPUNTUA

Gaur egungo egoeratik hasi eta gertaeren esplikazio bila aldiko urrats bat atzera emanaz burutu dugun azterketa honek zenbait argibide eman digula ezin uka. Nabarmenenak azpimarratzekotan honako hauek aukeratu litezke:

EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA

	HEGO EUSKAL HERRIAN		IPAR EUSKAL HERRIAN		EUSKAL HERRI OSOAN	
	Biztanleak	Hazkundera	Biztanleak	Hazkundera	Biztanleak	Hazkundera
1900	911.265		180.107		1.091.137	
		+ 185.385		+ 6.257		+ 191.642
1920	1.096.650		186.364		1.283.014	
		+ 228.732		+ 8.315		+ 237.042
1940	1.325.382		194.679		1.520.061	
		+ 448.314		+ 10.268		+ 458.582
1960	1.773.696		204.947		1.978.643	
		+ 868.638		+ 32.016		+ 900.654
1981	2.642.334		236.963		2.879.297	
		- 16.353		- 13.198		- 3.155
1991	2.625.981		250.161		2.876.142	

Taula honetan agertzen denez, biztanleriaren bilakaerak aldi desberdinak ezagutu ditu:

- Mendearen hasieratik 1940 arte, hazkunde jarraituz baino nahiko moderatua ematen da.
- 1940tik 60ra bitartean hazkunde-tasa biziago izaten hasten da, aurreko hogeikadetakoa bikoiztuz.
- 1960tik 81era bitartean hazkunde-tasak handitzen dira batez ere Hegoaldean baina baita Iparraldean ere. Hazkunde-erritmoa biziki azeleratzen da aurreko aldi guztietakoen gaineratik. 20 urtetan hazkunde handiagoa ematen da aurreko 60 urtetan baino.
- Azken 10 urtetan mende honetan inoiz eman ez den gertaera azaltzen da: hazkunde negatiboarena alegia. Datuak zehatzago aztertuz gero esan beharko litzateke prozesu hori 1975 geroztik abiatu zen prozesua dela. Ordutik dator jaiotze-tasaren beherakada eta horren inguruko beste hainbat gertaera (famiaren inguruko pentsamolde eta jokaera askoren aldaketa).

Etorkizunari begira guzti honek, zenbait adituen ustez, 2. trantsizio demografikoan sartzen hasiak garela adierazten du. Hazkunde deskontrolatuaren ereduak porrot egin du, ez bakarrik demografiaren arloan, ekonomian, hirigintzan eta beste hainbatetan. Hazkunde deskontrolatutik hazkunde kontrolatura pasatzeko garaia heldu denez, oreka berri bat aurkitu beharra dago, eta noski, hazkunde naturalaren bidez lortzen ez bada, migrazio-mugimenduen bidez burutuko da.

AZKEN GOGOETA EDO KONKLUSIO GISARA

Azken 10 urteotan Euskal Herriko herrialde batzuetan, eta ez hainbeste Euskal Herri osoan, eman den biztanleen beherrakada dela eta, hainbat komentario guztiz alarmista azaldu da egunkarietan kazetarien aldetik, zenbait kasutan kutsu sensazionalista nabarmenarakin eta gehienetan datu partzialetan oinarrituz. Azaldu diren komentarioak gisa honetakoak izan dira:

- Azken 10 urteetan biztanleen «galera» handiak izan direla.
- Geroz eta jaiotza gutxiago ematen denez biztanleria zaharritzen ari dela.
- Heriotzeak jaiotzak baino ugariagoak izatera iritsi direla.
- Martxa honetan, laister, kanpotar berriak (Ipar Afrikoak batez ere) ugari etortzen hasiko direla.

Esaldi hauek bere horretan harturik eztabaidagarriak baldin badira ere maila batean bederen egia direla ezin uka. Izan ere, Euskal Herriak azken 10 urte hauetan bizi duen krisialdia demografikoa ezezik beste sektore askotan ere nabarmentzen bait da. Eta gainera ez txantxetako eran.

Bestalde, azken 10 urte hauetako datuei kontrajarriak bezala 1960tik 1981era bitartean gertatutakoak aipatzen dira. Hogei urte horietan gertatutakoa beti horrela izan balitz bezala.

Atzerago begiratzen badugu ordea (1940-60) edota oraindik atzerago (1900-40) agertzen zaigu biztanleriaren aldetik gorabehera handiak izan direla. Aldi batzuetan geldialdiak eman diren bitartean beste batzuetan hazkunde biziak eman direla, eta ez dela egoera iraunkorrik epe luze batean eman. Honek eraman behar gintuzke momentu jakin bateko datuak erlatibi-

zatzera eta ikuspegi zabalago baten kokatzera. Izan ere, oraingoak «galera»tzat jotzen diren bezala lehengoak «irabazi»tzat jotzen dira, urte haietako martxa guztiz onuragarritzat joaz, hazkundea, besterik gabe, hazkundea izateagatik ontzat emanaz. Ez da aipatzen ezertarako 1960-81eko urte horiek ekarri zituzten hain onak ez ziren ondorioak.

Aipa ditzagun nagusienak:

- Hegoaldeko herrialde guztietan eta batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan neurrigabeko hazkundeak, guztiz deskontrolatuak eman zirela.
- Gertakizun horien ondorioz, ordurarteko hazkunde-erri-erri-moak apurtuak eta erritmo guztiz forztatuak ezarri zirela.
- Uholdeka etorri ziren etorkinen ondorioz, egitura demografikoak aldaketa sakonak jasan zituela. Heldu-gazteen eta haurren kopuruak itxuragabe ugarituz, eta adin-egitura desorekatuz.
- Guzti hauen beharrei erantzuteko era askotako azpiegiturak behar zirenez, nola halako gauza ugari egin zela garai honetan. Adibidez, nola halako etxebizitzak eta auzoak, nola halako eskolak, nola halako gizarte-zerbitzuak (zerbitzurik egiten zenean) eta, zer esanik ez, nola halako industri lantegiak.

Guzti hauek desarroilismo inkontrolatuaren garaiak ziren. Egiten zen guztia, ona edo txarra izan, baliozkotzat jotzen zen. Salbuespen batzuk kenduz gero *kantitateari* begiratzen zizaion eta ez *kalitateari*.

Oraingo «galerei» eta orduko «irabaziei» begiratzera kon-tuan izan beharko litzateke benetan orduko «irabazien» garaiak oraingo «galeren» garaiak baino hobek ote ziren, zertan eta norentzat. Izan ere, dirudienez, beldur handia ematen digute oraingo biztanleen gutxitzeak baino ez zigun beldurrik eman aurreko urte horietako biztanleen hazkunde inkontrolatuak. Eta esan behar da garai haiek ez zirela nahitaez oraingoak baino hobek izan. Gehiago oraindik, orduko gehiegikerien ondoriak orain jasaten ari garela nola demografian hala hirigintzan, industrigintzan eta gizarte osoaren berregituraketan. Garai haietan oker egindakoen faktura ordaintzen ari baikara orain. Eta noski, garaiak ez dira atseginenetakoak.

Halere, etorkizunari begira eta demografiari dagokionean, orain jasaten ari garen geldialdi honi irtenbideak aurkitu beharko genizkioke aldi berri hau baliagarri gerta dakigun gure herritarren bizi-kalitatea hobetzeko. Hori lortzeko, oreka demografiko berri bat bilatzen ahalegindu behar dugu.

Horrela egitea lortuko bagenu, agian, oraingo «galera» aldi honek gure etorkizuna hobeto bideratzeko balio dezake «irabazi» aldiko era inkontrolatuan egondako gehiegikeria ez baitzen, behar bada, uste bezain mesedegarri izan Euskal Herriarentzat. Urte horietan hain zuzen, bere nortasuna, demografia aldetik ezezik, sozio-ekonomia aldetik eta batez ere, gure nortasun ezaugarriak galtzeko zorian jartzeraino, sozio-kultural aldetik guztiz jipoitua eta trastornatua gertatu baitzen, .

Orain beraz, badugu aukera lehen gaizki egindakoak zuzentzen eta kalitatezko egitura demografiko, sozio-ekonomiko eta soziokultural bat eraikitzen ahalegintzeko.

Zehatzago esateko, oraingo «geldialdi» hau aprobe txatu beharko genuke:

- Hegoaldean

- Hain zigortuak gertatu diren nekazaritza eta arrantzari irtenbide berriak aurkitzen lagunduz kalitatezko produktuak landuz eta ingurugiroaren zaintzaile gisa babes-tuz.
- Industrigintza jasaten ari den krisialdi gogorrari irtenbide egoki bat bilatzen ahalegintzeko.
- Hain degradatua dagoen gure ingurugiroa eta ekologia berreskuratu, kontserbatu eta hobetzeko behar diren neurriak hartzeko.
- Hirigintzan egin diren aldrebeskeriak zuzendu eta gure hiri eta herrien azpiegiturretan eta ekipamenduetan hobekuntza sakonak egiteko.
- Irakaskuntzan, ikasleen kopuruaren beherakada, irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzara bideratzeko, eta bereziki euskalduntze-prozesua ziurtatzeko.
- Kanpotik etorri eta hemen bizi nahi dutenen integrazio sozio-kulturalerako aukerak eskaintzeko, euskara ikasteko, eta bertakoekin gizarte berri bat eraikitzen ahalegin bat egiteko.

Guzti hori bideratzeko aukera aproposa izan dezakegu oraingoa.

- Iparraldean

- Lurraren erabilera eta hirigintza herritarren eta ez jaun-txoen mesedetan egiteko.
- Laborantza eta abelgintzarentzat irtenbide berriak lortzeko.
- Kalitatezko produktuak landuko dituen industriak erai-kitzeko.
- Zerbitzu aldetik dituen baliabideak sustatzeko.
- Kulturagintzan duen ondarea Euskal Herri osoari eskaintzeko.

Hitz gutxitan esateko: orain arte, batzuk Madrilen eta besteak Parisen begiak jarririk, elkarri bizkar emanez bizi izan bagara, orain dugu aukera elkarri begira jarri, elkarri eskuak eman eta elkarlanari ekiteko. Gauzak ez dira errazak izango, inork ez baitigu oparirik egingo. Elkar harturik ordea, bakarka baino gehiago egin ahal izango dugu.

Hemendik aurrera, hegoaldekoek ez dezagun ezer egin Iparraldekoak kontuan izan gabe, eta berdin, Iparraldekoek ez dezatela ezer egin Hegoaldekoak kontuan izan gabe. Horrela hasiko gara, behingoz, elkarrekin bidea egiten.

1. Puntu honi dagokionean, sarreran aipatu dugun hazkunde optimoaren inguruko eztabaidarekin topo egiten dugu. Hazkunde optimo absoluturik ez dagoela esan behar da eta hazkunde optimoa nahitaez erlatiboa dela, biztanleria batentzat egokia dena ez baita derrigorrez guztientzat egokia. Garbi dago bestalde, hazkunde-tasa bizia edo motela izateak bere alderdi onak eta arazoak dituela. Hazkunde bizia ez da besterik gabe hoberena.

ZAHARTZE DEMOGRAFIKOA

RAMON SAIZARBITORIA

1 981eko Etxebizitza eta Biztanleriaren Zentsuaren analisia¹ egiterakoan, honela zioten, hitzez hitz, EUSTAT - Euskal Estatistika Erakundeak: «Euskal Herriko Komunitate Autonomoko biztanleria zerk berezi izan duen eta oraindik ere zerk berezten duen azpimarratu beharko balitz, hautabideak seguraski bi aspektu hauetarantz joko luke: bere gaztetasuna eta, aldi berean, halako konstantzia bat, demografiaren ikuspuntutik begiratuta osatzen duten talde handien pisuari dagokionez».²

Gaur egun berriz, EUSTATEk, euskal biztanlegoaren beharadari eta zahartzeari aurre egiteko, familiaren laguntza-

rako zerbitzuak sortzea aholkatzen du;³ izan ere, biztanleen zahartzea, 1981ean jada iragarria, biziki bizkortu da ondorengo hamar urteetan.

**BIZTANLEGOAREN BANAKETAREN BILAKAERA, ADIN-TALDE
HANDIETAN (PORTZENTAIETAN)**

ADINA	E.A.E.					NAFARROA
	1960	1970	1975	1981	1991	1991
0-19	35,1	36,1	36,0	34,4	24,1	25,4
20-64	57,2	55,6	55,2	56,5	52,5	59,4
≥ 65	7,7	8,3	8,8	9,1	13,4	15,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Hurria: EUSTAT

1991. urteari dagokion biztanleen azken zentsuan, 65 urte edo gehiagoko biztanlegoaren portzentaiak populazio osoaren %13 gainditzen du, eta hurrek eta 20 urtetik beherako gazteek, berriz, ez dute osatzen Euskal Autonomi Elkartearen administratiboki elkartutako biztanleen laurden bat ere. Batezbestekoetan, biztanle zaharrak bikoiztu egin dira hogeita hamar urteren buruan; hala ere, gure zahartzea —betiere Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaz ari garela— nabarmenagoa da piramidearen oinarrian goialdean baino, alegia, gure zahartzearen ezaugarri garrantzitsuagoa da haurren proportzioa txikia delako, zaharren biztanlego osoan zenbateko handia izategatik baino.

Nafarroako egoera nahiko antzekoa da; zahartzarora goialdean handiagoa bada ere, 65 urtetik gorakoen batezbestekoa %15 baino handiagoa baita, eta kontuan hartu kopuru horretatik aurrera demografoek biztanleriaren egiturak goitik oso zahartutzat hartzen dituztela. Ipar Euskadiri dagokionez, esan bezala Europako estatistiketan Akitaniako lurraldean sartua, pentsa daiteke askoz ere zaharkituago dagoela, izan ere, Akitania Europako komunitatea osatzen duten estatuekin orokorki konparatuz 65 urtetik gorakoen tasa handiena azaltzen baitu eta oso eskualde gutxi gainditzen dute bere ehuneko ia 17a.

**INDIKADORE DEMOGRAFIKO BATZUK
1989 urtea**

	Jaiotzak □1.000 bizt.	Heriotzak □1.000 bizt.	Biztanl. < 15 urte	Biztanl. > 65 urte
E.A.E.	8,1	7,3	19,1	11,3
Nafarroa	9,5	8,6	19,0	14,0
Espainia	10,4	8,4	20,7	13,0
Akitania	11,3	10,6	18,1	16,7
Frantzia	13,5	9,4	20,3	13,7
Belgika	11,8	10,0	18,4	14,3
Danimarka	12,0	11,6	17,3	15,5
Alemania	11,0	11,2	14,8	15,4
Ellada	10,0	9,1	19,6	13,7
Irlanda	14,7	8,9	27,8	11,3
Italia	9,9	9,2	17,3	14,1
Luxemburg	12,4	10,6	17,1	13,4
Holanda	12,7	8,7	18,3	12,7
Portugal	12,0	9,7	21,5	12,9
Erresuma Batua	13,6	11,5	18,9	15,6

Iturria: EUROSTAT

Gauza nahiko ziurra dirudi, beste faktore lagungarri batzuk alde batera utzita, horien artean Ipar Euskadik jasotzen duen jubilatuen inmigrazioa, gure zahartze demografikoa ugalkortasunaren beherakadaren zordun izatea. Beherakada hori zahartzearen prozesu demografikoaren egiazko kausa bezala hogoita hamar bat urte irauten duenean hartu ohi da eta Euskal Autonomi Elkartearen eta Nafarroan aldi hori bete da honezkeroko, ezen, mantso bada ere, 60. hamarkadako lehen urteetan jaiotzek behera egin zuten, nahiz eta, hori bai, 80. urteetan gertatu erabateko beherakada.

**JAIOTZAK 1000 BIZTANLEKO
UGALKORTASUN-TASA SINTETIKOA
EUSKAL HERRIKO A. E.**

	1964	1967	1975	1985	1989
Jaiotzak 1000 bizt.	24,5	22,2	19,5	9,6	8,1
Ugalkortasun-tasa sintetikoa	-	-	2,680	1,256	-

Izan ere, Autonomi Elkartean 85. urtean 75.ean izandako jaiotzen erdia gertatu zen, eta 25 urteko epean hiruz zatitu da biztanleko jaio direnen kopurua. Ugalkortasunaren azken indize sintetikoa 1,256 da, eta horrek esan nahi du, ondo jakina denez, ez direla jaiotzen belaunaldi ordezkaritza betetzeko aski ume.

Aurrekoa eztabaida ezina delarik, eta edozein ikuspuntutatik ere kezagarria, esan beharra dago, nire ustez, zahartzearen auzia gehiegizko intsistentziaz eta tonu dramatikoegiaz ematen dela aditzera komunikabideetan.

Nire iritzian, eta soziologo serio askorenean, auzia, diodan bezala, kezagarria da, baina ez dramatikoa. Agian erreproduktzioari dagokion honetan kultura, kontraesankorra ez esatearren anbiguo batetik natorrelako —Genesiko «hazi eta ugaldu» horren ondoan, Eliza Katolikoak ikaragarri goretsi baitu birjintasuna— ez nau ni prospektibista eta tokologo interesatu batzuk adina izutzen jaiotza-kurben beherakadak.

(Gogoan dut nola behin, aita Prudencio birjintasunaren bertuteak azaltzen ari zitzaizkigularik nik, deabruak emandako argitasunaz seguraski, azaldu nion mundu guztiak bertute horren alde egiten bazuen, mundua kalkulatzen ez nekien baina nolana ere laburra somatzen nuen epe batean, ahitu egingo zela eta gauza izugarria iruditzen zitzaidala; berak ordea, bere irribarre zerutiar harekin ea mundu-bukaera doatsua gorik bururatzen ote zitzaidan erantzun zidan. Ixildu egin nintzen noski, baina ixiltasun haren frustraziotik sortu da agian, ez beti konnotazio moralik gabe, komunikabideetan ugari azaltzen diren diskurtsu natalistek eragiten didaten erreakzioa).

Jolasak alde batera eta zahartzen ari garela onartuz ere ez dut uste igarle askok dakusan panorama beltza erabat justifikatua dagoenik. Anna Cabre eta Andreu Domingok⁴ dioten bezala bada egungo egoera ezinbestekoa balitz bezala interpretatzeko joera eta sarritan gehikeriaz estrapolatzen da etorkizuneko eszenategietara, zahartze jasanezina, biztanleriaren gainbehera, edo honen aldakuntzak eraginiko nortasun galtzeak ziurtzat ematen direlarik. Kontsolagarri lekiguke ordea Suedian, duela hamabost urte 65 urtetik gorakoen kopurua %18 inguru zela eta ez zitzaiera ezer gerta jakitea; eta ez hori bakarrik, egun XX. mendean ezagutu duen ugaltasun-tasarik handiena

lortuz, 2,5era iristeko bidean teknikoki «boom» izena mereziko lukeen fenomeno demografiko duela hamabost urte pentsaezina ari dela ezagutzen. Gertakizun honek, Europan zehar jaiotze-tasak eutsi edo gora egiten diotela ikusteak alegia, hor zehar ileta joka dabilen zenbaiten mezu ilunari kontrapuntu esperantzagarria jartzen dio dudarik gabe.

Bestalde, eta hau bai da garrantzitsua, garbi izan behar genuke auren-aurruntik ezin direla inola ere bat egin analogiaz zahartze deritzogun fenomeno soziodemografikoa eta adinarekin gizakiok pairatzen dugun beherakada biologikoa. Gizarte zahartu batek ez du zertan pertsona zahartu batekin bat etorri behar: soziologiaren lehen printzipioa da entitate desberdinak direla gizartea eta gizartea osatzen duten parteen batuketa. Hain zuzen ere, fenomeno sozialak bere konplexutasunean ulertzeko gaitasun ezaren ondorioz, animalien paradigmara jotzen da sarritxo maila hori gainditzen duten gauzak agertzeko, ondorio arriskutsuz gehienetan; gogora bestela Herbert Spencer eta orokorki darwinismo sozialak eragindakoak. Formula horrek, nabarmen denez, ekintza irrazionalen justifikazio filosofikoa dakar, hala nola, *verbi gratia*, esplotazio, gerra eta torturarena.

Beraz, ezerk ez du justifikatzen gizarte zahartu bati animalia zahartu baten ezaugarriak egozte, eta *a priori* ezin dugu ziurtatu osatzen ari garen moduko talde «zahartu» baten kideak gizarte gazte batekoak baino zoritxarrekoagoak edo insolidarioagoak izango direnik.

Nolanahi ere, ugalkortasunaren beherakada hori prokrea-zio-eredu arrazoizko bati zor zaio, eta ez dirudi prozesu hori bazter daitekeenik, ezta komeni denik ere. Kontrazepzio egoki bati esker bikoteek izan behar duten ondorengoen kopurua muga dezakete; horri esker erreprodukzioa norberaren aukeraren arabera gauza bihurtu da pixkanaka, eta horretan eragin kas-karra izan dezakete neurri sozio-politikoek.

Ondo da natalistek eskatzen dituzten neurrietako batzuk ezartzea, bidezkoak baitira, ez besterik, hala nola gazteentzako etxebizitzaren promozioa, edo familiaren laguntzarako zerbitzuak, seme-alabak munduratzea eta behar bezala hazitzea errazten baitute, baina, gaztetze demografikoari begira, ezin da horietatik gauza handirik espero. Jaiotze-tasaren hazkun-

dean eragin garbia izan duten neurri bakarrak kontrazepzioaren eta abortoarean debekua izan dira, Stalinek lehenbizi eta Ceaucescuk gero erabili zituztenak, estatistikoki froga daitekeen arrakastaz.

Soluzio horiek, noski, ezin dira gure artean ezarri, eta in-tzentibazio-neurri positiboak proposatzen dituztenek, jendea, hileko pezetatxo batzuen truke, seme-alabak ekartzera anima dadin, ez dakite politika demografikoak ezin direla eraginkorrak izan, eta zorionez esango dugu, ez badute oinarrizko baldintza bat betetzen, alegia, desio diren seme-alaben kopuruari dago-kionean, biztanlegoaren desio eta behar sakonei erantzutea.

Zahartze demografikoak oinarrrian duen benetazko arazoa zera da, mendekotasun-tasa, hots, lanean *ari* eta *ari ez* diren arteko aldea ikaragarri handia izatera irits daitekeela eta, horrenbestez, aurreneko multzo horrek bigarrena ezin babestu izatea.

Gure kalkuluen arabera, zaharrek, biztanleen % 10 baino askoz gehiago ez izanik, Gizarte-Laguntzaren diruen % 30 hartzen dute eta European berriz, oro har, gizarte-babesaren laurdena jasotzen dutela bota ohi da.

Horrenbestez, ez da txantxetan hartzekoa izango, mende-kotasun-indizea, hau da, 60 urte eta gehiago 20-59 urtekoen p roportzioa duela hogeit hamar urte % 12 izatetik, 2000 urterako % 30 inguru izatera iristen bada. Dena den, gai honi buruz agibide batzuk beharrezkoak gertatzen dira.

Lehen eta behin, esan behar da, gai honi buruzko azterketa asko eginagatik ez dagoela oso argi zahartzeak berak zernolako ondorio ekonomikoak ekar ditzakeen P. Hagemannek eta Giuseppe Nicolettik⁵ oso ongi aditzera ematen dutenez faktore demografikoen eta ekonomikoen gurutzaketa erabat konplexua baita eta gainera, ezinezkoa zaigu errealitatean oinarrituko litzatekeen adibideez baliatzea ez baitago gaur egun aurreikus-ten den zahartzerik ezagutu duen herririk».

Gutxi balitz, esango litzateke gaiak berez duen baino garrantzi gehiago ematen zaiola hedabideetan batez ere —bestela dela esango nuke literatura zientifikoan— berez fenomenoak duen eragin ekonomikoa ilunduz; halere, ikerketa ezkorren arabera biztanlegoaren egitura aldatzeak gizarte gastuak 40 urteren buruan % 21 haztea ekarriko badu (urtean 0,5) bai-

korrenek, %2-7 bitartean ezartzen dute hazkuntza posiblea denbora-tarte berean.⁶

Bestetik, kontuan hartu behar da, krisi-egoeramaurrean helduak/zaharrak arteko mendekotasun-indizearen bilakaerak baino —eta hori azpimarratzen da gehiena— garrantzi handiagoa duela lanean *ari/ari ez* direnen artekoak, askoz azkarrago hondatzen baita bigarren hau. Gaur egun, Hego Euskadin, 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko 4,5 ari da lanean. Horixe da auzia, lan egin nahi duen guztiak ez duela lan aukerarik izaten, alegia. Auzia, *per se*, ez datza zahartzean berean, ez da hori behintzat auziaren muina.

Arazo larriena zera da: alde batetik gero eta zahar gehiago «sortzen» dela artifizialki, produzki-sistemak gero eta lehenago ematen baitio zahar-estatusa biztanleriari langileak gero eta lehenago erretiratzen dituen neurrian. Gero eta lehenago adinari bagagozkio, kronologiaren ikuspegitik beraz, eta zer esanik ez fisiologiaren ikuspegitik, jakina denez besteak beste bizimoduaren hobekuntza medio, gero eta osasuntsuago iristen baitira gizon-emakumeak erretiroaren adinera. LNEren ikerketetan ageri denez, Europan, batezbeste, behin-betiko lan uztea bost urte lehenago gertatzen da gaur egun orain dela hamar urte baino, eta langabezia-laguntzaren erdia baino gehiago lanari behin-betiko utzi diotenezako izaten da.

Beraz, zer dela eta ematen zaio horrenbesteko garrantzia biztanlegoaren zahartzeari? Bi gertaera hauen artean kausazko erlaziorik ba ote dagoen bilatu nahi izan gabe ere, dudarik ez da, biztanlegoa zahartzeak sortu duen larridurarekin batera, gero eta pentsio-plan pribatu gehiago eskaintzen direla komunikabideetan. Bestalde, gero eta zabalduago dago gazteen artean zaharrak gizarteko talde pribilegiatu eta intsolidario bat direla. Azken finean, zahartze demografikoaren lehen irakurketa ximple baten bidez ez litzateke harritzekoa zenbait gaztek zaharrak sobran daudela ateratzea ondorioztat. Hori dela eta, egile batzuek adierazi dute belaunaldi arteko krisi-baten perspektibak, babes sozialaren politika desegituratzen saiatzen den argudio ideologiko eta estrategia huts baten papera betetzen duela.⁷

Nolabait saldu nahi da gizarte-babesa, eta Zaharrentzako Gizarte-Laguntzaren Politika bereziki, krisiak jota daudela gero

eta zahar gehiago dagoelako, nahiz eta benetan krisiak jota dagoena politika horren ingurukoa izan. Ikuspegi horretatik begiratuz gero, jubilaria langabeziaren irtenbidetzat hartzearen ondorio da Zaharrentzako Gizarte-Politikaraingainbehera: lan egin dezaketen asko lan-merkatutik gero eta lehenago baztertzean datza lanean *ari* eta *ari ez* direnen arteko oreka kinka larrian jartzearen arrazoia. Gestio-krisi baten aurrean gaude beraz, politikaren beraren krisi baten aurrean baino.

Kritiko are zorrotzagoak ere badira; Anne Marie Guillemardek, adibidez, zahartze demografikoaren auzia, gizarte politikak eta azken buruan, Welfare State, Ongizatearen estatua edo Estatu Sozialaren desegituraketa lortzeko aitzaki gisa erabili izanaren hipotesia baztertu gabe, uste du herrialde aurreratuenean erakundeek zahartzearen auziari eman dioten irtenbidea ez dela egokia izan, ezaktibotasunera kondenatuz haien bazterreratzea izan baitu ondorio.

Nonnahitik ikusita ere, geroa ez dago argi: ikasle 30 urte arte, 50ak bete ondoren jubilatuz, produkzio-sistemaren irrazionaltasunak, gizarte-antolakuntzarenak, gure bizimoduaren sistema ~~erak~~, segurtasunaren eta hazkunderaren iturrietatik aldi berean edan beharrak, horrek guztiak, krisira garamatza, eta hondamendira garamatzake. Zahartze demografikoak ez du errua. Politikoez, enpresarietz eta sindikatuek gai horren gainean egiten dituzten aipamenak buruzuritze-ahalegin bat baino ez dira, arazoen iturria kausa mugaezinetan, fenomeno naturaletan, harako «pertinaz sequía» haren ordezkotetan bilatu nahia, alegia.

Irtenbide bakarra, babes-sistema publikoak kentzeko bantzuek egiten duten aldarrikapenaz gainera, hauxe litzateke dudarik gabe: lana banatzea, logika ororen aurka zahartzarora aurreratzen duen adin-muga arbitrarioa haustea, bizi aroen ~~beriz~~ funts gabeak behin-betiko desagertaraztea eta, hori lortu ahal izateko, ikasketarako denbora, aisia eta lana era arrazional batean banatzea, nor bere bizitzan egin nahi edo izan nahi duenaren arabera.

Beharbada, utopiatzat hartuko da hau guztia, baina gainerako irtenbideak adabaki pasaratuak jostea dira, ez bada, gutxi batzuen interesen alde, gizarteak atzerako urratsa egiteko gogo bizia.

BIZTANLERIAREN EGITURAKETA

ADINA	E.A.E.		NAFARROA	
	1984/85	1991	1984/85	1991
0-19	21,6	16,9	21,9	17,3
20-64	68,1	70,5	65,3	67,5
≥ 65	10,3	12,6	12,8	15,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

ADIN-TALDE HANDIEN BILAKAERA (1986-2016)**BIZTANLEGO OSOAREN BATEZBESTEKOA**

ADINA	1996	2001	2006	2011	2016
< 15	13,55	13,63	15,37	16,63	16,09
15-64	72,10	69,98	67,73	65,56	64,68
≥ 65	14,35	16,39	16,90	17,81	19,23
TOTAL	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

1. Zoritzarrez aski zaila da Euskal Herria demografiaren ikuspuntutik aztertzea hiru erakunde estatistikoren kargu zatitzen baita datuak jasotze, lantze eta argitaratze-lana: EUSTAT Euskal Komunitate Autonomoaren kasuan, INE Nafarroaren kasuan eta INED Iparraldeko eskualdeari dagokionean. Azken kasu honetan gainera EUROSTATen estatistika europarretan bezala hiru lurraldeak Akitaniaren barruan kokatzen direlarik.
2. Eusko Jaurlaritz. Estatistika Zuzendaritza. 1981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitza eta Biztanleen Zentsua.
3. *Expansión*, 1993ko urtarrilak 12, astelehena.
4. CABRE, Anna & DOMINGO, Andreu: «Reflexiones desde la demografía», *Revista de Economía*, 13. zk., 1992.
5. HAGEMANN, R.P. & NICOLETTI, G.: «Les dimensions économiques du vieillissement démographique», *Problèmes Economiques*, 2.156 zk., 1990.
6. Aditu askorentzat, zahartze demografikoarekin lotzen den gastuhanditzea, horrekin berareki zerikusia duten beste faktore batzuei dagokio. Thomas E. Gatzenek adibidez —Population aging and the growth of health expenditures. *Journal of Gerontology. Social Sciences*, 47. lib., 3. zk., 1992—dioenez, 60-80 bitarteko urteetan 20 herrialdetan egin zen azterketa batean, nahiz eta osasun-zerbitzuetakoa gastuen handitzeak biztanlegoaren zahartzearekin zerikusia izan, gastu-handitze hori zahartzearen beraren eta kontuan hartzen ez diren beste faktore batzuen (pertsone bakoitzeko errenta, adibidez) arteko beste lotura bati dagokio. Templeko Unibertsitateko Health Finance-ko autore horren ustez, behin faktore horiek mendearen hartu ondoren amaitzen dira adin-egituraketaren eta osasun-zerbitzuen diruen zenbatekoaren arteko zerikusiak.
7. Cfr. KINGSON, Eric R.: «Le vieillissement de la génération du baby boom aux Etats-Unis: état du débat politique». *Revue Internationale de Sécurité Sociale*, 44 lib., 1-2 zk., 1991.

OKUPAZIO SEKTORIALAREN BILAKAERA (1977-1992)

Euskal ekonomiaren eraldaketa

JOSE MARI AGIRRE

Presaka bizi gara, itsumustuan gertatzen da oro, atzokoa zahar egiten zaigu eta bihar gertatuko denaren zai gaude dagoeneko. Gauza bera gertatzen da ekonomiaren arloan, dena mugitzen da, betirako zirela ziruditen zutabe sendoak (enpresa eta sektoreak) kolokan ikusten ditugu eta «probisio-naltasun-giroan» ari garela dirudi. Aldaketa-garaian bizi garenez, aldaketaren ziztuak zorabiatzen gaitu, urduri eta kezkatu bihurtzeraino.

Sarritan patxada eta perspektiba galtzen ditugu eguneroko eginbeharrak menderatzen gaituelako, eta azken urteetako gertaerak aztertzekeo premiazko den ikuspegi zabal eta orokorra ahazten zaigu. Komeni da, ordea, noizbehinka ikuspegi

zabal honetatik, perspektiba luzeago honetatik gogoeta egitea eta horixe da lerro hauen bidez lortu nahi dena.

Iragan hogeita hamar urtetako euskal ekonomiari gainbegirada bat botatzea aski da bi denboraldi arrunt ezberdinak bereizteko: 1960tik 1977rako tartea betetzen du batak eta 1977tik gaurko eguneraino luzatzen da bigarrena.

Jakin ere jakina da 1960tik 1977rako hazkuntza tinko eta luze baten bolada izen genuela, ekonomi arloan ez ezik demografikoan ere, batipat 1973 arte. Hamalau urtez %7,7 hazi zen batezbeste urtero Euskal Autonomi Elkarteke ekonomia eta %10etik gora aritu zen igotzen industri sektorea epe berdinean. Era berean sekulako gorakada demografikoa ematen da euskal gizartean, eta hamabost urteren buruan (60-75) 700.000 pertsonatan gehiagotzen da bertako biztanleriaren kopurua, 1.300.000tik 2.000.000ra iraganez, lan-merkatuak erakarritako etorkinen eraginez neurri handi batean.

Garapen ekonomiko eta industrialaren giro arrakastatsu hartan erruz sortzen dira eta ugaltzen enpleguak, enplegu berriak, eta Hego Euskal Herriko industriak inoiz izan duen okupaziorik kopurutsuena lortzen du 1973. urte inguruan, 440.000 enplegu industrial osatzeraino.

Gure auzoko gizarteetakoak baino hazkuntza-maila bizkorragoari eusten diote euskal ekonomia eta demografiak garapenaldi honetan, Estatukoarena gaindituz eta Europako Ekonomi Elkartekoarenaren nahiko gainerik.

Dudarik gabe, industria izan zen garapen paregabe horren motor eta gidari, gero hainbeste buruhauste ekarriko dizkigun espezializazio industrialak eragin zion prozesu zabalkor hari. Estatuko barne-merkatuak erakarri eta bultzatu zituen gure burdingintza eta metalen eraldaketa-sektorea, ekonomia itxi batean ari ginanez.

Garapenismo bezala deituriko epealdi honek bazituen ordea bere mugak: merkatu itxi batean gauzatu zen, barne-merkatuak eragin zion bete-betean euskal industriari eta, kanpoko konpetentziarik gabe, Estatuko mugen babesean burututako hazkuntza-bolada hori ezin da garaiko baldintzak kontuan hartu gabe ulertu. Gainera ezin da ahaztu orduko gure industriaren monokultiboa, burdingintzan eta metalgintzan oinarritua eta gerora «sektore helduak» (hazteko aukerarik ez

dutenak) izango direnetan espezializatua. Bestalde, kanpotik etorritako eskulan merkeak asetzen du lan-merkatuaren eskea baina aldi berean emakumezkoen jarduera-tasak guztiz behean dirau Europako nazio aurreratuekin gonbaratuz gero.

Hiru ezaugarri hauek izango dute zer esanik ondorengo krisialdian zehar, nola ekonomi egituraren eraldaketan hala lan-merkatuaren bilakaeran.

KRISIALDIAREN AGERPENA

Nahiz eta nazioarteko krisian bete-betean sartuak izan hazkuntzaeuforia hori ez zen hemen itzali 1977 arte, bestela nola ulertu 1976. urtea izan zela inbertsio-tamainarik gorena egingakoa. Hiruzpalau urte beranduago heldu ziren hona petrolioarena deituriko krisialdiaren eraginik nabarmenak (merkatu itxian aritzearen ondorio da hori) eta hirurogeigarren urteetan metatutako hazkuntzaren abiadak porrot egiten du, eten egiten da eta haustura honen ezaugarriak berehalaxe kaleratzen dira: industri jardueraren erorketa (inbertsioak behera eta kostuak gora), ekonomi hazkuntza negatiboak, inflazioaren gorakada bortitzak, lanpostuen galera batez ere industrian, eta ordurarte arrotz bezain ezezagun zitzaigun arazo larri baten agerpena; langabeziarena.

Birmoldaketa, sektore eta enpresen tamainak egokitu beharra, berrindustrializazioa, eskulan soberakina, lan-kostuak jaitea, jubilazioak aurreratzea, dibertsifikaziorik eza, eta horrelako kezkek sartuko dira gure eguneroko hiztegian. Langabeziaren itzala gure kide bilakatuko da eta bere inguruan bilduko dira gizartearen larritasunik nagusienak. Izan ere 1978an %6,9koa zen langabezi tasa %17,8ra helduko da 1992an Hego Euskal Herrian, 1985ean %22,9raino iritsi ondoren.

Hego Euskal Herriko lau lurraldeek atzera egiten dute Estatuko zerrenda probintzian eta biztanleko errenta erabilgarria neurritzat hartzen badugu laurek galtzen dituzte postuak 1975etik 1985era. Egia esan tradizio industrialeko lurralde guztietan gertatu den prozesua da aipatzen ari garena, baina Euskal Herrian inon baino erasokorragoa izan dela dirudi, bertako industria heldutako sektoreetan eta aurrera begira

dinamismo gutxiakoetan gehiago sostengatzen zelako, askoren ustez.

1977tik honakoa ez da dena berdina izan eta gutxiago uniformea, tartean ziklo ekonomiko ezberdinak bizitu direlako. Hala nola 77tik 85erakoa, hazkuntza ekonomikorik gabea, enpleguaren galeraz eta langabeziaren ugartzeaz ezagutua. Hurrengo, 85etik 90era doana, urteko %5 inguruko hazkuntza-tasa ekonomikoa lortzen duena eta langabezia 4 bat puntutan jaitziz susperraldi bezala aipatzekoa; eta azkenekoa, 91tik aurrera, berriro ere hazkuntza ekonomiko mehetara itzuli dena.

Krisiaren erasorik bortitzena 1980. urte inguruan kokatzen da, aurreko hazkunde ekonomiko eredia agortzarekin batera, nahiz eta oraindik ere bere ondorioek bizirik dirauten. Susperraldiz eta motelgunez mugitzen diren ziklo ekonomikoek gaitetik berrikuntza eta birmoldaketaprosesu etengabeko batean sartuak gaude. Internazionalizazioa geroz eta handiago da, konpetentzia bizi-bizia, mugak desagertu dira, 86ko Merkatu Batutik 93ko Merkatu Bakarrera heldu gara eta berriro 80ko hitz berdinarabiltzaz ahotan: berrindustrializazioa, lanbezia, sektore eta enpresa berriak urratu beharra, lehengoetatik onenak mantendu eta berriak sortu.

EGITURA-ALDAKETA

Krisia agertu zenetik hona sektoreen arteko egitura-aldaketa nabaria nozitzen du euskal ekonomiak, beste sektore guztiak baino gehiago zen industriak bere kuota galtzen du, kuantitatiboki behintzat. Euskal Autonomi Elkarteko Barne Produktu Gordinaren (B.P.G.) erdia baino gehiago suposatzen zuen 1981ean eta 10 puntu galtzen ditu laurogeiko hamarkadan.

Euskal Autonomi Elkarteko B.P.G.ren egitura sektoriala (%)

	1981	1986	1990
B.P.G.	100,0	100,0	100,0
Lehen Sektorea	2,6	2,6	2,0
Industria	50,8	41,6	40,1
Eraikuntza	5,2	5,5	7,6
Zerbitzuak	41,4	50,3	50,2

(E.A.E.ko Kontu Ekonomikoak)

Zerbitzuek aldiz ia 9 puntutan gehiagotzen dute haien partizipazioa eta ekonomiaren erdia izatera iristen dira 90ean. Horrela hainbeste bider aipatu izan den «tertziarizazio-prozesu» nabarmen bat ematen da euskal ekonomiaren egiturari.

Nahiz eta hasierako abiapuntuak ezberdinak izan, prozesu bera, eta abiada berdintsukoa, gertatzen da Euskal Autonomi Elkarteke Hiru Lurralde Historikoetan.

Nafarroako ekonomiaren egitura aski bestelakoa zen 80ko hamarkadaren atarian eta eraldaketa ere askozaz arinagoa izan da.

Nafarroako B.P.G.ren egitura sektoriala

	1981	1984	1988
B.P.G.	100,0	100,0	100,0
Nekazaritza	7,0	7,6	5,9
Industria	39,6	37,5	37,4
Eraikuntza	5,9	4,6	6,3
Zerbitzuak	47,5	50,3	50,4

(Contabilidad Regional)

Gauza bera edo antzekoa ageri da okupazio sektorialari jarraitzen badiogu, gainera maila berdintsuko aldaketa gertatzen da: hamar puntu irabazten ditu Zerbitzuen sektoreak eta beste hainbeste galtzen industriak.

Okupazio sektoriala (%) Hego Euskal Herrian (81-92)

	1981	1985	1992
Okupazio osoa	100,0	100,0	100,0
Nekazar. eta Arrantza	7,7	6,8	3,8
Industria	42,2	39,4	33,6
Eraikuntza	5,7	6,1	8,1
Zerbitzuak	44,4	47,7	54,5

(E.P.A.)

Datu hauen arabera ikus daitekeenez tertziarizazio-prozesu nabarmena ematen da laurogeitik aurrera, batetik zerbitzuen sektoreak benetako hazkuntza burutzen duelako eta industriaren jarduera jaisten delako bestetik, baina aditu askoren iritziz gure ekonomiaren tertziarizazioa eskasa da oraindik. Are gehiago zerbitzuen hazkuntza hori sektore tradizionaletan kokatu dela kontuan izanik.

Produktu eta zerbitzu berri dinamikoetan dago etorkizunaren giltzarria. Ez dago inor industriaren dibertsifikazioa eta zerbitzuen berrikuntza xedetzat jartzen ez duenik. Besterik da helburu horiek lortzea eta batez ere ahalik eta azkarren egitea. Sektore tradizionaletatik sektore berrietara pasatzea da erro n-karrik garrantzitsuena.

Urratu den bidea aintzakotzat hartzekoa da baina geratzen dena ez da gutxiago. Beheraka doazen sektoreetan galtzen diren lanpostuak okupatzeko lain jarduera ekonomiko berriak, etorkizunekoak, sortzea da jomuga, eta nagitasunez bezain nekez garatzen ari den trantsizioa dela bistan dago. Eredu ekonomiko bat agortzen denean beste batez ordezkatu behar izaten da, eta giza baliabide eta gizarte-joera dinamikoak sortzea ezinbestekoa gertatzen da etorkizunari konfiantzaz begiratzeko.

Enpresa berriak eta dinamikoak sortzea da bide bakarra aberastasuna eta lanpostuak sortzeko, nazioarteko lehiaketan parte hartzeko, teknologi aurrerakuntzak erabiltzeko. Krisiaren hasieratik 1986 arte murrizten joan zen biztanleri okupatua, industrian gehienbat. Ondorengo lau urteetan (87-90) hazkuntza-maila aipagarriak erdietsi zituen euskal ekonomiak (berriro ere industriaren eraginez) eta enplegu garbia sortzera iritsi zen. Teknologi berrikuntzari eta nazioarteko abagune ekonomiko hazkorrari esker susperraldi edo ostarte onuragarria ezagutu genuen eta krisia amaitutzat ematera ausartu zirenen ahotsak ere entzun genituen.

Larogitamarretik hona nazioarteko koiuntura ezezkorrean sartuak gara berriro eta gure ekonomi egituraren ahuleziak azaleratzen dira ostera. Konpetitibitatearen mugak, sektore tradizionalen nagitasuna eta dibertsifikazio eskasaren ondorioak berehalaxe agertzen dira lan-merkatuan.

LAN-MERKATUAREN BILAKAERA

Oro har, ziklo ekonomiko laburren portaera ahaztu gabe, 1977tik datorren krisialdiak badu, besteak beste, ezaugarri berezi bat, lan-merkatutik begiraturik gutxienez: enplegu garbia sortzeko zailtasuna eta langabezia xurkatzeko ezintasuna. Izan ere sektore batetik bestera (industriatik zerbitzuetara)

egon diren trasbaseek ez dute okupazio-kopuru osoa aldatzeko gaitasunik izan.

Biztanleria aktiboa, lanean diharduena eta lan bila dabilena, 220.000 gehiagok osatzen dute 1991n hamabost urte lehenagokoari buruz baina horietatik gehienak (150.000) langabeziaren multzoa gizentzera joan dira.

Nahiz okupazio sektoralak aldakuntza azpimarragarriak jasan azken hamarkadan, okupazio osoa ez da gehiegi mugitu, ez behintzat lan-adineko biztanleria aldatu den neurrian.

	1975	1991
16tik 64 urtekoak	1.581,4	1.785,0
Okupatuak	835,9	879,9
Langabetuak	20,6	199,1
Aktiboak	856,5	1.079,0
Inaktiboak	724,9	706,0

(1975eko Errolda eta 1991ko Zentsua)

Gauza jakina da Hego Euskal Herriko biztanleria gutxitzen hasia dugula 1986ko Erroldatik hona jaiotze-tasak behera egin duelako baina aldi berean 16 urtetik 64 urterartekoen taldea, lanerako adina dutenena, haztzen ari da oraindik eta haztzen jarraituko du, gutxienez 2000 arte.

Horrela 1975etik 1991ra 200.000 pertsonatan igotzen da 16 urtetik 64ra artekoen kopurua. Okupatuena, berriz, ez da 45.000tan baizik hazten eta ondorioz langabezian erortzen dira gehienak.

Labur esateko euskal ekonomiaren dinamikak eutsi dio orain hamabost urteko okupazio-mailari, zerbait hobetu ere egin du, sektore batzuetan galtzen zena beste batzuetan konpentsatuz, baina ez du jakin lan-merkatuko eskaintza asetzen, eta 86-90 urtegunean poliki arindutako langabezi tasa lehenera bihurtu da.

Jarduera-tasa (biztanleria aktiboa zati 16tik 64 urterartekoa) %54tik %60ra igo da epe honetan. Okupazio-tasa aldiz (okupatuak zati 16tik 64 urterartekoak) %60tik %49ra jaitsi da.

Bada beste fenomeno bat ere aipatzea merezi duena eta azken urteotako euskal gizartean gauzatu dena: emakumearen lan-merkatuan sartzea. Argi eta garbi agertzen da hori ondorengo taulan. Emakumezkoen okupazioa bikoiztu bada ere

beraien langabezia 100.000tan gehiagotu da, batetik 16tik 64 urteko emakumezkoen kopurua 790.000tik 889.000ra goratu delako eta bestetik emakumezko inaktiboak 613.000tik 514.000ra jaitsi direlako.

	1975	1991
<i>Gizonezkoak:</i>		
– 16tik 64 urtekoak	791,0	896,0
– Okupatuak	666,0	611,0
– Langabetuak	14,0	93,5
– Aktiboak	680,0	704,5
– Inaktiboak	111,0	192,5
<i>Emakumezkoak:</i>		
– 16tik 64 urtekoak	790,4	889,0
– Okupatuak	169,9	268,9
– Langabetuak	6,6	105,6
– Aktiboak	176,5	374,5
– Inaktiboak	613,9	514,5

(1975eko Errolda eta 1991ko Zentsua)

Euskal ekonomia eta euskal gizartea aldakuntza handiak bizitzen ari dira, trantsizio gogor bat iragaiten ari gara, eredu zaharra hiltzear dago eta berria ez da oraindik jaio. Duda-muda ugarik kezkatzen gaitu, bereziki langabeziarenak. Erronka handiek erantzukizun sendoak eskatzen dituzte eta horiek gizarte osoaren eskuetan daude, inon egotekotan.

Datozen urteak erabakiorrak izanen direla dudarik ez dago. Gaur ditugun enpresa eta sektore asko gai dira etorkizunari erantzuteko berrikuntza-bidean sartzen badira, egokitzen badira, merkatuak ezartzen dieten konpetitibitate-maila lortuz gero. Hori bakarrik ez da aski. Enpresa berriak, produkto berriak eta zerbitzu berriak sortu ezean ezinezkoa gertatuko da enplegua haztea, lanpostu garbiak erakartzea.

Gaurko egoera zaila da, askotan ilun dakusagu etorkizuna baina norbaitek esan duen bezala beldurrari bakarrik izan behar omen zaio beldur. Aurrera begira, Europako Merkatu Bakarrean, nazioarteko lehiaketan eta gure ekonomiaren eraldaketan ditugun arazoak ezin dira ezkutatu. Halere hor bertan izango ditugun aukera berriak etekina ateratzen asmatzen badugu onuragarri gertatuko zaigu. Askotan beltz ageri zaigu etorkizuna baina etorkizuna ez da ikusten, egin baino.

IRAKASKUNTZAREN EBOLUZIOA

PATXI ESPARTZA

Hezkuntza-sistema aldaketa-garai batean murgilduta dago Euskal Herrian, Hezkuntza-Sistemaren Antolamendu Orokorreko Lege berriaren pixkanakako ezarrerak markatzen duen garai batean hain zuzen, haur-irakaskuntzatik hasita. Lege horrek, LOGSEk alegia, derrigorrezko eskolaketa 16 urteraino luzatzen du eta gaur egungo unibertsitate-aurreko maila guztiak berregituratzen ditu.

Euskadin 523.571 ziren 1991-92 ikasturtean irakaskuntza arautuan zeuden ikasleak, Hizkuntzak eta Musika ikasten ari direnak sartu gabe, gehienetan beste ikasketa batzuk ere egiten ari direlako aldi berean. Kolektibo honek populazioaren %24,9 suposatzen du, eta azken urteotan tasaren behe-

rakada bat gertatu da, jaiotza-tasaren beheranzko eboluzioa dela medio.

Eskola-umeak behera egitearekin batera, adinen araberako eskolatzetasek gora egin dute, eta horrela hezkuntza-erformaren helburu nagusienetako bat betetzeko bidean gaudela esan genezake, 16 urte bitarteko erabateko eskolarizazioa lortzeko bidean, hain zuzen.

Bestalde, 1983-84 ikasturtetik hasi zen, esperimentu gisa izan bazen ere, Irakaskuntza Ertainen Erreforma (IEE) poliki-poliki finkatzen, eta gaur egun bigarren mailako ikasleen %19 horretan ari dira bere ikasketak egiten. Eta erreforma honek LOGSEren batxilergo berriaren eskema aurreratzen duela esan genezake, bere egitura orokorrari dagokionez. Era berean, esperimentazio-bidean daude gaur egun II. eta III. mailako Modulu Profesionalak ere, irakaskuntza tekniko-profesional berriak jarraituko duten ildo beretik abiatuak.

Aldaketa-eskema orokor honen barruan, estatu espainoleko gainerantzeko lurraldeetan ere aplika daitezkeen eskemaren barruan, gure hezkuntza-sistemak baditu beste hainbat ezaugarri propioak zaizkionak, eta horien artean aipa daitezke unibertsitate-aurreko hiru eratako irakas-zentroen sareak daudela edota goimailako irakaskuntzan eskaintza pribatuak duen indarra.

Eskolaritateak Euskal Herrian zentro pribatuetan duen pisu espezifikoa unibertsitate-aurreko ikaslearen %38,7raino eta goimailako irakaskuntzako ikaslearen %24raino iristen da. Kopuru horri ikastoletako ikasleek suposatzen duten %15 gehitzen badiogu, sareen araberako banaketan pribatuaren pisua estatu espainoleko enparatuan baino askoz ere handiagoa da. Bestalde, azpimarratzekoa da bai sare pribatua eta baita ikastolen sarea ere emaitza positiboekin ari direla lehiazten eskola-merkatuan, eta gertakizun horretan eragin handia du irakaskuntza pribatuak Euskadin lortu duen kontzertazio-maila altuak. Azken hamar urteotan, zentro publikoek beren ikasle-kopurua jaisten eta jaisten ikusi dute Eskolaurrean, OHOn, BBB/UBIn eta LHn, eta proportzioek Helduen Hezkuntza Iraunkorrean, Irakaskuntza Ertainen Erreforma eta Goimailako Ikaskeketan soilik egin dute gara.

Artikulu honetan, azken urteotan irakaskuntza arautuaren panorama Euskadin aldarazi duten prozesuetatik bi aipatu nahi ditugu batipat. Jaiotza-tasaren beherakadaren ondoriozko ikaslegoaren gutxitzea batetik, eta irakaskuntza arautuaren euskalduntze-prozesu pro g resiboa bestetik dira bi faktore horiek.

JAIOTZA-TASAREN BEHERAKADAREN ONDORIOAK

Hezkuntza-sistema hirurogeita hamarreko hamarkadaren lehenengo urteetatik gertatzen ari den jaiotza-tasaren beherakada azkarrera egokituz eta moldatuz joan da.

1. TAULA: IKASLEGOAREN EBOLUZIOA

	1983-84	1991-92	1984-92 Aldaketa	1984-92 Aldak. %
Eskolaurea	83.046	56.035	-27.011	-32,5
OHO / HHE	319.486	230.550	-88.936	-27,8
Hezkuntza Berezia	4.828	1.410	-3.418	
BBB/UBI	78.515	81.989	3.473	4,4
Lanbide-Heziketa	53.050	49.026	-4.024	-7,6
Irak. ert. erreforma	-	28.557	28.557	-
Modulu Profesion.	-	1.220	1.220	
Fakult./ GMET	39.669	54.032	14.363	36,2
Eskola uniberts.	14.136	18.486	4.350	30,7
Beste goimail. ikask.	2.001	2.263	262	13,0
GUZTIRA	591.347	523.571	-67.776	-11,5

Irakaskuntzako matrikulazioak 1983-84 ikasturtean lortu zuen bere punturik gorena. Zortzi urte beranduago, 67.776 ikasleko beherakada bat gertatu da (% -11,5).

Beharakada honek Eskolaurrean eduki du eraginik handiena, 27.011 ikasle gutxiagorekin (% -32,5) eta OHOn ondoren, 88.936 ikasle gutxiagorekin (% -27,8).

Irakaskuntza ertainaren blokean gorabehera handiak gertatu dira, eta horrela Lanbide-Heziketa bezalako ikasketek matrikula-galerak eduki dituzten bitartean (% -7,6), BBB/UBIk gorantz egin du (% 4,4), baina 1990-91 ikasturteetik aurrera

matrikulazioa galduz dator, eta Irakaskuntza Ertainen Erreforma eta Modulu Profesionalak ikasle berriek ere gora egin dute, irakaskuntza-maila horietan azken saldo bezala ikasle-hazkundera 29.229 ikaslekoa izan delarik (% 22,2).

Une honetan 1992-93 ikasturteari buruz eskuartean dauzkagun datuek aipatutako joera hori berresten dute. Eskolaurtean 2.917 ikasle gutxiago matrikulatu dira aurten (% -5,2) eta OHOn, berriz, 12.987 gutxiago (% -5,9), kasu bietan 1991-92 ikasturtean erregistratutako zifren azpitik jadanik.

BBB/UBIk eta Lanbide-Heziketak, beren aldetik, %1,1 eta %0,8ko jaitsiera dute, hurrenez hurren, IEEeko eta Modulu Profesionalak gorakadek nolabait ere irakaskuntza-bloke honen hazkundera mantentzen duten bitartean. Aurtengo ikasturteak aurrera hasiko da irakaskuntza ertainean matrikulen kopurua, guztira, jaisten.

Goimailako ikasketak dira, oraingoz, jaiotza-tasen beherkadak eragin ez dituen maila bakarra. 1984 eta 1992 bitartean Fakultate eta Goimailako Eskola Teknikoetako ikasle-kopurua %36,2an gehitu da, Eskola Unibertsitarioetako %30,7 eta gainerantzeko hirugarren mailako ikasketetako %13 igo diren bitartean.

Azken urteotan nabarmen gehitu da goimailako ikasketen eskaintza. Ikasketa berriak jarri dira, esate baterako Telekomunikazioetako Injinerutza, Odontologia, Farmazia, Topografia, Janarien Zientzia eta Teknologia, eta Gizakien Nutrizio eta Elikadura. Graduatu Sozialak eta Gizarte-Lana, eta Informatika, Zientzia Politikoak eta Soziologia, eta Zuzenbideko zentro edo ikastetxe berriak ireki dira.

Goimailako ikasketen programa desberdinek 1991-92 ikasturtean eduki duten eboluzioa gertuagotik aztertuko bagenu, matrikulen gehikuntzak atzeman ditzakegu Injinerutza eta Arkitekturan, Informatikan, Informazio-Zientzietan, Zuzenbidean, Erizaintzan, Graduatu Sozialetan, eta Natur Zientzietan. Sortu berriak diren ikasketetan ere gora egin dute ikasleek, adibidez Farmazian, Topografian, Janarien Zientzia eta Teknologian eta Gizakien Nutrizio eta Elikaduran.

Unibertsitateko Sarbide-Probak, 1991-92 ikasturtean eskaintzen digun informazioaren arabera, Unibertsitatean sartzeko

hautagai berriek gehien eskatzen dituzten ikasketak aurrekoekin bat datoz normalean, baina lehentasunak nabarmenki Ekonomi eta Enpresa-Zientzietara batetik eta Injinerutzara bestetik bideratzen dira, guztietatik %48,5ek lehenengo aukera gisa horiexek eskatzen baitituzte. Datu hau ez dator bat ikasketak horiek gaur egun Unibertsitatean duten pisu erlatiboarekin, ez baita %30era iristen.

Alderantziz gertatzen da Humanitateak, Irakaslegoaren Prestakuntza eta Zuzenbidearekin, ikasleen %10,5 batek eskatzen baitituzte ikasketak horiek lehenengo aukera gisa, gure Unibertsitatean %30 inguruko pisu erlatiboa lortzen duten bitartean.

Azpitarratzeko modukoa da azken urteotan emakumeek Goimailako Irakaskuntzan duten proportzioak egindako gorakada. 1982-83 ikasturtean proportzio hau hirugarren mailako ikasleen %44ekoa zen, eta 1991-92 ikasturtean, berriz, gehien-goia izatera pasatu dira, %51ko proportzioarekin.

Matematika eta Informatikako ikasketak izan ezik, emakumeen matrikulazio-tasak gorantz egin du gainerako guztietan, eta emakumeak dira ugariago ikasketak guztietan, salbu aipatutakoak (Matematika, Informatika), Injinerutza eta Teknologia eta Arkitektura/Urbanismoa. Azpitarragarria da azken urteotan gehien-goia lortu dutela Zuzenbidea eta Ekonomi eta Enpresa-Zientziak bezalako ikasketetan, 1 eta 2 zikloko bariantetan, eta bestalde emakumeen portzentaiak modu esanguratsuan egin duela gora Arkitekturan (%37) eta baita Injinerutzan ere (%15).

Gaur egun ikaslegoak adinaren arabera hezkuntza-sisteman duen banaketak aukera ematen digu, zenbait suposamendu egin ondoren, 2000-2001 ikasturtearen eskolatzeko posiblerik eraikitzeko, 2 urtetik 24 urtera bitarteko adinetan:

2. TAULA: 2000-2001 ikasturtea. Ikasleen aurrikuspena, 2-24 urte

	1991-92	2000-01	Aldaketa	Aldaket. %
2-10 urte	172.910	148.896	-24.014	-13,9
11-16 urte	191.629	113.816	-77.813	-40,6
17-24 urte	130.350	98.205	-32.145	-24,7
GUZTIRA	494.890	358.943	-135.947	-27,5

2000-01 ikasturterako 2-10 urte bitarteko adin-taldean lortutako zifra 1989. urtean erregistratu zen jaiotza-tasa modu konstantean mantenduko litzatekeela kontsideratuz kalkulatu da. Parametro hau mantenduz, %14eko jaitsiera bat izango du gu ikasleen kopuruan, adin-talde honen gaur egungo matrikulazio-tasarekin konparatuz gero. Oinarri bezala 1983-84 ikasturtea hartuz gero, ikasleen jaitsiera 119.917koa izango litzateke, hau da ikasturte hartan ikasketak egiten ari ziren 2-10 urteko ikasleko osoaren %44,6.

Bigarren adin-taldeari dagokionez, 11-16 urte bitartekoen estimazioak egiteko alegia, 2000-01 ikasturtean adin-talde honen eskolatze-tasa erabatekoa izango dela suposatu du gu. Beraz, ikasle-talde hau osatuko dute gaur egun 3-7 urte bitarteko matrikulatuek batetik gehi 1989. urtean jaiotakoek bestetik. Emaiza 113.816 ikasletan aurrikusten da, adin-talde berberak 1991-92 ikasturtean 191.629 ikasle zituen bitartean, %40,6 alegia. Konparazioa 1983-84 ikasturtean matrikulatuekin egiten baldin bada, adin-talde honen jaitsiera %44,7koa izango litzateke.

2000-2001 ikasturterako estimaturiko hirugarren taldea, 17-24 urte bitartekoei dagokiena da. Talde honetan sartuak dauden ikasleak 1991-92 ikasturtean 8tik 15 urtera bitartean matrikulatuak daudenak dira, baina talde honek ez du jarraituko erabat eskolarizatua 2000. urtean, eta beraz, gaur egun 17-24 urtekoek dituzten eskolatze-tasak aplikatu dizkiegu gaurko 8tik 15 urtera bitarteko populazioari. Emaiza 32.145 ikaslearen galera da, hau da gaur egun 17-24 urte bitartean matrikulatuak daudenen %25 gutxi gorabehera. Konparazioa 1983-84 ikasturteko adin horietako ikasleekin egiten badugu, emaitza %1,3ko hazkundea da.

Laburbilduz, 2-24 urteko ikasleen totalari begira, %27,5eko galera bat ikusten da 1991-92 ikasturtearekiko eta %37,2ko galera, berriz, 1983-84 ikasturtearekiko.

EUSKALDUNTZEAREN EBOLUZIOA IRAKASKUNTZAN

Lege 10/1982, azaroaren 24ekoak, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak alegia, gidarau sendo eta eraginkorrak ezarri zituen euskararen erabilera egokia bideratu eta

arautzeko irakaskuntzan, erreferentzia bezala hartuz A,B eta D ereduak irakaskuntza elebidunerako.

Lege hori argitaratu zenean, gure Herriko Hezkuntza-Sistemak hasia zuen jadanik Unibertsitate-aurreko mailatako ikaslegoaren euskalduntze-prozesua. Ikaslegoari buruzko zifra nagusiak, sareen eta lurralde desberdinen arabera, irakaskuntza elebiduneko ereduak begira, 1982-83 ikasturtean, ondorengoak ziren:

3. TAULA: 1982-83 Ikasturtea: Ikaslegoa, irakaskuntza elebiduneko ereduak begira, sare eta lurraldeen arabera. Unibertsitate-aurreko mailak

IRAKASKUNTZA ELEBIDUNENKO EREDUA	GUZTIRA	%	LURRALDEA (%)			IRAKASKUNTZA-SAREA (%)		
			Araba	Bizk.	Gip.	Publikoa	Ikastola	Pribatua
Guztira*	523.622	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
A ereduak	317.761	60,7	60,8	60,3	61,2	62,7	11,8	73,4
B ereduak	44.458	8,5	8,3	6,8	11,2	7,7	17,6	6,7
D ereduak	63.699	12,2	1,7	7,5	23,4	3,9	70,6	4,9
X ereduak	97.704	18,6	29,2	25,3	4,1	25,7	-	15,0

(*) Ez da barne hartzen ez Helduen Hezkuntza Iraunkorra ezta Hezkuntza Berezia ere.

Ikaslegoaren %60,7 A ereduaren barruan zegoen, euskara asignatura edo irakasgai bat bezala irakatsiz, %8,5ak bere ikasketak eredu elebidunean (B ereduak) egiten zituen, %12,2ak euskara hutsean hartzen zituzten beren ikasketak (D ereduak) eta ikasle-talde ugari bat geratzen zen oraindik (97.704 ikasle, guztien %18,6), euskarazko irakaskuntzarik gabe, euskalduntze-prozesuan sartu behar zirenak. Ikasle-talde honek Araban eta Bizkaian matrikulatutako ikasle guztien %29,2 eta %25,3 suposatzen zuen hurrenez hurren, eta legearen marko berrira sartzeko beren inkorporazio-prozesua lau urtez luzatuko litzateke oraindik, 1986-87 ikasturtean amaitzeko, ikasle guztien %1era soilik murriztua geratuz. B eta D ereduak ikaslegoari dagokionez Gipuzkoako Lurraldean kontzentratzen dela esan behar da, probintzia honek E.K.A.ren ikasle guztien %33 eduki arren B eta D ereduak pisu totalaren %45 eta %65 kontzentratzen baitzituen, hurrenez hurren.

Euskara asignatura bezala zuen ereduak, A ereduak alegia, ikaslego osoaren %60,7an erabiltzen zen, eta eredu honen

pisua hiru lurralde historikoetako bakoitzean oso antzekoa zen.

Euskararen lurraldekako banaketak irakaskuntzan murrizten zuen mapa bere hartan mantendu da, handiaurkiro, azken 10 urteotan. Lurralde gipuzkoarrean zeuden ikaslegoaren euskalduntze-mailarik altuenak, %11,2 eredu elebidunean eta %23,4 euskara hutseko ereduari, euskarazko irakaskuntzarik gabeko ikasleak %4,1 ziren bitartean, urtebeteren buruan marko legal berrian erabat inkorporatuta geratu zirenak hain zuten. Bigarren postuan, eta aurrekoen oso atzetik euskalduntze-maileri dagokienez, Bizkaian B ereduak %6,8 suposatzen zuen eta %7,5 D ereduak, euskararik gabeko irakaskuntza-erdua jasotzen zuten ikasleek talde garrantzitsua osatzen zuten bitartean, %23,5. Arabak ixten zuen hizkuntz mapa berezi hau 1982-83 ikasturtean, %8,3 eta %1,7 izanik, hurrenez hurren, B eta D ereduak ikasleak, bere ikasleetatik %29,2 euskarazko irakaskuntzaren marko legal berritik kanpo zeuden bitartean.

1982-83 ikasturteari dagokion deskribapen hori osatzeko, Euskadin unibertsitate-aurreko hezkuntza-sistema osatzen duten hiru sareetan irakaskuntza elebidunak bere eredu diferentzetan lortutako ezarpen-maila aipatuko dugu segidan.

Ikastolen sareak eskolatzen zituen ikasturte horretan unibertsitate-aurreko ikasle guztietatik %12. Eta ikastoletako ikasleetatik %65 Gipuzkoako lurraldeari zegozkion, Bizkaiak eta Arabak ikasleen %6 baino zertxobait gehiago eskolatzen zituzten bitartean, lurralderik ekialdekoenean, maila hori ikasleen %28raino iristen zen.

Ikastolen eskaintza linguistikoa horrela banatzen zen: bertako ikasleen %72,6k irakaskuntza euskara hutsean jasotzen zuten, %23,1ek eredu elebidunean eta gainerantzekoek, %4,6k alegia, A ereduari.

Zentro edo ikastetxe publikoei dagokienez, eta hauen ezarpen nagusia Araban eta Bizkaian ematen da, euskara asig-natura gisa —A ereduari, beraz— eskaintzen zieten beren eskola-umeen %56,2ri, B ereduari %5,7ri eta euskara hutsezko irakaskuntza azkenik ikasleen %3,5ari. Gainerantzeko %35,1 ez zen oraindik lege-arautegi berrira inkorporatu eta horiek

ez zuten, beraz, euskararik ikasten. Zentro pribatuen sareak oso ezarrera homogenoa zuen hiru lurralde historikoetan eta bere euskarazko eskaintza Sare Publikoarenaren oso antzekoa zen B eta D ereduak dagokienez, euskarazko irakaskuntzarik gabeko ikasle-taldea murriztagoa izanik, % 14,8, eta euskarazko eskaintza, azken finean, ikastetxe publikoen sarearena baina hobea zen.

4. TAULA: 1982-83 Ikasturtea: Ikaslegoa, irakaskuntza elebiduneko ereduak begira, sare eta lurraldeen arabera. Unibertsitate-aurreko mailak

IRAKASKUNTZA ELEBIDUNEKO EREDUA	GUZTIRA	%	LURRALDEA (%)			IRAKASKUNTZA-SAREA (%)		
			Araba	Bizk.	Gip.	PUBLIKOA	IKASTOLA	PRIBATUA
Guztira*	420.729	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
A ereduak	238.866	56,8	71,4	65,4	36,3	59,7	1,0	75,3
B ereduak	75.409	17,9	20,2	14,2	23,1	20,8	15,8	15,6
D ereduak	102.287	24,3	8,1	19,2	39,7	19,5	83,5	6,7
X ereduak	4.464	1,1	1,3	1,2	0,9	0,1	-	2,6

Hamar urte pasa ondoren, 1992-93 ikasturtean, irakaskuntzaren euskalduntze-prozesuaren egoera arras aldatu da unibertsitate-aurreko mailatan. Lehen-lehenik, eta esan izan den bezala, 1986-87 ikasturterako ikaslego guzti-guztia legeak ezarritako hiru ereduakoren batean ari zen bere ikasketak egiten. B eta D ereduak ia bikoiztu egiten dituzte abiapuntuko eskolatzeko-mailak, % 17,9ko eta % 24,3ko portzentaiekin, hurrenez hurren. A ereduak, berriz, gure herrialdeko matrikula osoaren % 56,8 bat eskolatzen du.

Lurraldeka hiru maila ezartzen dira, B eta D ereduak horietako bakoitzean duten garrantziaren arabera. Araban adibidez, bi eredu horien artean eskolatzen da ikasle guztien % 28,3, 1982-83 ikasturtean erregistraturiko % 10aren aurrean. Eta bloke honetan irakaskuntza-eredu elebiduna nagusitzen da auzi eta garbi, % 20,2, euskara hutsean eskolatutako ikasleak % 8,1 besterik ez diren bitartean.

Bizkaiak tarteko lekua hartzen du euskalduntzearen ranking edo sailkapen honetan: B eta D ereduak blokeak ikasle guztien % 33,4 hartzen du, euskara hutseko irakaskuntza zertxobait

nagusitzen zaiolarik irakaskuntza elebidunari, % 19,2 eta % 14,2, hurrenez hurren. Bi eredu hauek ikasle bizkaitarren % 14,3 besterik ez zuten eskolatzen duela 10 urte.

Gipuzkoako lurraldeak lortzen ditu unibertsitate-aurreko ikasleen euskalduntze-tasarik altuenak, eta horrela Gipuzkoako ikasleen % 62,8k beren ikasketak B eta D ereduetan egiten dituzte, bigarren eredia izanik maioritarioa edo nagusia lurralde honetan, % 39,7arekin, irakaskuntza elebidunak % 23,1 besterik lortzen ez duen bitartean.

Aurrekoarekin bat etorritik, euskara asignatura bezala ikasten dutenak Araban dira nagusi, % 71,4, Bizkaian ikasleen % 65,4 dira eta gipuzkoarren artean, berriz, % 36,3 bakarrik.

Zentro edo ikastetxeen sare desberdinek ere aldatu egin dute beren euskarazko eskaintza eta oso modu esanguratsuan aldatu ere zenbait kasutan.

Lehenengoz, ikastolen sareak hamar urteotan gehitu egin du bere merkatu-kuota unibertsitate-aurreko irakaskuntzan, eta 1982-83 ikasturtean ikasle guztien % 12 eskolatzetik gaur egungo % 15,5era pasatu da, Araba eta Bizkaian bere pisu erlatiboa handiagotzen zuen bitartean. Sare horrek D ereduko bere eskaintza asko gehitu du, gaur egun % 83,5 izanik 1982-83 ikasturtean % 70,6 zen bitartean, eta garai bateko A ereduko lerroak ia erabat desagertu dira.

Ikastetxe publikoen sareak unibertsitate-aurreko irakaskuntzan zuen partaidetza gutxitu egin da, eta 1992-93 ikasturtean sare honek ikasle osoaren % 44,7 eskolatzen du, 1982-83an portzentaia hori % 50,9 zelarik. Hauxe da, bestalde, azken urteotan bere euskarazko eskaintza gehien aldatu duen hezkuntza-sarea, eta orain 10 urte B eta D ereduetan, batera hartuta, bere ikaslegoa % 11,6 izatetik gaur egun % 40,4ean dago, B ereduan % 20,8 eta D ereduan, alegia euskara hutsezko irakaskuntzan, % 19,5 ikasle.

Zentro pribatuek, ikastolek bezalaxe, gehitu egin dute beren ikaslego-kuota Bizkaian eta Araban, nahiz eta Gipuzkoan ikasleak zertxobait galdu. Osagai guzti horien baturak 1982-83ko % 37,2 hura % 39,8an jarri du 1992-93 ikasturtean. Euskarazko irakaskuntzaren eskaintza ere gehitu egin da ikastetxe hauean, baina zentro publikoetan baino neurri apalagoan, eta

horrela B eta D lerroen eskaintza bateratua %11,5ekoa baldin bazen 1982-83 ikasturtean, %22,3an dago gaur egun, irakaskuntza elebiduna nagusituz euskara hutsean egindako irakaskuntzari (%15,6 eta %6,7, hurrenez hurren).

Gaur egun irakaskuntzan dagoen euskarazko eskaintzaren azterketa egiterakoan, ez litzateke ahaztu behar irakaskuntza elebiduneko ereduak hezkuntza-maila desberdinetan duten ezarpen-gradua ere aztertzea. Arau orokor bezala, eta hiru lurraldeetan, euskarazko irakaskuntzaren ezarpenak behe-rantz egiten du eskolaurreko eta lehen mailako irakaskuntzatik bigarren mailako irakaskuntzara pasatzen garen neurrian.

5. Taula: Eredu elebiduna (B), 1992-93. Ikaslekoa, lurraldearen eta hezkuntza-mailaren arabera (%)

B eredua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Guztira	20,2	14,2	23,1	17,9
Eskolaurrea	49,9	28,4	39,9	35,2
OHO	27,0	20,3	35,9	26,1
Irakask.Ertaina*	1,1	1,2	2,8	1,8

(*) A eredu indartua. Ondorio estatistikoetarako, B eredura asimilatu daiteke, legez ez baita B eredurik existitzen irakaskuntza ertainean.

5. taulan ikus daitekeen bezala, eskolatzean aurrera egin ahala, irakaskuntza elebiduneko ikasleen portzentaiek behera egiten dute hiru lurraldeetan, erritmo desberdinetan baldin bada ere. Araba da desorekarik handieneko lurraldea, %49,9 Eskolaurrean eta %27 OHOn. Bizkaian ere alde handia dago ezarpen-mailan, %28,4 Eskolaurrean eta %20,3 OHOn. Gipuzkoan, azkenik, beherakada arina da, Eskolaurreko %39,9tik OHOkoko %35,9raino besterik ez. Datu horiekin batera, lurralde arabarra izango da datozen urteetan, eta gaur egungo B ereduaren eskariaren arabera, eskema hori gehien aldatuko duena, eta aurrikusi daiteke OHOn %50etik gertu ibiliko direla beren ikasketak eredu elebidunean egiten ari diren ikasleak.

Era berean, etorkizun hurbilean, B ereduak Gipuzkoan eta Bizkaian OHOri dagokionez gorantz egingo dute, %29 eta %40ko muga inguruan kokatzeraino, hurrenez hurren.

6. Taula: D e-raaldearen eta hezkuntza-mailaren arabera (%)

D eredua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EKA
Guztira	8,1	19,2	39,7	24,3
Eskolaurrea	9,8	35,1	54,3	37,8
OHO	8,3	20,4	43,5	25,9
Irakask. Ertaina	7,2	12,3	30,7	17,8

6. taulak erakusten dizkigu euskara hutsezko irakaskuntzak lurralde eta maila desberdinetan 1992-93 ikasturtean lortzen dituen portzentaiak. Araba da lurralderik orekatuena D ereduaren ezarpenari dagokionez eta eredu honen muga datozen urteotan, eskaintzaren eta eskariaren alorrean funtsezko aldaketarik ez badago behintzat, gaur egun Eskolaurrean erregistratzen den % 9an geratuko da finkatua. Bizkaiak erakusten du koadririk desorekatuena euskara hutsezko irakaskuntzari dagokionean eta epe ertainera, irakaskuntza-mota honek modu esanguratsuan egingo du gora, bai OHOn eta baita irakaskuntza ertainean ere, aldez aurretik mugatzat ezarri daitekeen % 35eko tope horretaraino. Gipuzkoan, berriz, ezarpena Bizkaiaren baino orekatuagoa da, baina gehikuntza esanguratsuagoak gertatuko dira irakaskuntza ertainean eta zertxobait gutxiago OHOn, gaur egun D ereduak eskolaurrean duen portzentaiaren arabera gutxi gorabera, eta portzentaia hori egungo ikaslegoaren % 54eraino ailegatzeko da.

DEMOGRAFIA ETA LAN-MERKATUA HEGO EUSKAL HERRIAN

IÑIGO GARAIALDE

Ekonomia eta demografiaren joerak elkar loturik agertzen zaizkigu gizartearen historian zehar. Ekonomiaren hazkunde sostengatuak populazioarena eragin izan du eragozpen berezirik sortu ez denean behinik behin. Egungo gizarte industrializatuetan, populazioaren gehiengoa soldata medioz bizi delarik, eragin hau lan-merkatuaren bitartez gauzatzen da.

O rokorki mintzatuz, merkatu bateratu baten barnean, ekonomiaren eta populazioaren epe luzeko joerak elkarrekin mugitzen dira. Honen arrazoi nagusia lan-merkatuaren egoerak sortzen dituen populazio-mugimenduetan aurkitzen da,

lan-eskari ugaria duten ekonomia dinamikoetara etorkinak erakariz ekonomia ahula edo atzerakorra duten herrialdeetatik.

Egia esan, migrazioez gain, populazioa eta lan-merkatua lotzen duten beste zenbait aldagai ere aurki daiteke. Ugalkortasuna eta hilkortasunaren gorabeherak badute zer ikusia ekonomiaren eboluzioarekin baina gizarte garatuetan erlazio hauek ez dira garrantzitsuegiak, ez baitira ez zuzenak ez eta epe laburrean lan-merkatua alda dezaketenak. Aldagai demografiko hauek baino askozaz ere eragin zuzenagoa eta azkarragoa izaten du merkatuan bere lan-indarra eskaintzeko prest dagoen populazioaren proportzioaren eboluzioak, jarduera-tasaren gorabeherak alegia. Bizimolde eta kultur aldaketak ere eragin handia izan dezake lan-merkatu era populazioaren arteko erlazioa aztertzerakoan, familiaren egitura eta baloreak aldatuz batipat.

Hego Euskal Herriko populazioa eta lan-merkatuaren harremanak aztertzeko orduan orain hamabost urte azaleratutako krisialdiak etendura argia ezartzen du. Ekonomiaren hazkundeak bultzaturik, populazioa eta lan-merkatua migrazio masiboaren poderioz zabaltzen da 1975. urterarte. Nabaria denez, Ipar Euskal Herrian joera guztiz bestelakoa da, bertako populazio-galerak, Frantziako beste herrialdeen lan-merkatuaren beharrak asetzera bideratzen direlarik.

Egun ezagutzen dugun krisialdi sakonaren eraginez populazioaren hazkundera guztiz baretu da (1950-75 epeko urtean %2,3tik igotzetik zero ingurura jaitsiz) baina horrek ez du eragotzi lan-merkatuan eskaintza gainezka agertzea. Azken hamar urteetan langabetuen kopurua 180.000 eta 230.000 pertsona artean mugitu da, populazio aktiboaren %17 eta %23 artean, alegia.¹

Azken urteetako populazioaren joera ikusirik, euskal gizartearen etorkizunerako populazio-beherakada eta zaharkitze-prozesuek eragindako arriskuez ardua berriak sortu dira azken bolada honetan. Artikuluska honen azken atalean etorkizunari buruzko zenbait gogoeta aurkezten dira, bereziki populazioaren aurrikuspenak lan-merkatuan izan ditzazkeen ondorioak aztertuz.

HAZKUNDE ETA MIGRAZIO-GARAIA (1950-75)

Errepublikaren denborako krisialdia, gerra zibila eta gerraosteko blokeoak eta autarkiak ipinitako muga estuak gainturik, Hego Euskal Herriko ekonomiak, Espainiako merkatuaren eraginez, hazkunde azkarra ezagutu zuen 1950 eta 1975 artean. Prozesu honen ondorio nagusietako bat enplegua %50 inguru handitzea izan zen, 300.000 lanpostu neto sortuz hogeita bost urte hauetan.

Epe honetan Euskal Herriko demografiak gorantz egin zuen Europa osoaren modura, 1950-1970 bitartean «baby-boom» deritzan ugalkortasun-gorakada ezagutzen. Ugalkortasun-indize sintetikoak (hau da, urte horretako portaera mantenduz gero emakume hipotetiko batek bere bizitzan zehar izango lukeen ume-kopurua) 1950eko 2,3tik 1965eko 3,2raino igo zen, berriro ere 1975erako 2,5 ingurura jaisteko.²

Dena dela prozesu demografikoen erritmoa ekonomiarena baino askoz ere astiroagoa izanik, berezko populazio-igoera honek ezin zezakeen lan-merkatuaren eskaria inolaz asetu eta lan-eskari oparoak migrazioa suspertu zuen berriro. Hego Euskal Herriak etorkin ugari erakarri zuen, mendearen lehen parteko migrazio-jarioa aise gaintuz. Erresuma barneko lan-merkatuaren batasunak prozesu hau nahitaetzkoa bihurtzen zuen (kontrako ikuspuntutik begiraturik, Euskal Herriaren barne-mugak ezinezkoa egin zuen Iparraldearen populazio-galera Hegoalderantz bideratzea).

Halere, epe honetan euskal lan-merkatuak erakutsitako malgutasunfalta nahiko azpimarragarria da. Adibide moduan, emakumeen jarduera-tasak bere maila apalari eutsi zion 1970eko hamarkada aurrera joan artean. Mugikortasun honen atzean zenbait arrazoi politiko aurkitu daitezke, gehienak Espainiako lan-eskaintza soberakinekin lotuak (nekazaritzak kanporatutakoak enplegatu beharra, lan partzialari ipinitako eragozpenak, etab.), baina epe horretako Euskal Herriko kultura kontserbatzaileak ere badu zerikusi handia fenomeno honetan (balio katoliko eta tradizionalen indarrez emakumeei ezartzen zaien familiarekiko erantzukizuna, batipat).

Migrazio masibo honek ere badu beste ikuspuntu interesgarria, Euskal Herriko ekonomiaren ahulezia eta etorkizuneko arriskua nondik zetorren argi adierazten baitu. Espainiako merkatu babestuan produktibitate eskaseko industriak eta honekin lotutako soldata motzak posible ziren, nahiz eta bide horrek nazioarteko merkatutik kanpo uzten zuen gure produktzio-sistema. Migrazioak are indartzen zuen joera hau, nekazaritzatik jaurti berria zen lan-indar hezi gabea baina merkea eskainiz eta, modu horretan, enpresarien joera tradizionalak indartuz eta inbertsio edota jokabide berritzaileak eragin gabe.

Epealdi honetan sortutako aldaketa demografikoak (migrazioa eta ugalkortasunaren igoera) kontuan hartzea guztiz da beharrezkoa Hego Euskal Herriko populazioaren joerak ondo ulertzeko. Biztanle-kopurua eta adin-piramidea zeharo aldatu aurkitzen dira bi fenomeno hauen poderioz. Alde batetik, 1950-75 arteko migrazioak 590.000 pertsonetan gehitu zuen Hego Euskal Herriko populazioa, hau da 1975eko berezko populazioaren %30. Bestetik, 65 urtetik gorako biztanleriaren portzentaia %8,7ra jaitsiarazi zuen, berez %10,3 izango zela-rik migrazio-ezean.³

DEMOGRAFIA ETA LAN-MERKATUA KRISIALDIAN ZEHAR

Hogei urte dela azaldutako nazioarteko krisiak eragin berezia izan du Euskal Herriko egitura ahulean. Alde batetik, Espainiaren ahulezia ekonomikoak barn e-merkatu hau guztiz hondatu zuen, azken hamabost urteetan zehar Mendebal Europako langabezi tasa garaiena mantenduz. Bestetik, egoera larri honetatik irtetzeko behar zuen nazioarteratzeko ez zuen ahalmenik erakutsi Espainiako merkatu babestuan hazitako Euskal Herriko industriak. Azkenik, nazioarteko lehia Espainiako merkatu babestura ere iritsi zen, batez ere 1986an Espainia Europako Ekonomikoan sartzearekin.

Epealdi honen barne zenbait gorabehera zehaztu daitezke, 1986-90eko hazkunde azkarreko urteak besteak beste, baina joera orokorra aztertuz argi dago Hego Euskal Herriko industriak 100.000 enplegutik gora galdu dituela (1975eko laur-

dena hain zuzen). Beherakada hau laborantza eta eraikuntza-arloan ere berdintsu nabaritzen da, nahiz eta arrazoiak zertxobait ezberdinak diren kasu hauetan.⁴

Zerbitzuek, publikoek batez ere, enplegu berri ugari sortu dute epealdi honetan baina halere 1992an 50.000 enplegatu gutxiago zegoen Hego Euskal Herrian 1975eko egoerarekin konparatuz.

Enplegu-murrizketa honek sortutako egoera hobeto ulertzeko, garai honetan lan-eskaintza aldetik agertzen diren aldatketak ere aztertu behar dira. Aurreko hamarkadetakoa ugalkortasunak eragindako belaunaldi zabalak lan-merkatura iristen hasten dira urte hauetan. Horrela, lan egiteko adinean dagoen populazioa (16tik 64 urtetakoa, alegia) 230.000 pertsonaz handitzen da, 1975eko kopuruaren %14,5 hain zuzen.

Beste aldetik, emakumea lan-merkatura lehen baino maila handiagoan sartzen hasten da 1970 hamarkadatik aurrera. Nahiz eta enplegu-egoera guztiz aurkakoa izan, 1976 eta 1992 artean emakumeen jarduerataxa %27 ingurutik %36ra igo da. Joera hau guztiz nabarmena bihurtu da azken urteetan, hazkunde azkarreko 1986-90 epealdian batez ere. Horrela 1985 eta 1992 artean emakumeen jarduerataxa ia 6 puntuz igo da (Euskadiko Autonomi Elkartearen, 25 eta 44 urte arteko emakumeena %46tik %69ra pasa da epe honetan).

Populazioaren hazkundeak eta emakumeen jardueraportakerak lan-eskaintza 100.000 pertsonaz handitu du eta aldi berean lan-eskaria urrituz zihoanez, ondorio zuzena langabeziaren gorakada izan da. Honela, 1976ko 40.000 langabetuak (biztanleria aktiboaren %4) 233.000ra zabaltzen dira 1986an (aktiboaren %23). Hazkunde azkarreko urteen eraginez, 1991n kopuru hau 183.000 pertsonara erori da (aktiboaren %17) baina ordutik hazten hasia da geldiune berria iritsi bezain pronto.

Egoera berri honek eragin zuzena du demografi arloan ere. Alde batetik Hego Euskal Herriak, aspaldiko partez, migrazio-saldo negatiboa ezagutzen du 1977tik aurrerantz. Migrazio garbi honek urtean 5.000 eta 10.000 pertsona arteko populazio-galera suposatzen du Hego Euskal Herrian.

Lan-merkatuaren krisiaren bigarren ondorioa ugalkortasunaren beherakada izugarrian gauzatzen da. Egun Hego Eus-

kal Herriak Europa osoko ugalkortasun-maila txikiena du, 1990ean indize sintetikoa 0,98ra iritsiz (populazioa mantentzeko maila 2,1 inguruan dagoelarik). Beherapen honen arrazoiak ez dira ekonomikoak soilik, kultura eta bizimolde aldakuntzak ere bere eragina baitute. Halare, joera honen faktore demografiko zuzenak (ezkontza gutxiago eta pertsona zaharragoen artean, ume gutxiago eta bakanduagoak) badute zerikusi handia gazteek pairatzen duten langabezia mailarekin eta lan-merkatuaren aurrikuspen ilunekin.

Krisialdiko lan-merkatuaren azterketa labur honen inguruan bizpahiru puntu interesgarri jaso daitezke. Lehen, aurreko aroko hazkunde azkarraren motorra izan zen industriak zeharo galdu duela enplegua sortzeko indarra, enplegu banaketa neurrien bidez ez bada behinik behin. Helburu baikorrenak ere egungo enplegu industrialak mantentzea besterik ez dute proposatzen. Hau ez da harritzekoa industri produktibitateak urtero %3-4ko hobekuntza ezagutzen duenean.

Bigarren puntu gisa, lan-merkatuan agertu den malgutasun eskasa eskaintza aldetik izan dela adieraz daiteke. Horrela, lan indar periferikoa merkatutik at egoteak zertxobait lasaitu du langabeziaren gorakada: gazteen hezkuntza epea luzatu egin da krisialdian, merkatuaren egoera txarrak emakume ugari (ezkonduaz batez ere) uxatu du merkatutik eta langabetu zahar asko aurrejubilatuta dira (55 eta 64 urte arteko gizonen artean jarduera-tasa %79tik %48ra erori da 1975-92 epean).

Azkenik, portaera hauek etorkizunean arazo berriak sortu ohi dituzte. Adibide modura gazteen hezkuntza luzapena aipa daiteke. Ikasten ari diren bitartean, lan-merkatutik kanpo daudenez, langabetu kopurua jeitsi egiten dute. Baina epe luzeagoan, lan-merkatuan sartzean, euren ikasketa mailak sortutako itzaropenak betetzeko arazo berriak azalduko dira. Euskal Elkarte Autonomoan 57.000 gazte zeuden 1989an unibertsitate-mailako ikasketak burutzen nahiz eta 27.000 unibertsitate-mailako langabetu egon merkatuan.⁵ Kontuan izanik une horretan 91.000 unibertsitari lanean zihardutela, urte gutxi barru maila honetako lan-eskaintza ia bikoiztuko dela aurrratu daiteke. Ez da erraza lan-eskaria maila berean haziko denik suposatzea, are gehiago bigarren mailako (zein LH edota

BBB eta UBI motakoak) ikasleekin ere arazo berdina agertzen denez gero.

DEMOGRAFIA ETA LAN-MERKATUA ETORKIZUNEAN

Etorkizuna aztertzerakoan joeren aldakortasunak ziurtasun-falta handia sortzen du, ondorio finkoetara iristea oso zaila bihurtuz. Hau horrela da bai demografiaren aldagaiez mintzatzean zein ekonomiaren eboluzioa aurrikusterakoan. Dena dela, zenbait hipotesi egin daitezke euskal demografiaren etorkizunari buruz, nahiz eta hainbat eta gehiago luzatu azterketaren epea hainbat eta ziurtasun eskasagoa eskaintzen duten lortutako ondorioek.

Demografiaren inertzia kontuan izanik, epe motz eta ertainean jokatuiko duten aldagaiak nahikoa mugatuak dira. Lan-merkatuaren ikuspuntutik, datozen 15-20 urtetako etorkizuna aurreko jokaerak moldatua du dagoeneko. Horrela, ugalkortasun handiko belaunaldiak bete-betean sartuko dira lan-merkatuan 2000 urterarte eta datozen 10-15 urteetako ugalkortasunak belaunaldi zabal hauen eragina ere ezagutuko du. Era berean, 1980 inguruko ugalkortasun eskaseko belaunaldi txikiak 2000 urtetik aurrera lan-merkatura iristen hasiko dira, eta ure batzu beranduaago jaitzua kopuruan behar akada berri bat eraginaraziko dute.

Piramidearen beste puntan, 65 urtetik gorakoen kopurua azkar igoko da 2000 urterarte (%33ko gorakada ezagutuz eta 86.000 pertsonaz handituz) baina igoera hau hurrengo hamabost urteetan moteldu egingo da (53.000 lagun berri edo % 15ko gorakada) gerra inguruko belaunaldi txikiak 65 urte betetzean.

Epe motzean, lan-merkatuari begiraturik aldagai mugikorrena migrazioa izan daiteke. Esate baterako, migrazio saldoa gaurko tamainan jarritzeak hogeitau urte barru 100.000 biztanle eta lan egiteko adineko 60.000 pertsona gutxiago suposatuko luke migrazio gabeko egoerakin konparaturik.

Epe luzeagoan (20-50 urte barru) demografiak ziurtasun eskasa eskaintzen digu. Analisi enpirikoek diotenez, epe luzeko demografi aurrikuspenak batazbeste urteko %0,5 errakuntza

erakutsi dute iraganean.⁶ Horrela, berrogei urte barruko aurrikuspenak erabiltzean %22 errakuntz margena espero genezake (Hego Euskal Herriko populazioaz mintzatuz ia 600.000 biztanle gorabehera, alegia). Epe luzeko aurrikuspenak ia balio-gabetuak geratzen dira maila honetako errakuntzen poderioz.

Hego Euskal Herrirako 1978an Bilboko Merkataritza Ganbarak argitaratu zuen aurrikuspena adibide ona litzeke aurrean esana egiaztatzeko.⁷ Lan honetan agertzen ziren aurrikuspenen arabera, 1990, urtean Hego Euskal Herriaren biztanleria 3,0 eta 3,3 milioen artean legoke, benetako zifra 2,6 milioetan gelditu zaigunean, hau da %15eko errakuntza hamabost urteko epe-rako. Krisiaren eragin zorrotzak biztanleriaren urteko hazkunde tasa %0,2an utzi du 1975-1990 epealdian, aurrikuspenak kalkulaturako %1,1-1,7aren ordez.

Dena den, gizarte garatuentzat egiten ari diren epe luzerako hipotesiak ugalkortasun eskasa eta zaharkitze-prozesuan oinarritzen dira gaur egun. Halere, jakitun gehienak ugalkortasuna erreprodukzio tasarantz hurbilduko dela uste dute, Europako iparraldean dagoeneko gertatzen ari den bezala. Euskal Herrian horrelako zerbait gertatuko balitz, adin piramidea berriro ere guttiz deformatuko litzateke eta belaunaldi berrien kopuruak nabarmenki igoko lirатеke. Gure kasuan posiblea da ugalkortasunaren zuzpertzera hau beste zenbait herrialdetan baino apalagoa eta mantsoagoa izatea, lan-merkatuaren egoera eta etorkizun iluna ikusiz.

Etorkizunaz mintzatzeko, komenigarria da perspektiban jartzea iragan joerak. Modu horretan ikus daiteke «baby boom»eko ugalkortasun altua eta etorkin ugariak Euskal Herriko eredu tradizionaletik urruti daudela, jarraiean jasangarri dako krisialdia dagoen moduan. Agian, azken urtetako joera tradiziozko eredu itzultzeko bide basatia bihurtuko da. Eredu honen ezaugarri nagusiak zelibato handiagoa (emakumeen %12-15 ezkondu gabe geldituz), ezkontza atzerapena (emakumeen batazbesteko ezkontza adina 27-28 urtetan mantenduz) eta ugalkortasun egutegi zabalagoa (batez ere lehen eta bigarren haurren arteko tartea luzatuz) lirатеke.⁸ Krisialdian meragina ukatu gabe, egungo ugalkortasunaren beharpenaren

zati bat 1960-70eko eredu «moderno»tik eredu «tradizional» honetara igarotzeak argituko luke.

Bestalde, zaharkitze-joerak izango dituen ondorioak tes-tuinguru egokian aztertu behar dira.⁹ Alde batetik, zaharkit-tze-prozesua azkarra izango da datozen urteetan, baina kon-tuan izan behar da demografiak berak muga naturala ezar-tzen diola epe luzean (Europar dagoen ugalkortasun urria mantenduz ere, 65 urtetik gorako portzentaia populazioaren %25 inguruan finkatuko baita belaunaldi pare baten ostean). Gaurko erreprodukzio azpiko ugalkortasuna mantentzeak populazioa murriztaraziko du, baina oraindik 60 urte beharko dira Mendebaldeko Europa 1940ko populazioara erortzeko.

Lan-merkatuaren ikuspuntutik, lan indar eskaintza man-tendu eta handitzeko bide ugari dago, batez ere demografiaren mekanikak inposatzen duen erritmo geldoan. Euskal Herriko kasuan, 16-64 urteko berezko biztanleriak finkotasun handia agertzen du hurrengo hogeitertan eta posibilitate ugari dago lan eskaintza neurri batean zabaldu edota estutzeko: Lan egi-teko adina egokituz (gogora dezagun hamabost urte ere ez direla muga hauek 14 eta 69 urte zirela), zenbait pertsona multzoren jarduera-tasak aldatuz (emakumeenak batipat), edota lan orduetan malgutasun handiagoa onartuz (denbora partziala, oporraldi luzeagoak, etab.).

Halere, lan eskaintza orokorra mantentzeak ez ditu arazo guztiak konpontzen, eskaintza honen egitura aldatzen joango baita zeharkitze-prozesuarekin batera. Horrela, langile gazte gu-txiago izango da etorkizunean eta honek malgutasun falta eta adaptazio ahalmen eskasagoa suposa dezake. Dena den, badaude arazo hauei aurre egiteko moduko neurriak, batez ere denbora luzez aurrakusi daitezkenek. Esate baterako, lana eta hezkuntza nahasteko posibilitate berriak irekiz eta lan-bide garapen ziklikoagoak onartuz, malgutasun berria bul-tzatzeiko aukerak daude etorkizunean. Neurri hauek aldaketa sakonak suposatzen dituzte gaurko gizarte moldeetan (nahiz hezkuntza sisteman, nahiz lan harreman eta enpresa mun-duan ere) baina arazo nagusia inertzia jarraitzean eta aspaldiko garaietara egokituriko sistemak mantentzean datza, ez egoera berriaren berezko zailtasunean.

Zenbait arlo berezitan, ugalkortasunaren eta migrazioen gorabeherak sortutako adin piramide desorekatuak arazo puntualak sortu ditzazke. Adibide gisa, hezkuntza sistemaren eskaintzan (batez ere aurrekologia bezalako epe laburreko maila espezializatuetan), soldaduskan (adin finko baten nahitaezko errekutamentuan oinarrituetan behintzat) edo zaharrentzako egoitza eta zerbitzuetan nabaritutako diraren gehien desoreka horiek. Kasu hauetan neurri bereziak hartu beharko dira egoera berriari aurre egiteko, zerbitzu hauek bitarteko gehiagoren hornituz edota malgutasun handiagoz kudeatuz.

Amaitzeko, Hego Euskal Herriko demografiaren lan-merkatuari erreskadan inposatutako dizkion hiru fase ezberdinen adierazgarri nagusien laburpena aurkezten da:

- *1990-2000.* Lan-eskaintza asetzeko haina enplegu sortzea izango da epe honetako arazo nagusia. Lan-merkatuaren egoera gehien baldintzatzen duten aldagaiak ondoko hauek dira:

- Egungo 200.000 langabetuak
- Gazte, emakume eta zaharren jardura-tasa oso txikiak
- 1970 hamarkadako belaunaldi handien merkaturatzea

Gure produkzio-sistema ahula kontuan izanik, lanaren banaketa-eskema onargarria lortzea litzateke epe honetako premia nagusia.

- *2000-2020.* Epe hau transizio modukoa gerta daiteke. Gaurko joerak mantenduz gero, lan eskaintzaren basea apurka estutzen hasiko da, baina bizimolde eta kultura aldaketek jardura-tasa handituz eskaintza berria sor dezakete, arazo gehiegi sortu gabe. Horrela hipotesi kontserbatzaile samarrak erabiliz, Hego Euskal Herrian 2020 urtean 1986ean baino 200.000 langile gehiago izatea nahikoa posiblea da, okupatuaren kopurua %20ean goratuz.

- *2020-2040.* 1970 inguruko belaunaldi zabalak merkaturatik irtetzen hasiko dira eta 1980tik aurrera sortutako belaunaldi txikiak beteko dute lan-merkatua. Beste aldaketarik ez balego, Euskal Herriko biztanleriak nabarmenki beherantz joko luke eta lan eskaintza ere murrizten joango litzateke.

1. Lan-merkatua aztertze erabiltzen diren iturri nagusiak (INERen «Encuesta de Población Activa» eta EUSTATEN «Biztanleriaren Inkesta Ihardueraren Arabera», batipat) ez datoz guztiz bat eskaintzen dituzten datuetan. Dena dela, artikulua honetan aurkezten diren joera nagusiak aztertze bi iturri hauen kontraesanak ez dira garrantzitsuak. Bestelakorik aditzera ematen ez denean, INERen datuak erabili dira Nafarroa ere kontutan hartu ahal izateko.
2. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sailak argitaratu duen «Escenarios Demográficos. Horizonte 2016» (Documentos de Economía 7., Gasteiz, 1990) liburuan, Euskadiko Elkarte Autonomoko azken urteetako demografiaren analisi laburra eta 2016 urterainoko aurrikuspenak aurkezten dira.
3. Ikus Bilboko Merkatal Ganbarak argitaratutako «Dinámica de la Población y del Empleo en el País Vasco» (Bilbo, 1978).
4. Krisialdiak Euskadiko Elkarte Autonomoko lan-merkatuan izan duen eraginaren azterketa laburra aurki daiteke P. Azpiazuren «Evolución Comparada del Mercado de Trabajo en la CAPV y en el Estado en el periodo 1977-1985» artikuluan (Ekonomiaz 1., 1985). Azken urteetako eboluzioaren laburpenerako ikus Jose M. Agirrerren «Evolución económica vasca y cambios estructurales en la década de los ochenta» (Herri Ekonomiaz 13., 1991).
5. Euskadiko Elkarte Autonomoko lan-merkatuaren deskribapen zehatzena Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak argitaratutako «Censo del Mercado de Trabajo de Euskadi 1988-89» (Gasteiz, 1991) liburu-sailean aurki daiteke. Laburpen gisa, ikus «Un análisis de la actividad, la ocupación y el paro en la Comunidad Autónoma de Euskadi» artikulua (Papeles de Economía-ren Economía de las Comunidades Autónomas sailean argitaratutako «País Vasco 1990» alean).
6. Ikus N. Keyfitz, «The Limits of Population Forecasting» (Population and Development Review 7.4, 1981).
7. Ikus Bilboko Merkatal Ganbara, «Dinámica de la Población y del Empleo en el País Vasco» (Bilbo, 1978).
8. Euskal Herriko tantsizio demografikoa eta familia-eredu tradizionalari buruzko aurkezpoeen laburra A. Garcia-Sanz-en «La Evolución Demográfica Vasca en el Siglo XIX (1787-1930)» ponentzian ikus daiteke (II. Euskal Mundu Biltzarra IV.alea, Txertoa, 1988).
9. Herrialde garatuen zaharkitze-prozesuari buruzko ikuspegi heterodoxo interesgarria aurkezten du L.H. Day-k «The Future of Low Birthrate Populations» liburuan (Routledge, 1992).

EUSKAL HERRIKO BIZTANLEEN HIZKUNTZ GAITASUNA

XABIER AIZPURUA

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak 1989an *Soziolinguistikazko Mapa. 1986. urteko erroldaren araberako Euskal Autonomi Elkarteko azterketa demolinguistikoa* izeneko liburua argitaratu zuen. Liburuan gizarte honetako hizkuntz egoeraren azterketa sakona egin zen horretarako lehen hizkuntza, hizkuntz gaitasuna eta bi aldagai horien arabera landutako adierazle (erakar-indarra, gara-indarra, eutsindarra eta gal-indarra) nahiz tipologiak oinarritzat hartuz.

Ikerketa-lan horren «Soziolinguistikazko Plangintza Mapa lantzeko urraspideak» izeneko atalean esandakoa bete asmoz eta erroldak eskainitako informazioaren osagarri gisa Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak, lehen aldiz, Euskal

Herri osoa barne hartzen zuen 16 urtetik gorako biztanleriari buruzko soziolinguistikazko inkesta egin zuen 1991n. Inkestak euskara eta erdaren (gaztelania edota frantsesaren) eza-gutzaz gain, euskararen erabilera eta egungo hizkuntz egoerari buruzko biztanleriaren jarrerak aztertzea du helburu azterketarako ikuspegi desberdinak jarraituz, hala nola: soziodemografikoa, geografikoa, hizkuntz gaitasuna, jatorria eta kultur nortasuna.

METODOLOGIA

Galdesorta prestatzeko zenbait soziolinguista adituri bere lan-kidetza eskatu zitzaion, entzutetsuenak New Yorkeko Ferkauf Graduate School of Psychologyko J. Fishman jauna, Strasburgoko Louis Pasteur Unibertsitateko A. Tabouret Keller anderea eta Montrealeko Université du Québeceko R. Bourhis jauna direlarik. Galdesortaren azken proposamena Euskararen Aholku Batzordeko Demolinguistika azpibatzerdeak egin zuen.

Guztira 5.017 elkarrizketa edo inkesta egin ziren Euskal Herrian: 2.800 Euskal Autonomi Elkartean, 917 Iparraldean eta 1.300 Nafarroan.¹

Nafarroako ikerketa egiteko laguntza handia esakini du Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak. Bestalde, Iparraldeko ikerketa Akitania eta Euskadiko gobernuek sinatutako hitzarmenari esker egin da, lanaren ardura eta zuzendaritza Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiarena eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundearena izan delarik.

Landa lanean ikerketa-talde edo enpresa desberdinak aritu izan dira (Iparraldean SIADECO, Nafarroan NEURRIAK eta Euskal Autonomi Elkartean NEURRIAK eta COS) ustiaketa-lanak ICEBERGek egin dituelarik.

Emaitzak aztertu eta balioestean, bestalde, Euskal Herriko unibertsitate publiko nahiz pribatuko hainbat irakaslek eta euskalgintzan diharduten beste pertsona askok (guztira 40tik gora) parte hartu dute, emaitzei buruz nork bere txostena idatziz edota txosten guzti horiek aztertu eta eztabaidatzeko, 1992ko azaroan, Gasteizen, R. Bourhis doktoreak zuzendutako mintegian parte hartuz.

DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK:

Inkestaren arabera guztira 2.257.000² pertsona bizi da Euskal Herrian: %74 Euskal Autonomi Elkartearen, %18 Nafarroan eta %9 Iparraldean.

Nafarroa eta Iparraldeko biztanleria Euskal Autonomi Elkartekoa baino zertxobait zaharragoa da (16tik 24 urte bitarteko adin-taldean Iparraldean %9, Nafarroan %16 eta Euskal Autonomi Elkartearen %21 dagoen bitartean 64 urtetik gorako taldean %22 dago Iparraldean, %20 Nafarroan eta %12 Euskal Autonomi Elkartearen).

Jatorriz gurasoak bertakoak dituen bertakoa da Euskal Herriko biztanleriaren erdia baino gehiago (%53). Etorkinak ia herena (%29) dira eta etorkinen seme-alaba izanik ere bertakoak dira gainerakoak (%18).

Bertakoak izanik gurasoak ere bertakoak dituztenen portziorik handiena Nafarroan dago (%70) etorkinen (%16) eta etorkinen seme-alaba (%15) diren bertakoen portzentaiaik parren daudelarik. Iparraldean gurasoak bertakoak dituztenak nagusi diren arren (%62) etorkinak ia herena dira (%31). Euskal Autonomi Elkartearen gurasoak bertakoak dituztenen portzentaia beste bi lurraldeetan baino dexente txikiagoa da hirutik bat etorkina baita (%32) eta etorkinen seme-alaba diren bertakoak bostetik bat (%21).

Kultur nortasunari bagagozkio, Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoak euskaldun jotzen du bere burua (%64) baina alde handiak daude lurralde batetik bestera.

Beren burua euskaldun jotzen dutenak %78 dira Euskal Autonomi Elkartearen, %48 Iparraldean eta %35 Nafarroan. Horrenbestez, beren burua euskaldun jotzen ez dutenak nagusi dira (%51) Nafarroan, Iparraldean herena pasa direlarik (%35).

Inor euskalduntzat hartzeko bi baldintza nagusiak kontuan izanez gero alde nabarmenak ageri dira lurralde batetik bestera: «Euskal Herrian bizi eta lan egitea» (%58) eta «Euskal Herrian jaioa izatea» (%57) dira gehien aipatutako baldintzak Euskal Autonomi Elkartearen, «Euskal Herrian jaioa izatea» (%70) Nafarroan eta «Euskal Herrian jaioa izatea» (%53) zein «Euskaraz hitz egitea» (%51) Iparraldean.

HIZKUNTZ GAITASUNA

Erdaldun elebakarrak guztiz nagusi dira Euskal Herri osoan (%78) zein hiru lurraldeetan: %90 Nafarroan, %76 Euskal Autonomi Elkartean eta %66 Iparraldean.

Euskaldun elebakarrak biztanleriaren %1 baino ez diren arren guztira 22.570 pertsona dira. Elebidun funtzionalak, euskaraz eta erdaraz ongi hitz egiteko gai direnak alegia, %21 dira Euskal Herrian, %33 Iparraldean, %23 Euskal Autonomi Elkartean eta %9 Nafarroan. Elebidun hartzaileak (euskaraz zertxobait hitz egiten duten edo ongi edo nahikoa ongi ulertzen dutenak) hamarretik bat baino gutxiago dira toki guztietan (%9 Euskal Autonomi Elkartean, %7 Iparraldean eta %5 Nafarroan).


Hala ere emaitza horiek asko aldatu ohi dira herrialde, gune soziolinguistikoko edota herri batetik bestera (ikus 1. grafikoa) zein adin-talde desberdinen artean (ikus 2. grafikoa).

Esate baterako, Zuberoan euskaldunak (euskaldun elebakarrak %2,12 eta elebidun funtzionalak %61,70) gehiengo diren bitartean Bizkaian oso gutxi dira (euskaldun elebakarrak %0,68 eta elebidun funtzionalak %15,84). Baina kontuan izan behar da Euskal Herriko biztanleriaren %1 baino ez dela bizi Zuberoan, biztanleriaren gehiengo Bizkaian dagoelarik (%41).

Bestalde, euskaldunak %80 baino gehiago diren herrietan Euskal Herriko biztanleria osoaren ehuneko bosta baino ez dela bizi egia bada ere, ezin ahantz daiteke gune soziolinguistikoko horretan hamar biztanletik bat (%10) euskaldun elebakar dela, erdaldun elebakarrak oraindik ere gutxiago direlarik (%7).

Kopuru absolutuak aipatzekotan esan dezagun euskaldun elebakarrak guztira 22.570 direla eta elebidun funtzionalak 482.770. Beraz, 505.340 euskaldun dago horien artean ia erdiak Gipuzkoan (234.340, %46,37) daudelarik eta beste ia herena Bizkaian (152.480, %30,7) (ikus 1.eraskina).

EUSKAL HERRIA



HIZKUNTZ GAITASUNA ETA ADINA

Hizkuntz gaitasunari dagozkion emaitzak adinaren ikuspegitik aztertuz gero, begi-bistakoa da hizkuntz gaitasunaren azken urteotako bilakaera oso desberdina izan dela lurralde batetik bestera, lurralde bakoitzeko hizkuntz politikaren eragina eta emaitzak ageri-agerian daudelarik.





Inkestak aurrez aurre erakusten dizkigu, batetik, Iparraldean gertatzen ari den euskararen galera eta, bestetik, Euskal Autonomi Elkartearen jadanik hasia den euskararen berreskurapena eta Nafarroan hastear dagoena (ikus 2. grafikoa). Aipatu behar da, Euskal Autonomi Elkarteari zein Nafarroari dagokienean 1981, 1986 eta 1991ko zentsu eta erroldek erakutsitakoa berretsi egin duela inkesta honek.

Hain zuen ere, Euskal Autonomi Elkarteko 1981 eta 1991ko zentsuen konparaketak (ikus 2. eraskina) ongi asko erakusten du, gaur egun, duela hamar urte baino 100.000 euskaldun³ eta 99.000 ia euskaldun gehiago dagoela. Horrenbestez, euskaldun (+ %24,18) zein ia euskaldunen (+ %34,48) portzentaien batezbesteko hazkunde ikusgarriak gertatu dira, hazkunde horiek oraindik ere handiagoak izan direlarik toki jakinetan (Arabian, esate baterako, euskaldunen portzentaia %146,15ean hazi da eta ia euskaldunena %103,15ean). Era berean, bistakoa da hazkunde hori adin-talderik gazteenen euskalduntzeari zor zaiola nagusiki (1981ean euskaldunak %18,6 ziren 15etik 19 urte bitarteko adin-taldean, %19,4 10etik 14 urte bitartekoan eta %20 5etik 9rakoan. 1991n berriz hiru portzentaia horiek izugarri hazi dira: 15etik 19 urterako taldean %30,5, 10etik 14rakoan %38,3 eta 5etik 9rakoan %40,1).

Nafarroako 1986ko erroldaren eta 1991ko zentsuaren konparaketaren arabera (ikus 2. eraskina) esan daiteke, han ere, euskaldunen portzentaiaren gorakada adin-talderik gazteenen euskalduntzeari zor zaiola (1986an euskaldunak %8,5 ziren 15etik 19 urte bitarteko adin-taldean, %11,1 10etik 14 urte bitartekoan eta %13,3 5etik 9rakoan. 1991n ordea euskaldunak %10,7 dira 15etik 19 urteko taldean, %13,6 10etik 14rakoan eta %16,2 5etik 9rakoan).

Esandakoa berriro baieztatu daiteke hizkuntz gaitasuna eta haurtzaroko lehen hizkuntzaren emaitzak elkarren artean gurutzatuz gero. Iparraldean ez bezala, Euskal Autonomi Elkar-

ELEBITASUN-MOTA ADINAREN ARABERA, HERRIALDEKA



tean eta Nafarroan hautzaroan lehen hizkuntza euskara izanik, gaur egun, euskaraz ongi hitz egiteko gai ez direnak baino gehiago dira (%2 Euskal Autonomi Elkartearen eta Nafarroan) hautzaroko lehen hizkuntza erdara izanik euskara ikasi dutenak (%9 Euskal Autonomi Elkartearen eta %5 Nafarroan). Iparraldean ordea, euskara galdu dutenak (%10) ikasi dutenak (%5) baino bi aldiz gehiago dira.

HIZKUNTZ GAITASUNA ETA LEHEN HIZKUNTZA

Gauza jakina da, bestalde, elebidun funtzionalen artean ere den-denek ez dutela gaitasun edo erraztasun bera euskaraz hitz egiterakoan. Euskal Herri osoko batezbesteko datuak kontuan izanik, euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten duten euskaldunak baino zertxobait gehiago dira («euskal elebidun funtzionalak» %35) erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten dutenak («erdal elebidun funtzionalak» %38). Besterik berdintsu hitz egiten dute euskaraz zein erdaraz («elebidun funtzional orekatuak» %28).

Hau oso kontuan hartu behar da, erabilera eremu desberdinetan (familiar, lagunartean, lankideekin, etab.) euskara edo erdara aukeratzean oso eragin handia izango baitu euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko erraztasunak.

Bestalde, ondoko taulek erakusten dutenez euskaldunak euskaraz edo erdaraz hitz egiteko duen erraztasuna hertsiki loturik ageri da hautzaroan izandako lehen hizkuntzarekin:

	GUZT.	HIZKUNTZ GAITASUNA					
		EUSKALDUN ELEBAKARRA	EUSKAL ELEBIDUNA	ELEBIDUN OREKATUA	ERDAL ELEBIDUNA	ELEBIDUN HARTZAILEA	ERDALDUN ELEBAKARRA
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
<i>Zein izan zen zure lehen hizkuntza hautzaroan?</i>							
Euskara	20	98	98	86	58	15	1
Euskara eta erdara	3		1	5	14	9	1
Erdara	75		1	9	28	76	95
Besterik	2	2		0		1	3

Esan bezala, euskaraz gaztelaniaz bezain erraz (elebidun funtzional orekatuak) edo errazago (euskal elebidun funtzionalak) hitz egiten dutenen hautzaroko lehen hizkuntza euskara da. Erdaraz errazago hitz egiten dutenen (erdal elebidun funtzionalak) taldean gehien (%58) lehen hizkuntza euskara

izan zen, beste asko (%28) «euskaldunberriak» —haurtzaroko lehen hizkuntza erdara izan zutenak— direlarik.

	GUZT.	EUSKALDUNEN HAURTZAROKO LEHEN HIZKUNTZA		
		EUSKARA	EUSKARA ETA ERDARA	ERDARA
Guztira	100	100	100	100
<i>Nola hitz egiten duzu errazago oro har?</i>				
Erdaraz errazago	38	27	76	79
Berdin euskaraz eta erdaraz	28	30	20	19
Euskaraz errazago	35	43	4	3

Lehen hizkuntza erdara izanik euskaraz errazago hitz egiten dutenak %3 baino ez dira. Aitzitik, lehen hizkuntza euskara izan zutenen artean gehienek euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten dute.

Euskal Autonomi Elkartearen zein Nafarroan adin-talderik gazteenetan gertatzen ari den euskaldunen edo elebidun funtzionalen igoera erdal elebidun funtzionalen igoerari zor zaio batez ere eta ez hainbeste euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago hitz egiten dutenen igoerari.

EUSKARA IKASI EDO HOBETZEKO AHALEGINAK

Euskal Herrian asko dira eskola edo ikastolatik kanpo inoiz euskara ikasi edo hobetzeko ahaleginak egin dituztenak (%22). 25etik 34 urterako adin-taldean portzentaia hori oraindik ere altuagoa da, herena pasak (%35) egin baitu euskara ikasteko ahaleginik, %24ak ikastaroetara joanez eta %11k gehienbat bere kontura saiaturik.

Euskara ikasteko bi arrazoi nagusienak hauexek izan dira lurraldez lurralde:

Euskal Autonomi Elkartearen: «gure hizkuntza delako» (%56) eta «gogoa nuelako» (%31).

Nafarroan: «gure hizkuntza delako» (%65) eta «euskal kultura indartzeko» (%46).

Iparraldean: «gure hizkuntza delako» (%39) eta «euskara dakitenekin harremanak izateko» (%38).

Euskara ikasi edo hobetzen inoiz saiatu ez direnen (%69) arrazoi nagusiak beste hauek dira:

Euskal Autonomi Elkartean: «ez dut astirik» (%41) eta «inoiz ere pentsatu ez dudalako» (%36).

Nafarroan: «inoiz ere pentsatu ez dudalako» (%54) eta «ez zait interesatzen» (%38).

Iparraldean: «ez dut astirik» (%24), «inoiz ere pentsatu ez dudalako» (%22) eta «ez dut behar» (%21).

Baina euskara ikasi edo hobetzen saiatu direnek zenbate-raino erdietsi dute beren helburua?

	GUZT.	EUSKARA-GAITASUNA HAURTZAROKO LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA					
		1. HIZKUNTZA: EUSKARA EUSKARAZ HITZ EGIN:			1. HIZKUNTZA: ERDARA EUSKARAZ HITZ EGIN:		
		ONGI	ZERTXO	EZERRE	ONGI	ZERTXO	EZERRE
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
<i>Inoiz saiatu da euskara ikasi edo hobetzen?</i>							
Ez	69	58	40	60	3	3	81
Bai, gehienbat bere kontura	9	19	30	18	20	19	4
Bai, ikastolan edo eskolan	9	13	10	5	18	23	7
Bai, ikastaroetara joanez	13	11	20	17	58	55	8
<i>Inoiz saiatu da euskara ikasi edo hobetzen?</i>							
Ez	100	16	1	1	0	0	81
Bai, gehienbat bere kontura	100	40	5	3	7	11	34
Bai, ikastolan edo eskolan	100	27	2	1	6	12	52
Bai, ikastaroetara joanez	100	16	3	2	14	21	44

Dakusagunez, lehen hizkuntza erdara izanik euskaraz ongi nahiz zertxobait hitz egiten duten gehienek (%58 eta %55) ikastaroetara joanez ikasi dute euskara. Baina horrekin batera jakin behar da (ikus taularen beheko zatia) ikastaroetara joanez inoiz euskara ikasten saiatu direnen artean nagusi direla lehen hizkuntza erdara izanik, gaur egun, euskaraz ezertxo ere hitz egiteko gai ez direnak (%44), era berean asko direlarik zertxobait bakarrik hitz egiteko gai direnak (%21).

LABURPENA

Hizkuntz gaitasunari buruz esandakoak laburbiltzekotan, esan dezagun, hiru hiztun-talde desberdin bereiz daitezkeela talde bakoitzaren ezaugarri nagusiak hauek direlarik (ikus «Hiztun taldeen ezaugarri nagusiak» taula):

EUSKALDUNAK:

Talde honetan euskaldun elebakarrak eta elebidun funtzionalak sar daitezke. Euskal Herriko biztanleria osoaren %22 dira guztira.

Adinez, erdaldun elebakarrak baino zertxobait zaharragoak dira. Bertakoak dira ia denak beren gurasoak ere bertakoak direlarik. Hamarretik zortzi (%79) Euskal Autonomi Elkartearen bizi dira —Gipuzkoan (%46) edo Bizkaian (%30)— eta %13 Iparraldean. Oinarrizko ikasketak edo goimailako batxilergoa egin dute gehienek. Erretiratuen portzentaia beste bi taldeetan baino altuagoa da eta erdaldunek baino maila sozioprofesional altuagoa dute.

Katoliko praktikanteen portzentaia oso altua da talde honetan (%60). Beren burua euskaldun jotzen dute guzti-guztiak. Erdaldun elebakar nahiz elebidun hartzaileek ez bezala, inor euskalduntzat hartzeko baldintzarik garrantzitsuena euskaraz hitz egitea dela diote.

Euskara da beraien lehen hizkuntza. Hala ere, euskaldunberria da hamarretik bat (%13). Hirutik bat (%36) saiatu da, bere kontura edota ikastaroetara joanez, euskara ikasten.

Beren harreman-sarea nahikoa euskalduna da hala familian nola lagunartean edo lanean, euskaldunak nagusi diren herrietan bizi baitira gehienak (%60): lautik hiruren (%75) senar edo emazteak badaki euskaraz hitz egiten; kasurik gehienetan (%68) beren familietan denek edo ia denek dakite euskaraz hitz egiten; seme-alaben artean ere normalean (%74) denek edo ia denek dakite euskaraz. Lagunartean eta lankideen artean ordea, portzentaia horiek jaitsi egiten dira (%48 eta %36).

Ia guztiak euskararen erabilera sustatzearen aldekoak dira euskararekiko interes handia dutelarik.

El Diario Vasco da gehien irakurtzen duten egunkaria.

ELEBIDUN HARTZAILEAK

Euskal Herriko biztanleriaren %8a dira. Beste bi taldeetakoak baino askoz ere gazteagoak dira. Gehienak (%63) bertakoak dira gurasoak ere bertakoak dituztelarik baina dexente dira bertakoak izanik ere aita eta ama etorkinak dituztenak. Euskal Autonomi Elkartearen bizi dira, Bizkaian (%40) edota Gipuzkoan (%33). Beste bi taldeetakoek baino ikasketa-maila

altuagoa dute asko oraindik ikasle direlarik (%34). Euskaldunen antzeko maila sozioprofesioanala dute.

Bestalde, katolikoak izanik ere ez dira besteak bezain praktikanteak eta ia guztiek euskaldun jotzen dute beren burua. Erdaldun elebakarrek bezalaxe uste dute inor euskalduntzat hartzeko baldintzarik garrantzitsuena Euskal Herrian jaioa izatea edo Euskal Herrian bizi eta lan egitea dela. Baina hurrengo baldintzen artean erdaldunek baino askoz ere gehiagok aukeratu dute euskaraz hitz egitea.

Gutxi batzuen (%15) lehen hizkuntza euskara izan bazen ere erdara izan da gehien lehen hizkuntza (%76).

Ikastarøtara joanez (%44), ikastolan edo eskolan (%24) edo bere kontura (%20) ikasi dute euskara.

Oso gune soziolinguistiko erdaldunetan bizi direnez (elebidun hartzaileen %54 euskaldunak %20 baino gutxiago diren herrietan bizi da) bere familiako, lagunarteko nahiz laneko harreman-sarea oso erdalduna da. Bere senarrak edo emazteak normalean (%61) ez daki euskaraz baina seme-alabei dago kienean, hamarretik lau kasutan (%38) denek edo ia denek dakite euskaraz. Familiako eta lagunarteko harreman-sareak dira euskaldunenak beraiantzat.

Euskararekiko duten interesa erdaldun elebakarrena baino dexente handiagoa eta euskaldunena baino nahikoa txikiagoa da. Bestetik, euskararen erabilera sustatzearen aldekoak nagusi diren arren (%45) kontuan hartzekoa da ez aldeko, ez aurka-koen portzentaia (%34).

El Correo Español eta *El Diario Vasco* dira gehien irakurtzen dituzten egunkariak.

ERDALDUN ELEBAKARRAK

Nagusi dira (%78) Euskal Herri osoan. Talde honetan parean daude etorkinak (%40) eta bertakoak (%39). Euskal Autonomi Elkartean (%71) —Bizkaian dago %44— eta Nafarroan (%22) bizi dira.

Erljioaren ikuspegitik katolikoak nagusi dira praktikan-teen proportzioa euskaldunena baino nahikoa baxuagoa delarik. Nagusi dira (%52) beren burua euskaldun jotzen dutenak herena (%33) euskaldun sentitzen ez den arren. Euskal Herrian jaioa izatea edota Euskal Herrian bizi eta lan egitea dira hauen- tzat inor euskalduntzat hartzeko baldintza nagusiak.

Erdara izan da beraien lehen hizkuntza eta hamarretik zortzi ez da inoiz saiatu euskara ikasten.

Euskaldunak %20 baino gutxiago diren herrietan bizi dira, beraien harreman-sarea guztiz erdalduna delarik. Euskaldunen artean laurdena senar edo emazte erdaldunarekin bizi den bitartean, erdaldun elebakarren artean senar edo emaztea erdalduna da ia beti (%95). Hala ere, azpimarratzekoa da hamarretik baten (%12) seme-alaba guztiak edo ia guztiak euskaldunak direla.

Nagusi dira (%35) euskararen erabilera sustatzeari buruz jarrera indiferentea dutenak, euskararen aurkako (%25) zein aldekoak (%24) parean daudelarik. Erdiek (%48) ez dute euskararekiko inolako interesik.

El Correo Español eta *Diario de Navarra* dira gehien irakurtzen dituzten egunkariak.

1. Euskal Autonomi Elkartearen bi lagin desberdin egin ziren: 1.800 euskalduneko, bata, eta 1.000 erdalduneko bestea. Ondoren, jakina, emaitzak ponderatu egin ziren talde bakoitzak 1986ko erroldan izandako taminaren arabera. Lagin bakoitzean inkestak egin beharreko sekzioak aukeratzeko erabilitako laginketa-sistema aleatorioa, estratifikatua eta multzoka polietapikoa izan zen. Sekzioen estratifikazioa herrialdeka eta, herrialde bakoitzean, gune soziolinguistikoka (erroldan sekzio bakoitzak duen euskaldun, ia euskaldun eta erdaldunen proportzioen arabera landutako sekzioen tipologian oinarrituz) beste azpiestratifikazio bat eginez burutu zen. Aukeratutako sekzio bakoitzean elkarrizketatu beharreko pertsonen lagina 1986ko erroldatik atera zen era aleatorio simplean.

Nafarroan ere bi lagin independente egin ziren: 800 euskalduneko bata eta 500 erdalduneko bestea. Ondoren, jakina, emaitzak ponderatu egin ziren talde bakoitzak 1986ko erroldan duen taminaren arabera. Lagin bakoitzean, inkestak egin beharreko sekzioak aukeratzeko erabilitako laginketa-sistema aleatorioa, estratifikatua eta multzoka polietapikoa izan zen. Aukeratutako sekzio bakoitzean elkarrizketatu beharreko pertsonen lagina 1986ko erroldatik atera zen era aleatorio simplean. Estratifikazioa gune soziolinguistikoka egin zen, lehenik, gerora beste berrikusketa proportzional bat egin zelarik, nola gune soziolinguistikorik erdaldunetan euskaldunen errepresentagarritasun-maila handiagoa lortzeko hala gune soziolinguistikorik euskaldunenetan erdaldunen errepresentagarritasun-maila hobetzeko.

Iparraldean 917 inkesta egin ziren. Inkestak egin beharreko udalerrri edo kantoiak aukeratzeko erabilitako laginketa-sistema aleatorioa, estratifikatua eta multzoka polietapikoa izan zen. Horietako bakoitzean elkarrizketatu beharreko pertsonak sexua, adina eta lan-egoeraren arabera aukeratu ziren. Herrialdeka estratifikazio bat egin zen bakoitzean azpiestratifikazio bat egin zelarik kantoien arabera. Azpiko taulan bildu dira euskaldunen, erdaldunen eta biztanleria osoaren lagin-erruak:

	<i>Euskaldunak</i>	<i>Erdaldunak</i>	<i>Guztira</i>
Euskal Autonomi Elkartea	±%2,5	±%3,9	±%3,0
Nafarroa	±%3,9	±%4,8	±%4,3
Ipar Euskal Herria	~±%5,4**	~±%4,4**	~±%~3,4*
Euskal Herria	±%2,1	±%3,0	±%2,4

* lagin osoan errutuz jotako lagin-errua

** begiz jotako hurbilpena

2. 16 urtetik gorako biztanleria bakarrik hartu da kontuan.

3. Euskal Autonomi Elkarteko zein Nafarroako errolda eta zentsuetan erabilitako hizkuntz gaitasunaren sailkapena eta inkestan erabilitakoa oso desberdinak dira beren artean. Horrexegatik, zentsuko euskaldunak eta inkestakoak ezin daitezke, besterik gabe, elkarren parean jarri.

HIZTUN-TALDEEN EZAUGARRI NAGUSIAK

Elebitasun-mota	Euskalduna (euskaldun elebakarra + elebidun funtzionala)		Elebidun hartzailea		Elebidun elebakarra	
Aldagaia						
Adina	>50 35-49 16-24	%43 %21 %19	16-24 >50 25-34	%46 %20 %19	>50 35-49 25-34	%38 %26 %20
Jatorria	bertakoa	%93	bertakoa bertakoa, aita eta ama etorkinak	%63 %18	etorkina bertakoa	%40 %39
Lurraldea	E.A.E. Iparraldea	%79 %13	E.A.E.	%82	E.A.E. Nafarroa	%71 %22
Herrialdea	Gipuzkoa Bizkaia	%46 %30	Bizkaia Gipuzkoa	%40 %33	Bizkaia Nafarroa	%44 %22
Bukatutako ikasketak	oinarritakoak goi-mailako batxilergoa	%37 %20	oinarritakoak goi-mailako batxilergoa	%33 %31	oinarritakoak oinar. baino baxuagoak	%46 %16
Lan-egoera	langilea, besteren kontura erretiratua	%35 %20	langilea, besteren kontura ikaslea	%34 %34	langilea, besteren kontura etxeko lanak	%38 %22
Malla sozioprofesionala	erdi/behe mailakoa erdi mailakoa	%32 %29	erdi/behe mailakoa erdi mailakoa	%33 %30	erdi/behe mailakoa behe mailakoa	%32 %26
Erlitio-aitorpena	katoliko praktikantea katoliko ez-praktikantea	%60 %23	katoliko praktikantea katoliko ez-praktikantea	%36 %36	katoliko praktikantea katoliko ez-praktikantea	%45 %33
Euskaldun jotzen du bere burua?	bai	%96	bai	%86	bai ez	%52 %33
Zeintzuk dira beretzat inor euskadun- tzat hartzeko bi baldintza nagusiak?	euskaraz hitz egitea E.H.an bizi eta lan egitea E.H.an jaioa izatea	%31 %22 %20	E.H.an jaioa izatea E.H.an bizi/lan egitea euskaraz hitz egitea	%29 %23 %18	E.H.an jaioa izatea E.H.an bizi/lan egitea euskaraz hitz egitea	%32 %28 %8
Lehen hizkuntza	euskara erdara	%79 %13	erdara euskara	%76 %15	erdara	%95
Euskara ikasten/hobetzen ahalegindu da inoiz?	ez bai, bere kontura bai, ikastaroetara joanez	%50 %19 %17	bai, ikastaroetara joanez bai, ikastolan/eskolan bai, bere kontura	%44 %24 %20	ez	%81
Bere senarrak/emazteak badaki euskaraz?	bai ez	%75 %25	ez bai	%61 %39	ez	%94
Zenbatak daki euskara bere familian?	denek edo ia denek erdiek baino gehiagok	%68 %14	inork edo ia inork ez erdiek baino gutxiagok	%54 %21	inork edo ia inork ez erdiek baino gutxiagok	%83 %11
Zenbatak daki euskaraz bere seme-alaben artean?	denek edo ia denek inork edo ia inork ez	%74 %16	inork edo ia inork ez denek edo ia denek	%47 %38	inork edo ia inork ez denek edo ia denek	%78 %12
Zenbatak daki euskaraz bere lagunartean?	denek edo ia denek erdiek	%48 %17	inork edo ia inork ez erdiek	%30 %28	inork edo ia inork ez erdiek baino gutxiagok	%66 %20
Zenbatak daki euskaraz bere lankideen artean?	denek edo ia denek erdiek	%36 %21	inork edo ia inork ez erdiek baino gutxiagok	%44 %27	inork edo ia inork ez erdiek baino gutxiagok	%59 %21
Zein gune soziolinguistikotan bizi da?	euskaldunak %45-79 euskaldunen %80-100	%38 %22	euskaldunak %0-20 euskaldunen %20-44	%54 %26	euskaldunak %0-20 euskaldunen %20-44	%79 %14
Nolako jarrera du euskararen erabilera sustatzeari buruz?	oso aldekoa aldekoa	%48 %39	aldekoa ez-aldekoa, ez-aurkakoa oso aldekoa	%45 %34 %16	ez-aldekoa, ez-aurkakoa aurkakoa aldekoa	%35 %25 %24
Nolako interesa du euskararekiko?	handia nahikoa	%56 %24	handia nahikoa	%35 %28	inolakoa ez zertxobait	%48 %15
Zein da gehienetan irakurtzen duen egunkaria?	El Diario Vasco El Correo Español Egin	%34 %15 %14	El Correo Español El Diario Vasco	%30 %25	El Correo Español Diario de Navarra	%41 %15

1. eraskina

HIZKUNTZ GAITASUNA EUSKAL HERRIAN
1991ko SOZIOLINGUISTIKAZKO INKESTAREN ARABERA
(Datu hauek 16 urtetik gorako biztanleriari dagozkie)

		HERRIALDEA							
		EUSKAL HERRIA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA	LAPURDI	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA
Euskaldun elebakarrak	kopurua (%)	22.570 1,00	0 0,00	6.280 0,68	10.830 2,02	2.600 0,65	1.900 1,26	560 2,07	300 2,12
Elebidun funtzionalak	kopurua (%)	482.770 21,39	14.460 7,02	146.200 15,84	223.510 41,70	35.600 8,90	38.250 25,33	16.060 59,47	8.640 61,70
Elebidun hartzaileak	kopurua (%)	174.010 7,71	15.530 7,54	69.320 7,51	57.350 10,70	18.320 4,58	10.710 7,09	920 3,40	1.890 13,51
Erdaldun elebakarrak	kopurua (%)	1.577.870 69,91	176.010 85,44	701.300 75,98	244.310 45,58	343.480 85,87	100.140 66,32	9.470 35,06	3.170 22,62
Guztira	kopurua (%)	2.257.000 100	206.000 100	923.000 100	536.000 100	400.000 100	151.000 100	27.000 100	14.000 100

2. eraskina

HIZKUNTZ GAITASUNA

	1981		1986		1986ko portzentzai hazkundera 1981etik	1991		1991ko portzentzai hazkundera 1981etik
	zk.	%	zk.	%		zk.	%	
ARABA								
Euskaldunak	9.693	3,9	17.424	6,7	71,79	25.300	9,4	146,15
la euskaldunak	23.797	9,5	43.997	16,8	76,84	50.900	19,3	103,15
Erdaldunak	216.302	86,6	199.807	76,5	-12,81	188.100	71,3	-17,78
Guztira	249.792		261.228		+11.436*	264.300		+14.500*
BIZKAIA								
Euskaldunak	171.684	14,9	197.704	17,5	14,76	212.600	18,8	26,17
la euskaldunak	154.722	13,4	205.696	17,8	32,83	230.200	20,4	52,23
Erdaldunak	829.372	71,8	746.584	64,7	-9,88	686.200	60,8	-15,32
Guztira	1.155.778		1.153.989		-1.789*	1.129.100		-26.678*
GIPUZKOA								
Euskaldunak	266.779	39,5	294.691	43,7	10,63	310.100	47,2	19,24
la euskaldunak	122.366	18,1	114.423	17,0	-6,57	118.600	18	-0,55
Erdaldunak	286.746	42,4	265.664	39,4	-7,07	230.300	34,8	-17,68
Guztira	675.891		674.779		-1.112*	659.000		-16.891*
E.A.E.								
Euskaldunak	448.156	21,5	509.819	24,6	13,48	548.100	26,7	24,18
la euskaldunak	300.885	14,5	364.116	17,4	20	399.800	19,5	34,48
Erdaldunak	1.332.420	64	1.212.055					
Guztira	2.081.461		2.089.995		+8.534*	2.052.300		-29.161*
NAFARROA								
Euskaldunak			50.953	10,1		52.023	10,3	1,98
la euskaldunak			26.478			30.576	6,1	15,9
Erdaldunak			424.558	84,6		420.431	83,6	-1,18
Guztira			501.989			503.030		+1.041*

Iturriak: EUSTAT. 1981 eta 1991ko zentsuak, eta 1986ko errolda.
Nafarroako Gobernuak. 1986ko errolda eta 1991ko zentsua.

* Biztanleriaren hazkundera kopuru absolutuetan.

G AIAK

XABIER CILLERO
GUGGENHEIM MUSEOAREN ARGITZALAK

JOSEBA ZULAIKA
GU GU GUGGENHEIM

GUGGENHEIM MUSEOAREN ARGITZALAK

XABIER CILLERO

Guggenheim museoa museoa baino areago da, eta ez bakarrik Wright amerikar arkitekto ameslariak diseinaturiko etxearen tankeragatik. Guggenheim museoa, izen bereko erakundeetatik bereizi beharrekoa, Ameriketako arte-munduko aitzindari nagusienetariko bat dugu, museo pribatuen artean lehena eta, haren ondarea dela medio, mundu osoan zehar ezaguna .

Museoak berrikuntza sakona ezagutu berri du, bai Wrightek tajaturiko etxean, baita arte-kontuak zuzentzeko ikusmoldean ere. Azken honen arduraduna Thomas Krens zuzendari berria dugu. Berrikuntzaren ondorioak aztertzeko betarik ez dagoenez, geroak esango du Krensen taldeak Guggenheimi

emandako astindua eusteko gauza izango ote den museo/era-kundea.

Bitartean, Euskal Herrira lehorreratu zaigu Guggenheim museoa, lehen Madrileraren erakusketak heltzen ziren moduan. Hala ere, oraingo honetan, euskaldun batzuk aitzindari suertatu dira: museoko arduradunei plan bat proposatu diete Bilbon Guggenheimen adar bat zabaltzeko, euskal kulturaren loriaren mesederako. Honek piztutako eztabaidari zenbait argigarri ekartzea dute helburutzat ondorengo leurok.

Guggenheimi buruzko kontuak honela banatu ditugu: Krens zuzendariaren irudia eta Guggenheim museoaren historia aipatuko ditugu sarrera gisa. Bestalde, berrikuntzaren arazoak, erakundearen finantzaketa, bildumaren gorabeherak, frankiak eta munduan zehar.

«GUGGIE»REN HISTORIA

Solomon Guggenheim, bere izena duen museoaren sortzailea, Zurich ondoko ghetto bateko judu baten zazpi seme-alabatariko bat genuen. Meyer Guggenheimek enpresa-talderik eraginkorrena bihurtu zituen bere semeak. Guggenheimen zori ona Coloradoko meatza pare batekin hasi zen. 1914. urterako, Guggenheimen negozioak, era guztietako meatzei atxekita zeuden, batez ere, urre, zilar, diamante, latoi eta oro gain, kuprea ekoizteko. Mundu guztian zabaltzen ziren Guggenheimen negozioak, garraioak, banketxeak, eta burtsako kotizazioak barne. Ordurako, Solomon genuen familiako negozio askoren burua. Halako arrakasta izan zuen bere jardueran, non 1919. urterako negozioak bertan behera utzi baitzituen.

Solomon Guggenheimdar sofistikatuen zen. Zaldun antzeko plazerrak zituen gogoko: yatean ibiltzea, abeltzantza, eta batez ere, txoriei tiro egitea. Gainera, arte-saltsetan sartzea maite zuen, eta Rotschild familiako emazte konbentzional batekin ezkondu bazegoen ere, bestelako abenturak ere bizi izan zituen. Guzti honek eragingo zion Guggenheim museoaren sorkuntzari.

Solomonen patua Bavariako *femme fatale* baten lorratzari jarraiki zitzaion eta horri esker dugu ikusgai gaur egun Gug-

genheim museoa. Ikus dezagun nola suertatu zen kontua. 1926an Hilla Rebay von Ehrenwiesen zeritzon baronesa germaniarrak Solomon bere sarean harrapatu zuen portreta bat egin behar ziola eta. Harrez gero, ez zuen aske utziko.

Hilla Rebayen ibilbidea nahiko korapilatsua izan zen ordura arte. Teosofisten jarraitzailea, dadaisten eskutik ibili zen garai batean —Arp eta Richterren besotik. Geroago abstrakzionismora lerratu zen eta otu zitzaion Poloniako pintatzaile baten ezagupidea mundu guztiari ematea (Davis 202).

Rudolf Bauer zen pintatzaile hura eta Hillaren maitalea ere bazela esan beharko, koadroa osatzeko. Gainera, Bauerrek Kandinskyren eskolakoa ere irizten omen zion bere buruari, bere espezialitatea Kandinskyren plagioak egitea bazen ere.

Hillak berehala egin zituen moduak Solomon Guggenheimek edo baronesak esaten zion moduan, «Aguretxoak» nahiz «Guggiek», Bauerren lanak ehundaka eros zitzaizkion. Baita prezio itzela ordain zezan ere. Kontua da Bauerrek bere museo-galeria zabaldu ahal izan zuela Berlinen, txoferra, morroia, eta zakurtzar beltz bat ipinita, azken hau bere sadismoaren erakusgarri (Nina Kandinsky dixit). Nolanahi ere, urteak joan ahala Bauer arte-munduan lekurik gabe gelditu zen eta azkenean zoroetxera eraman zuten (Davis, 214).

Hillarengustuak pinturari zegokionez, zatar samarrak ziren eta honen froga 1939. urterako New Yorkeko Solomon Guggenheimen Pintura Ezirudikorreko Museoak zeuzkan lanak: Baurren 215 koadro, Hillaren beraren 13 eta Kandinskyren 103 lan... Hala ere, baronesak begi ona ezarri zien beste artista batzuen lanei, eta horrela Picasso, Braque, Léger, Moholy-Nagy, Mondrian eta beste museoan sartuko ziren (Richardson, 19-21).

Orduan, beste Guggenheim batek, arte-munduan sartu eta Solomoni konkurrentzia egin zion, 1937an Londonen bere galeria zabaldu zuenean. Peggy Guggenheim —*Guggenheim alderraia ezizenez*— dugu osabari aurpegia eman zion iloba bihurria. Galeria Guggenheim-Jeune izendatu zuen eta erronka gisa edo osabari Kandinsky bat eskaini zion (Guggenheim, 170).

Hilla Rebay leher zorian egon zen gaztearen atrebentzia zela eta, jakin zuenean Peggyk museoa irekitzeko asmoa zuela Parisen, bere eta Solomonen proiektua halakoxea baitzen. Gai-

nera, baronesak «famiaren ospea eta izen ona dirua lortzeko bide gisa erabiltzea» leporatzen zion Peggyri (Guggenheim, 171).

Hasi ere, Peggy Guggenheimen arte-zaletasuna aspertuta zegoelako hasi zen. Hala ere, zenbait aditu eta gustu oneko jendeari esker —tartean, Marcel Duchamp, André Breton, Alfred Barr...— laster zorroztu zuen bere adimena artearekiko. Bere oroitzapenetan aitortzen duenez, bigarren mundu gerla hurbil zegoela eta, egunero koadro bat eskuratzen hasi zen. (Richardson, 20).

Urte eskas batean, Peggyk oso koadro onak erosi zituen. Aipagarrienak, artista kubisten pintura mordoska eta surrealisten lan batzuk. Azken hauen artean Max Ernsten Forest (1927-1928) eta Magritten *La Voix des airs* (1931). Honetaz aipatu behar da, Peggy aldi labur batez Max Ernstekin ezkondua egon zela. Gerra gain-gainean zegoela eta, prezioek behera egin zuten, eroslerik ezean, eta Peggyk aurrea hartu zion Solomon-Hilla bikoteari.

Paris utzi eta New Yorken Mende Honetako Artearen galeria zabaltzea erabaki zuen Peggyk, osabaren aurre-aurrean. Izan ere, Hillak —Solomonen diruaz— Biharko Artearen galeria ireki behar baitzuen 54. kaleko kotxe-saltoki berriztatu batean.

Hillak azpijokorik ederrena egin zion Peggyri: inmobiliaria-ko agenteak behartu zituen Peggyri preziorik eskuraezinezinak eska ziezazkioten. Bestalde, Hillak Marx Ernst deportatzeko mehatxua egin zuen, Peggyk berriro «nazien sorgin gaiztoa» deitzen bazion (Richardson, 20).

Guggenheimdariek ez zituzten begi onez ikusten Solomonen eta Hillaren arteko harremanak. Alemaniarrak mistizismo nordikoaz gainera, nazi antzeko joera ere bazuen. Honenbestez, ez da harritzekoa nola deitzen zioten familiakoek Hillari: «the B» (esan nahi baita *Bitch* (urdanga), ez Baronesa) (Richardson, 20).

Peggyk ez zuen amore eman. Frederick Kiesler, abangoardiako diseinugileari eman zion enkargua pinturak jostundenda izandako etxe bietan ezartzeko. Erakusketa oso modu xelebrean paratu zuten: pinturak angelu bitxietan kokatu zituzten, edota baseballeko bate apurtuetan bermaturik, iluminazioa hiru segunduero piztu-itzalika zebilela.

Gainera, Peggyk artista bat «aurkitua» zuen: Jackson Pollock. Eta honetan ere, Peggyk atzea erakutsi zion Hillari. Izan ere, Pollock zurgin-lanak egiten ibili baitzen Hillaren etxean eta bere pinturak erakutsi zizkion. Hillak hauxe baizik ez zion esan, alegia, bazirela «posibilitateak lana garatzeko». Peggyk, oster, kontratua eskaini zion Pollocki eta berarentzat lanean jarri zen (Richardson, 20).

Peggyren erakusketak Hillarenak baino arrakasta handiagoa lortu zuen. Baronesaren joera mistikoak kalte egin zion jokaldi hartan. Pinturak lurra ikutzen zutela eskegi zituzten, «zeru-lurren arteko bitartekariak izan zitezten». Intzentsu-lurrina airean eta musika klasikoa etxabeko fonografo bati zeriola, Hillak emakume pintatzaile eta eskultoreak ordaindu zituen lanen esanahia azal zezaten.

Bidenabar esanda, lan gehienak Hillarenak eta Bauerrenak ziren. Salbuespenak salbu, ez zen artista amerikarrik batererakusketan. Bertan parte hartzen zuen amerikar bakarretariko batek esan zuenez, Hillak bere pinturaren zati bat birpintatu zuen; eta hau zabar-zabar egin ere (Richardson, 20).

Irudia osatzeko, baronesaren adierazpen susmagarriek zalantzan jarri zuten bere joera politikoa. Esate baterako, honela mintzatu zenean: «genioa Jainkoaren opari berezia da, nazioarneliteari egina». Gainera, Franz Hugo, Hillaren nebak, goimailako nazi-kargua zuen. Hala ere, baronesak esan bezala, Hugo baroiak artista «dekadente» pilo bati lagundu zien Hitlerren hatzaparretatik ihes egin zezaten (Richardson, 20).

1942an Hilla eta Bauerren bideak betiko banatu ziren. Solomon Guggenheimek Bauer Alemaniako kontzentrazio-kanpamendu batetik erreskatatu eta etxe bat eman zion New Jersey. Etxearekin batera etxezaina ipini zion eta Bauer emakumearekin ezkondu zen. Orduan, Hillak su eta gar ekin zion Bauerren aurka. Solomon konbentzitu zuen artistari hilabeteko saria ken ziezaion eta aurrerantzean haren koadrorik eros ez zezan. Baina hau nahikoa ez izan eta mehatxuka hasi zitzaion maitale ohiari gutun bidez. Ezkonberriek epaitegira jo zuten (Davis, 211).

Guggenheimen laguntzaz, Hillak erraz irabazi zuen auzia, baina orduan Bauertarrek nazi espioitzat salatu zuten Hilla. Gau eta egun zaindu ondoren, FBIk Hillaren egoitza arakatu

zuen: 700 kilo azukre, 250 kilo kafe eta gauza pilo bat gehiago atera zioten garagetik. FBIkoek ez zuten ezer jakin nahi izan andrea ren ohiturei buruz (baronesa landarejalea zen) eta atxilotu egin zuten. Solomon korrika joan zen Roosevelt presidente demokratarengana esatera berak eta bere familiak (eta bere diruak) begi onez ikusten zutela presidentearen lana (Davis, 214). Berehala askatu zuten Hilla. Hori guzti hori, Solomon Guggenheim errepublikano amorratua zela.

Azkenean, Solomon nekatu egin zen arteak ematen zion buruhausteez, eta behin eta berriro saiatu zen Hilla konbentzitzen museo-proiektuko zuzendaritzatik irten zedin, baina germaniarraren sukarrak aurrera segitu zuen hainbat urtez. Guggie gixajoak ez zekien bereak germaniarrak baino lehenago egin behar zuela.

Solomon 1949an hil zen. Harry Guggenheimek jaso zuen heredentzian erakundearen ardura eta Hillaren joera antisemita jasan behar izan zuen. Gainera, Hillak uko egin zion museotik ateratako pinturak ondorengoei itzultzeari, eta etxean gorde zituen. Hil aurretik, Hillak bere fundazioarentzat laga zituen pinturak eta Guggenheim museoak erosi behar izan zizkion milioi dolar bat ordainduta (Davis, 229).

Hillaren ondorengoa, James Johnson Sweeney, serioagoa eta benatsuagoa zen, baina beste gatazka batean sartu zen museoaren eraikuntza burutu behar izan zutenean. Istilu honen sorreran ere Hillak parte hartze garrantzitsua jokatu zuen. Izan ere, 1939 aldera, Hillaren eskakizunei men eginez, Solomon Guggenheimek enkargua eman zion Frank Lloyd Wright arkitekto amerikarrari beretzako museo bat diseina zezan (Davis, 215).

Urtebete barru hantxe azaldu zen Wright Hillarentzako «izpirituaren tenpluaren» planuak eskuan. Etorria Mesopotamiako ziguratetatik hartuta, otoitz egiteko lekua izango omen zen. Sweeneyek gorrotoa hartu zion Wrighten proiektuari eta esan zuen arkitektoak birziklatu egin zuela mermelada egiteko lan-tegi baten proiektua (egia esan, Marylandeko begiratoki baten planu zaharra zen, inoiz burutu gabea) (Richardson, 20).

Hasiera-hasieratik, Guggenheim museoak arazo itzelak gainditu behar izan zituen. Txikiena ez zen izan New Yorkeko eraikuntza-kode murrizta saihestea. Wrightek eskutitzak idatzi zizkion Robert Moses, Parkeetako Komisarioari, lehengusua

baitzuen, baina ez zuen eraikitzeke baimenik erdietsi 1956. urtera arte.

Zenbait hilabete geroago, Wrightek —laurogeita hamar urte lepoan— erregu egin zion «Lieber Harry, the Guggenheim»i museoari izen berezia emateko: «Archeseum» (*arki* aurritzkiaren handitasunari erreparatuta). «Lieber Harry»k honela erantzun zion: «Etxea honelaxe izendatuko da, honelaxe inskribatuko da eta honelaxe ezagutuko da: Solomon R. Guggenheim Museum» (Richardson, 21).

Arkitekto eta museoko zuzendariaren arteko tirabirak urte-tik urtera areagotu ziren. Arkitektoak bere artelanaren osotasuna babestu nahi zuen. Zuzendariak borroka egin zuen museoa erakusleku erabilgarri bilatzeko, hala museoko lanak nola behin-behineko erakusketak agertarazteko eta bulegoak eta biltegiak ezartzeko.

Sweeneyk argi eta garbi adierazi zuen Wrighten estiloak sortzen zion higuina. Modernismoa funtzionalismoaren sinonimoa zen berarentzat. Eta Wrighten eraikintza edozer izan zitekeen, funtzionala izan ezik.

Wrightek eta Sweeneyk edozergatik egin zuten borroka. Wrightek honelako museoa nahi zuen: argi naturala, pareta kurboak, boli kolorekoak, edota kolore arinekoak. Sweeneyk argi artifiziala, pareta lauak, eta kolore zurikoak zituen gogoko. Wrightek esan zuen Sweeneyen horma zuriak tenis-klub bateko komunak bezain sujerikorrek zirela (Davis, 225). «Gure bibolin zoragarria jotzeko» kexa egin zuen Wrightek, «pianoa baizik jotzen ez dakien gizona dugu» (Richardson, 20).

1958an Sweeneyek kargua utzi zuen, baina berriro hartu zuen Guggenheimdarren eskabideaz. Hiru hilabete geroago, Wright hil zen. Laurogeita hamaika urte zituen eta ez zuen ikusi bere lana amaituta. Estatu Batuetan sortutako arkitekto-rik aipagarrienak honela azaldu zuen eraikuntzaren kontzepzioa Hiroshimaren leherketa nuklearra gertatu eta bost hilabete geroago: «Lehen bomba atomikoa New Yorken lurre-ratzen denean, etxe hau ez da suntsituko. Baliteke zenbait kilometro airean gora jaurtikia izatea, *baina berriro jausten denean errebotatu egingo du!*» (McGuigan, 58). Geroko adituek esan dute museoa bihotzaren taupadak azkartzen dituzten etxe bakar horietako bat dela.

Urte hartan bertan ireki zen museoa. 1960an Sweeneyek kargua utzi zuen behin eta betiko. Prentsan azaldu zutenez, ezadostasunak izan zituen administratzaileekin museoaren funtzio edukazionalari buruz. Harry Guggenheimek familiaren izena ospatu nahi zuen eta horretarako ahalik eta bisitari gehien erakartzen saiatzen zen. Zuzendaria ez zegoen ados. «Museoek —esan zuen Sweeneyek— ez lukete inoiz saiatu beharko jendea ikuskizun atseginen bidez erakartzen, baizik heziketaren bidez» (Davis 225). Benetako arrazoia bestelakoa izan zen. Ezin asmatu? Sweeneyk barregarritzat jo zuen Wrigh-ten eraikuntza *New York Times* egunkarian bertan (Richardson, 20).

Hurrengo zuzendaria Thomas Messer txekiarra izan zen. Bere urteak nahiko ixilik egingo zituen, museoako aditu bat kanporatzeagatik eta koadro batzuk saltzeagatik izan ez bazen. Izan ere, erakusketa baten antolakuntza zela eta Edward Fry aditua kanporatu zuen Messerreke, zuzendaritzaren indarra nabarmendu asmoz (Richardson, 21).

Bestalde, Kandinskyren pinturak saldu zituen inpresionista eta post-impresionista bilduma batez jabetzeko. Koadro hauek Justin Thannhauser alemaniar arte-merkatariarenak ziren, eta bilduman Picasso batzuk bazeuden ere, oro har, nahiko heterogeneoak ziren museoaren bildumari ondo egokitzeko. Bestalde, Thannhauserrek bazuen apeta berezia, alegia, bere koadroak urrezko brokadoetatik eskegitzea eta museoak amore eman behar izan zuen horretan ere.

Bitartean, Peggy Guggenheimek bere bilduma —Mende Honetako Arte-bilduma— Veneziako *palazzo* batean ezarri zuen. Peggyk memorialea eratu nahi zuen Palazzo Benier dei Leoni deritzon etxe veneziarrean. Hala ere, dirurik ezean, inork ez zezakeen bere gain hartu bildumaren ardura.

Orduan, Messer agertu zen. Eskaintza honako hau izan zen: Peggyren pinturak oraingoz Guggenheim Museumen erakutsiko ziren, harik eta bilduma biek bat egin arte. Peggyk ezin zion uko egin halako eskaintzari.

Peggy New Yorkera iritsi zen 1969an bere bildumaren erakusketa ikusteko osabaren museoan. Ez zuen batere atsegin. Messerrek esan zion azalezko garbiketa bat egingo zietela koadroei, baina egia esan, goitik behera berriztatu zituzten. Kon-

tua zen Picassoren koadroak, adibidez, bernizatu zituztela, eta hori Peggy eta artisten nahien kontrakoa zen, dudarik gabe (Richardson, 21).

Peggyk erabaki zuen osabaren bildumarekin bat egitea, baina baldintza bat ezarrita: bere bildumak Venezian egon beharko zuen, ezer kendu barik, ezer erantsi barik. Hala aitortu zion Peggyk berak John Richardson artezaleari Venezian.

Peggy 1979ko abenduan hil zen. Biharamunean Messer Venezian zegoen. Messerrek berehala bidali zuen kanpora Peggyren arte-aditua, eta bildumaz arduratzen hasi zen. Inori ez zitzaion bururatu gorpua erretzeko baimenik eskatzea eta Peggyren gorpua izoztuta egon zen hilabete batez. Hortaz, ez zen elizkizunik burutu. Bestalde, Peggyren familiak ez zuen txakur txikirik jaso heredentziatik (honek denetara 40 milioi dolar egin zuen) (Richardson, 21).

Peggyren itzala *palazzo*-ko xarmarekin batera ostendu zen, inondik ere. 1990eko apirilean *palazzo*a berriro ireki zen. *Palazzo* berria ez zen jadanik Peggyren *palazzo* berdina. Gelak zuri-zuriz pintatuta zeuden. Calderrek egindako ohearen burua, Peggyren gelan zegoena, beirina batean ezarri zuten. Hainbat pintura bernizatuta zeuden, zeharo margulduta.

Peggyren ondorengoak biziki mindu ziren geroago *palazzo* hartan erakusketa bat egin zutelako arte garaikidea aspaldiko klasikoen aurrean paratzeko. Bestalde, Guggenheim museokoek zenbait pintura hartu zuten munduan zehar erakusteko eta horrek amorru eman zien familiakoei, Peggyren nahiei trazioa egin zietelakoan (Cembalest, 92).

Horrela zeuden kontuak Krens heldu zenean, eta komeni da jakitea Krens Messerek gomendatu zuela zuzendari berria izateko.

Bada, Krensek Messeren okerrak areagotu egin ditu, familiakoen ustez, zeren *palazzo*-an erakusketa bitxiak antolatzeaz gain, beste etxe bat erosi nahi izan baitu, Venezian museo erraldoi bat ezartzeko (Cembalest, 92). Honi lotuta, hotel eta turistentzako gozagarriak eraikitzeaz arduratuago azaldu da Italia aldean, artearen bilakaeran baino.

Honaino, bada, Guggenheim museoaren/museoen bilakara. Museoen bikoiztasun honek badirudi aniztu egingo dela datozen urteetan, atzerriko proiektuei erreparatuz gero. Nola-

nahi ere, New Yorkeko Guggenheim museoa irekita dago, bisitaririk ez du eskas, eta agian horrek salbatuko du Krensen burua. Eginkizun horretan kanpoko gobernuen diru-laguntzak ez dira alferrikakoak izango. Euskaldunok badakigu honen berri, bai horixe.

KRENS

Guggenheim museoko zuzendariak beste inork baino irrika bizia sortarazi du Ameriketako arte-kontutan. Oraingo honekin ez da artista izan, Wrighten antzera, polemikaren ardatza, museoko zuzendaria baizik. Horrek ohartarazi beharko liguke zuzendari eta kudeatzaileen garrantziaz gaurko arte-munduan.

Bada, Krensi inor gutxik ukatuko dio langile amorratua dela asteen 80 ordu egiten baitu beharrean (Cembalest, 88). Edonora joanda ere, ordenagailu txikia darabil aldean, eta beti aurkitzen du tarterik kontu hau edo hori zuzentzeko. Baita aireplanoetan bere 1,95 metro —gaztetako saskibaloi zaletasunaren adierazgarri— nola edo hala kokatzeko ere, Krensen bizitza pribatua ez da batere arranditsua. Manhattango etxe berean bizi izan da hamabi urtetik gora eta unai-prakak eta korrika egiteko zapatilatxoak erabiltzea du gogokoan. Zenbait afaritari baseballeko gorraz azaldu ere egin da eta Unibertsitateko campusean motorraz ibiltzen da (Current Biography, 314).

Thomas Krensen New Yorkeko Brooklyn auzoan jaio zen 1946an. Unibertsitateko ikasketak Williams Collegen egin zituen, eta handik hona leku horri atxekita egon dira Krensen lorpenik esanguratsuenak. Aipatu behar da Unibertsitate horretatik bertatik irten direla azken urteotako museo-zuzendari asko Estatu Batuetan, haien artean Michael Govan, Guggenheimeko zuzendariorde gaztea (30 urte). Bada, hantxe lizentziatu zen Krens ekonomia politikan 1969an. Hala ere, arte ederretako klase asko hartu zituen graduatu baino lehenago.

Horren ondoren, bidaiak European, lanak inprimari tailer batean, eta berriro ikasketak Estatu Batuetan, arte ederretako masterra burutzeko, inprimagintzari arreta berezia

emanda, hain zuzen ere. Hau State University of New York, Albany egin zuen. Geroago, arte ederrak irakatsi zituen Williams Collegen eta arkeologia-indusketetan ibili zen. Williams Collegen egindako karrerari esker, bertako museoko zuzendari izendatu zuten 1980an.

Erakunde honetan Krensek bisitariak, bazkideak, eta aurrekontuak inoiz baino handiagoak izatea lortu zuen. Erasokor eta berriztailetzat zeukaten garai hartan ezagutu zutenek eta museoetako Clint Eastwood deitzen zioten (Current Biography, 312). Hala ere, kritikak ere jaso zituen, batez ere, bilduma ikuslego zabalari begira antolatu zuelako, ikasleen beharrak zaindu barik.

Bere prestakuntza sendotzeko, beste master bat ere lortu zuen Williamseko zuzendaria zela, enpresa-zuzendaritza publiko eta pribatuan, hain zuzen ere. Honako hau Yaleko School of Organization and Managementen eskuratu zuen. Bestalde, garai hartatik datorkio Krensi izugarrizko garrantzia ematea ordenadoreen erabilerari arazo enpresarialak konpontzeko.

Honenbestez, 1988an Krens Guggenheimerera heldu zenean, bi lorpen zituen ezaugarritzat: Mass MoCa, Massachusettsko «megamuseum» eskerga sortzea eta Williams College Museum of Art-en zortzi urte egin izana. Krensek honela esan zien Guggenheimeko batzordeari bere karguaz jabetzeaz: «Bilduma gorde eta museoak era kontsebakorrez kudeatu, edota erasoari ekin. Erakunde bizia nahi baduzue, aldaketa anitz egin behar dira, eta honek txundigarria suertatu behar du» (Prudhomme, 36).

Guggenheimen sartu berritan, ez dirudi oso trebe ibili zenik arte-kontutan. Williams Collegen egindako erakusketa bat, Alemaniako pintatzaile garaikideen erakusketa, hain zuzen ere, Guggenheimerera eraman zuen 1989an eta oso kritika txarrak jaso zituen. Geroago, ordea, kritika hobeak jaso zituzten Guggenheimeko beste erakusketa handi bik, Jenny Holzer eta Mario Merzenak, hain zuzen ere.

Gaur egun, berriz, Krensek inoiz baino indar handiagoa hartu du bere proiektuak aurrera eramateko. Museoak hainbat proiektu abiatu ditu, hala nola, New York, Massachusetts, Italia, Austria eta Euskal Herrian. Krensek estrategia erasokorrek erabiliz finantzaketan eta marketing-alorrean, museoan

kudeaketa-moduak birrasmatu ditu. Oro har, Krensek negozio gizona erajakituria zorrotza eta ohizko arte adituaren ezagutza bereganatzen ditu.

Krensen asmoa artea herriratzea da. Horretarako bilduman daukan artea ahalik eta leku gehienetara eraman behar. Politika honen sustatzaileak atzerriko gobernuak dirateke, batez ere europarrak, hauek EEBB-eko gobernuak baino askoz ere diru gehiago gastatzen baitute kulturean. Honetaz aipatu behar da New Yorkeko museoak aurrekontuaren % 1 jasotzen duela diru iturri publikoetatik. Europako museoaren aurrekontua turistaren diruaz eta nazioarteko ospeaz berdintzeko esperantza dute.

Krensen taktikak negozio-gizonarenak dira. Guggenheimen lan-taldea lehen baino % 20 handiagoa da, antolakuntza-lanak sendotzeko. Gaur egun museo gehienek langileak eta orduak murriztu dituzte, baina Guggenheimek handitzeari ekin dio, arriskuak eta joera berriak nahastuz. Honen adibide erakusketen murrizpena izango da, seguruenik urtean bospasei erakusketa erraldoi antolatuz, horrela aurrekontuari lasaitu bat emateko eta jendearen arreta ez sakabanatzeko.

Krensek sarri askotan aipatzen ditu museoaren bilduma 3 bilioiko stock gisa, eta lasai-lasai esaten du bertako artelanak maximizatu beharreko aktiboak direla (Wrong for Wright, 53). Bestalde, ezer gutxi egin du administrazio-lanetik kanpo, hala nola, idaztea eta bilduma sendotzea. Nolanahi ere, Williams Collegen segitzen du XX. mendeko arteari buruzko ikastaroa ematen eta erakusketako programak idazten.

Okerrena agian, museogintza multimedia-idea bati atxekitzea izan da, hotel eta turismoko harremanak zaindu asmoz. Massachusettseko esperientzia lekuko: Krensek ondo zaindu zituen politikariekiko harremanak New Yorketik abiatzen zen behinolako trenez-zerbitzua berriro ezartzeko esperantzan; museoaren ondoko espazioa berriztatzeko asmoa zeukan erabilera komertzialerako luxuzko hotelak, jatetxeak, eta turistentzako dendak, bulegoak eta batzar-etxea barne. Artistentzako auzune bat antolatzeko asmoa ere azaldu zuen (Current Biography, 313).

Kritikoen ustez, Krensek ikuskizun itzela antolatu du, Wrightek diseinaturiko eraikuntza 1959an ireki zenekoa baino han-

diagoa. Guggenheim museoak tradizioa hautsi du eta jadanik ez da artelanak gorde eta ikertzeko leku soil bat. Esperientzia honen arrakastak erabakiko du beste museo batzuen etorkizuna. Dena den, artezale guztiek espero dute Krensek museoaren muinak ere berriztatzea, hau da, arte-zaintzailearen zuhurtasun, sakontasun eta ikusmen zorrotza erakusteko gai izatea.

ERAIKINTZA

Guggenheim museoaren egoitza nagusia New Yorkeko 5th Avenuen dago. Hantxe izan dira lanak bi urtez (1990-1992) Fran Lloyd Wright amerikar arkitekto ameslariaren proiektua berriztatu eta zabaltzeko. Proiektua 48 milioi dolar kostatu da eta museoaren espazioa bi herenez handituta gelditu da atzean erantsi zaion hamar bizitzako etxe baten bitartez.

Bestalde, Guggenheim museoak beste adar bat zabaldu du New Yorkeko Sohon, hiriaren erdi aldean. Honetan erakusketak egiteko espazioaz gainera, zenbait bulego egokitu dira. Arita Isozaki arkitektoaren diseinuari jarraikiz egindako etxe honen zabalpenak 5,5 milioi dolarreko kontua ekarri du. Gainera, museoak beste etxe bat erosi du Manhattango mendealdean, kontu teknikoadministratiboak zuzentzeko eta biltegi gisa. Berrikuntza guzti hauek museoaren espazioa hiru-koiztu egin dute.

Thomas Krens, Guggenheim museoko zuzendariak prentsaurrean adierazi duenez, museoak ez du aurrera eraman zabalkuntzaren lehenengo proiektua (Johnson). Horrela, eraskinaren proiektuan zegoen espazioaren erdia galdu da, Wrighten eraikinari itsusi ez egiteko. Denetara, 10.000 oin karratuko espazioa galdu da, gehiena bulegoak, biltegia eta kontserbaziorako aurrikusita zegoena.

Gwathmey & Siegel arkitekto-taldearen ardurapean burututako proiektu honek laudorioa zein gaitzespena sortu du, azken urteotako polemikarik biziena piztuz Estatu Batuetako artezaleen munduan. Adituek ausardia eta kemena ezagutu diote proiektuari, eta egia esan Wrighten museoa inoiz baino biziago suertatu da barrenetik, museoa bera artelan, maisuak planeatu zuen bezalaxe.

Kritikak ondoko eraskinari zuzendu zaizkio. 80ko hamarkadan, Thomas Messer, Guggenheim museoko zuzendariak zabalkuntze-lanak proposatu zituenean, ekin zion esanez Guggenheim osoa toki bakar batean funtsatu behar zela, erakundearen nortasuna zaintzeari begira. Oraingo eraskinekin museoaren identitatea sakabanatuta gelditu bada, askok galdetzen dute, Hilton Kramer arte-kritikariak bezala, ea zergatik eraiki behar zen beste eraskin zatar hori jatorrizko museoaren atzean.

FINANTZAKETA

Azken urteotako proiektuak finantzatzeko, Guggenheimek 54,9 milioi dolarreko kreditu bat eskatu dio Swiss Bank banketxeari. Ohizko irtenbidea dute hau erakunde artistikoek, baina Guggenheimen ez du behar beste ondarerik hainbateko mailegua bermatzeko. Horren ondorioz, museoak 31 milioi dolarreko bermea ziurtatu du bere ondarea erabiliz, baina gai-nontzekoa ordaintzeko museoaren bilduma arriskutan egon daiteke. Kontu hau ulertzeko, ikus dezagun zertan datzan Guggenheimen kreditu hori.

Ongizateko erakundeek, hala nola, eritetxe, eskola eta museoek honelako kredituak eskatzen dituzte korritu txikia ordainduta. Guggenheimen kreditua erantzunbehar orokorreko kreditua da, hipotekarik nahiz bermerik gabe, eta exentzio fiskala dauka. J.P. Morgan balore-inbertsioetarako enpresak emana da, Trust for Cultural Resources, New Yorkeko agentzia batek prestatua. Kreditua honela zehaztuta dago: 13,5 milioi dolarreko kopuruari %7,1 korritu finkoa ezarri zaio; eta 41,4 milioi dolarreko kopuruari korritu ezberdinak ezarri zaizkio, batezbestekoa %3,5ekoa bada ere (Cembalest, 90).

Nola konbentzitu zuen Guggenheimek Swiss Bank dirua bueltatuko zuela? Dokumentazioa, epe luzerako plana, operazioen etekinak, diru-laguntzen zerrenda azaldu behar izan zizkieten banketxeari. Museoak espero baitu diru-sarrerren iturri bakoitza hobetzea, bazkideengandik hasita, jabetxe, sarre-
ra-txartela, eta oroigarrien salmentaraino. Bestalde, diru pixkat lortzeko, museoaren areto batzuk diru-emaileen izenez bataiatzeko asmoa dute.

Behin-behineko aurrekontua eginda, Guggenheimek honako zenbakiak plazaratu ditu: New Yorkeko egoitza nagusiko bisitari-kopurua 750.000koa izango da. Honelako jendetzak 3-4 milioi dolarreko etekina emango du. Honek esan nahi du museoa zabalik egon zen azken urtean baino milioi bat dolar gehiago espero dutela ateratzea jendearen patrikatik. Horretarako, 5th Avenuko museorako sarrera-txartela 4,50 dolarretik 7 dolarrera igo dute (Kimmelman, 27).

Bazkideak bikoiztu egin dira azken bi urteotan eta haiengandik jasoko den dirua milioi dolarretik gorakoa izatea espero da (diru-sarrera hau azken urteotan milioi erdiraino ez zen iristen). Sohon irekitako etxeari buruz diote, bada, bertako jatetxea oso arrakastatsua izango dela eta orotara, 2 milioi dolarretik gorako etekina atera behar dutela urtero erakustareto horretatik (Cembalest, 90).

Honaino, Krensen taldeak emandako azalpenak.

Dena den, kreditua hartu duten museo guztiek ez dute aparteko bermerik eta kontuak gaizki irtenez gero, bilduma arriskuan dagoke. Adibidez, Bostongo Arte Ederretako Museoak halako zerbait egin behar izan du zabalkuntza-proiektua burutzeko dirua eskura ezin izan duelako. Bostondarrek langile-pilo bat kaleratu, programa mordoska bertan behera utzi, eta Nagoya hiri japoniarrarekin akordio bat sinatu behar izan dute bildumaren lan batzuk Japonen errentan ipintzeko (Kimmelman, 27).

Honelako zerbait gerta liteke Guggenheimen kontuak ondo irtengo ez balira. Izan ere, ez dago idatzita inongo eraskinetan Guggenheimeko artelanak salgaiezinak direnik dirua bermatzeko. Kasurik txarreanean, artelanak salduko lirateke. Salbuespen bakarrak honako hauek dira: erosterakoan salmenta debekatuta zeukaten objektuak nahiz halako baldintza bereziak beren gainean dituzten lanak.

Kasurik txarreanean, museoa epaitegira eramango lukete. Ongizateko erakundeak ez baitira legez bankuporrotera behartu. Horiek horrela, Guggenheimek kreditariengandik bila lezake babesa, bankuporroteko lege federalen mende. Adituek diotenez, epaileak museoari utziko lioke aukera bere zorrak nola ordaindu erabaki lezan. Honenbestez, Guggenheimen esku egongo litzateke ordainketa-modua (Cembalest, 91).

Krensen arabera, museoak ez du izango ezein artelanik saldu beharrik, Guggenheimen aktibo eta likidoa zorretan hartutako dirua baino handiagoak direlako. Aktibo likidoa 48 milioi dolarrekoa zen 1992an eta hor sartuta dago 32 milioi dolarreko ondarea (Cembalest, 91). Guggenheim erakundearen indarra horretan datza eta hortik hartzen du konfiantza zorrari aurre egiteko. Izan ere, batzordea, Guggenheim familiaren itzala, eta museoren eraikuntza bera ere nahikoa berme dira museoko arduradunen iritziz.

Nolanahi ere, kasurik okerreanean pinturarik salduko ote litzateke? Galdera asaldagarri horri ezezko borobila eman dio Guggenheimeko jendeak... aldi berean eranstezko legezko administratzaileen batzordeak ez beste inork ezin lukeela halako erabakirik hartu. Eduki ere, legezko administratzaileek ez daukate inolako konpromezurik museoaren zorrak ordaintzeko, haietariko batzuek diruz laguntzen badiote ere.

Esate baterako, iaz Akira Tobishima, Tobishima korporazioko buruak 5 milioi dolar eskaini zituen museorako. Legezko administratzaileen taldea nazio batzuetan sakabanatuta dago eta batzuk sartu berriak dira, hala nola, Jacques Hachuel, Espainiako arte garaikidearen bildumarik handienaren jabe, eta Reiner Heubach, enpresari alemaniarra (Cembalest, 91).

«DE-ACCESIONING» (BILDUMAREKIN TRUKEAN)

1990eko maiatzean, Guggenheimek enkantean jarri zituen hiru koadro: Kandisnkyren *Fugue* (1914), Chagallen *Anniversaire* (1923), eta Modiglianiren *Garçon à la veste bleu* (1918). Helburua honako hauze zen: 30 milioi dolar jasotzea Giuseppe Panza di Biumo italiar baten bildumaren 300 ale erosteko. Honi «de-accessioning» esaten zaio arte-munduko jargoian.

Koadro horien salmenta ez dute abegi onez jaso Estatu Batuetan. Museoak 160 Kandinsky ditu, baina arte-kritikoek diotenez, Kandiskyren *Fugue* hori, garai goiztiarretako maisu-lan horietako bat da. Ernst Beyeler, Suitzako arte-merkatariak esan zuen 20 milioi dolar ordaindu bazituen ere, beste horre nbeste ordainduko zukeela koadroaz jabetzeko (Richardson, 18).

Azkenean, hiru artelan horiek 47,3 milioi dolar egin zuten enkantean, Sotheby's enkante-etxearen kalkuluaren gainetik. K rensek esan du ez duela operazioa sarritan egingo, Panzaren bildumaz jabetzeko kontu soila izan dela. Hala ere, Ameriketako ozpinduta daude Krensekin, honek aukerarik eman ez delako koadroengatik eskaintza egiteko, koadroak Estatu Batuetako museo batean geldi zitezten.

Giuseppe Panza di Biumo konte italiarra Ameriketako arte minimalistaren bilduma handi baten jabe da. Krensen helburua gerraosteko artelanei arreta handia ematea da, bilduma eskerga honen bidez.

Panzaren bildumaren erosketak kritika gogorrak eragin dizkio Krensi. 210 lan erosi dituzte hiru koadroen salmentaren bitartez, baina badira beste 105 pieza italiar Varesen duen Villa Litta erakustekoak. Horrez gain, 40 lan daude, oraingoz, paperan baizik ez direnak, planu edota ziuurtagiri gisa. Museoako arduradun batek esan duenez, Panzarengandik jasoko diren lan guztiak, epe luzean, 650 izango dira (Johnson).

Krensek honela azaldu du 60 eta 70eko hamarkadetako abangoardisten erosketa hau: estilo bereko lan-piloa erositako museoaren ospea handitu egingo da, museoek bilduma handietan hartzen baitute oinarri (Johnson). Horrela, berak espero du beste bilduma garrantzitsu batzuk museora erakartzea. Gainera, bilduma handi honen erosketak aukera on bat eman dio ikusleari mende honetako 60 eta 70eko hamarraldiko artea patxadaz ikusteko, eguneguneko erakusketen presatik urrunduta.

Panzaren bilduma ere ez dago oso argi antolatuta. 60ko hamarkadan italiarrak zenbait artelanen planu, agiri, etab. merke zurrian erosi zuen eta orain pieza berriak eraikiarazi ditu zenbait kasutan artistarekin kontsultatu barik. Guggenheimek erositako lan horiek ez ziren oso fidagarriak eta museoak badaezpadako pieza guztiak suntsitu eta berreraikiko zituela iragarri zuen (Cembalest, 89).

Era berean, Guggenheimek lanak nola gorde eta erakusketak nola antolatu erabakitzekeo artistei lankidetzan aritzeko eskatzen zien. Honetan ere, istiluak sortu ziren, bada, Donald Juddek ez baitzuen lagundu nahi. Artista honen hitzetan, Panzak berari erositako lan batzuk haren tailerrean eginak bazi-

ren ere, gainontzeko guztiak Panzaren manipulaziotik eta ezjakinetik sortuak ziren (Cembalest, 90).

Krensen iritziz, aurrerantzean Guggenheimek ez du hainbeste diru ordaindu beharrik artelanak jasotzeko: ia denak opari izango direlakoan dago eta (Cembalest, 90). Egia esan, museoak halaxe jaso ditu bildumako 6.000 artelanak. Peggy Guggenheimen bildumatik kubismoa, surrealismoa, espresionismo abstraktoa; Solomon Guggenheimen eskutik abstrakzioa; Thannhauser alemaniarren gordailutik inpresionismoa eta post-impresionismoa. Oraindik orain, Picasso, Monet, Cezanne, Maneten lanak jaso dituzte alemaniarrengandik Mrs. Tannhauseren heriotzatik hamar urtera. Beste asmo bat museoan erakusten dituzten artisten lanak jasotzea da, zuzen-zuzenean. Horretarako akordio bereziak sinatuko dituzte artista bakoitzarekin.

FRANKIAK

Guggenheim museoak arazo larriak ditu bere artelanei leku egiteko. Oro har, 6.000 artelaneko bilduma osoaren %3 soilik plazara dezake aldi berean. Hori dela eta, Krensen ideia berria bilduma mundu osoan zehar zabaltzea da. Horretarako, hainbat adar zabalduko ditu herri ezberdinetan, bildumaren parte nagusia New Yorken geldituko bada ere.

Kontu honen gakoa hauxe da, pinturak hartzen dituen gobernuak bere gain hartu behar dituela museoaren eraikuntza eta frankiaren gastuak. Horren ordainez, herriari on egingo diote bildumaren ospeak eta ikusleen —batez ere turisten— diruak.

Ameriketako arte-kritikoez Krensi egotzi diote honek Ameriketako bilduma makalduko duela. Askoren iritziz, oso kaltegarria izango da pinturak leku batetik bestera garraiatzea, artelanak hauskorrak direlako. Krensen defentsa honelakoa da: artelanik hauskorrenak ez dira New Yorketik mugituko, eta bestalde, alde aurretik antolatuko dira erakustaldiak, horrela nazioarteko babesleak errazago lortzeko.

Nolanahi ere, orain arte Krens leku batetik bestera ibili da babesle bila. Bilboko kasua aparte utzita, Austriakoa da aipa-

garriena. Orain dela bi urte Krens Salzburgo, Austriara joan zen, bertako agintariekin tratua egin asmoz. Proiektua erraldoia zen: arrokatik bertatik ateratako museoa eraikitzea, 80-90 milioi dolar ordainduta.

Hala ere, inguruko jendeak zain txarra hartu zion proiektuari, turismoak ingurugiroari kalte handia lekarkiokeelakoan. 600.000 bisitari urtero ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula hiri jendeztatu baterako, batez ere, udako musikaldian leporaino betetzen dela kontuan hartzen bada (Antartic, 39).

Antzeko proiektuak iragarri ziren Graz eta Vienan buruzteko, baina gehienetan bertako politikoen ahoberokeriak baino ez ziren suertatu.

K rensen asmoetan Venezia ere sartzten da. Krensen taldeak Kanal Handiaren ondoan dagoen Dogana dei Mari, Ernazimenduko aduana-etxe bat erabili nahi du Guggenheim Museum Venice delako bat sortzeko. Hala ere, urteak joango dira ezer lortu baino lehen, bada, aduana-etxea irekita dago eta gobernuko bulegoak direnez gero, proiektugileek beste leku bat bilatu behar dute arazo artistikoetarako.

Oraingoz, behintzat, Krensek Peggy Guggenheimen *palazzo* veneziarra kudeatzeaz etsi behar du, eta ez arazo barik, zeren Peggyren familiak auzira eramanez baititu Guggenheim museoko arduradunak milioi bat dolar eskatuta, *palazzo*-aren berrikuntza-lanak direla kausa.

Arazoa hasi zen Peggyren ondorengoei iruditu zitzaizenean andre artezaleak ez zituzkeela gustokoak izango bere *palazzo*-an egindako berrikuntzak. Hauen artean arte primitiboa baztertzea, Peggyren amari egindako oroitarria kentzea, eta sareran elastikoak eta posta-txartelen salmenta antolatu izana ageri dira, Peggyk leku hura bere artista kuttunen maisu-lanez apainduta zeukalako (Cembalest, 91).

Michael Govan, Guggenheimeko zuzendariordearen arabera, gatazka harreman publikoei buruzkoa da. Itxura denez, Peggyk ez zuen ezer idatzita utzi familiak leporatutako kontuei buruz. Utzi ere, ez zuen inolako bermerik utzi *palazzo*o zaintzeko. Guggenheim museoak hogeit hamar milioi dolar eraldi ditu bere patrikatik berrikuntza-lanak burutzeko: egurats-kontrola, berriztapena eta kontserbazioa (Cembalest, 91).

Zaldiko-maldiko honi jarraikiz, Krensek Osakako agintariei egin zien beste proposamen bat hiri japoniarrean Bilbokoare n antzeko museoak eraikitzeke. Museoak bat egin behar zuen aireportu berri eta kontzertu-aretoarekin, baina azkenean japoniarrek uko egin zioten proposamenari, kolonialismo-usaina zeriolakoan (Antartic, 40). Nolanahi ere, ez dirudi Guggenheimen frankiak harrera txarra jaso duenik munduan zehar, arte-munduko Disneylandia edo McDonalds bat bailitzan. Govanek dioenez, munduko leku guztietatik egin diete proposamena, Antartidatik izan ezik.

MASSACHUSETTSEKO BILTEGI-MUSEO ERRALDOIA

Guggenheim museoak atzerrian ez ezik Estatu Batuetan ibili da bezero bila. Badago proiektu erraldoi bat North Adams, Massachussettsen, museoari beste adar bat —biltegi modukoa, batzuen ustez— emateko. Mass MoCa deritzon proiektu honetarako Krensek estatuaren finantzaketa bilatu nahi zuen, Guggenheimerak sartu baino lehenago saltsa horretan zebilelarik. Museoak 1990ean irekitzekoa zen eta Guggenheimerekin batera aritu behar zuen zenbait erakusketa antolatzen. Helburu ofiziala, munduko museoarik handiena eraikitzea zen XX. mendeko azken urteetako arteari dagokionez.

Proiektua geldiarazita dago, Massachussetseko gobernuaren adituek ez baitute argi ikusten nondik irtengo diren museoak arduradunek kalkulaturiko 21 milioi dolar bisitarien emarientan. Bertako agintariek eten bat egitea erabaki dute museoari eman beharreko diruan 33 milioi dolarreko kreditua ordaintzeko proiektuaren kostearen erdia.

Gobernuak esan du diru gehiago eman baino lehen arte pixkat bilatu behar dutela museoan erakusteko. Izan ere, erakusteko diren artelan gehienak zenbait urtez mailegutan utzitakoak dira, eta bilduma iraunkorrik ez da ziurtatu. Krensek Mass MoCako batzordean zeukan kargua utzi du eta Guggenheimerak adierazi du arretaz aztertuko dituela Massachussetseko museoak zuzentzeko eskabideak (Cembalest, 91).

Bitartean, hortxe dago Bilboko Guggenheim museoak, abiada bizian bultzatua. 1989ko maiatzaren 29an Bilbao hilabetekak

rian Joseba Arregi Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilariak ideia hauek azaltzen zituen politika kulturalaren garrantzia azpimarratzeko: «...ha sido ella [la cultura] el medio capaz de reactivar la industria; el imán que ha atraído a 108 inversores... la recuperación industrial y la cultura caminan juntas. De manera que invertir en cultura está siendo un requisito económico futuro de la futura ciudad [...] Los políticos alemanes y franceses, en ciudades como Colonia, Frankfurt, Berlín, Stuttgart, París, Avignon, Montpellier, etc., lo están aplicando desde sus instancias de poder... Este es el camino que ha de emprender Bilbao, que ha emprendido ya...» (Bilbao, 1). Zuzen ala oker dabilen, geroak esango du, beti bezala.

ERREFERENTZIAK

- ANDERSEN, Kurt: Finally doing wright for Wright. *Time*. July 6, 1992, 64-65 or.
- ARREGUI, Joseba: La cultura, reactivador de la economía. Bilbao. 29 Mayo 1989, 1 or.
- CEMBALEST, Robin: Everywhere except Antartica? *ARTnews*. Dec. 1991, 3940 or.
- CEMBALEST, Robin: The Guggenheim's high stakes gamble. *ARTnews*. May 1992, 84-92 or.
- DAVIS, John Hagy: The Guggenheim: an American epic. New York, 1978.
- GOLDBERGER, Paul: The liberation of the Guggenheim; one of the great buildings of the 20th century is finally set to reopen - tamed on the outside, but within, unleashed and allowed to soar. *The New York Times*. June 21, 1992, 1 or.
- GUGGENHEIM, Peggy: Out of thid century: confessions of an art addict. New York, 1979.
- JOHNSON, Ken and Brooks Adams: Starship Guggenheim. *Art in America*. Sept 1992, 106-118 or.
- KIMMELMAN, Michael: At the Guggenheim, bigger may be better; a newly expanded and invigorated museum prepares to embrace Soho, Bilbao, the world. *The New Yort Times*. June 21, 1992, 27 or.
- McGUIGAN, Cathleen: Do the Wright thing. *Newsweek* June 29, 1992, 58-61 or.
- MORITZ, Charles (Editor). *Current Biography*: April, 1989, 311-314 or.

PLAGENS, Peter: The man who grew too much? *Newsweek* June 29, 1992, 62

PRUDHOMME, Alex: The CEO of Culture Inc. *Time*. Jan 20, 1992, 36-37 or.

RICHARDSON, John: Go go Guggenheim. *The New York Review of Books*. July 16, 1992, 18-22 or.

SALMON, Karen: Guggenheim expands at home and abroad. *Architecture*. August 1992, 25 or.

WISEMAN, Carter: Born again: thirty-three years after it opened, the Guggenheim is again New York City's most controversial building. *Architectural Record*. Oct 1992, 100-113 or.

WRONG FOR WRIGHT: THE GUGGENHEIM. *The Economist*. Jul 4, 1992, 78-79 or.

GU GU GUGGENHEIM

Eromenaren laudoriotan

JOSEBA ZULAIKA

Urteak daramatzat aipatzen: «Harry Frank Guggenheim Fundazioari zor diot lan hau burutzeko diru-laguntza». Anti-Guggenheim izatea ez dagokit bada inondik ere. Zorragako lana uztea erabaki nuenean, beka bat eskatu nien eta 1985-90 urteetan euren kontura bizi izan nintzen; bertako jendearekin harreman onak besterik ez ditut izan. Anti-amerikarra naizenik ere ezin esan, hementxe ikasi bainuen urte-tan eta hementxe bizi bainaiz gustora Nevadako basamortuan.

Beraz, orain pare bat urte entzun nuenean Solomon Guggenheim Museoak (niri lagundutakoaren familia berdinekoak, nahiz eta erakunde desberdina izan) Bilbon sukurtsal bat eraiki behar zuela, arretaz jaso nuen berria. Baina proiektuaz han-hemenka galdetzean, bazirudien inork ez zekiela ezer. Laister entzun genituen kontra hitz egin zutenaren oihartzu-

nak, Oteizaren ohizko iskanbilak, eta abar, eta saltsetan aritzea atsegin ez dugunok nahiago izaten dugu horrelakoak ahaztea. Baina erabat ahaztea gero eta zailagoa zen. Egun batean etxean jasotzen dudana *New York Review of Books* aldizkarian bertan, hemengo intelektual kritikoen artean aldizkari-rik zabalduenetako eta errespetatuenetakoa, bere azalean letra handienaz zekarren «Guggenheim Hype» (bere egiazko balioa baino zarata askoz handiago duen gauza harroputzari esaten zaio «hype»). Bertan John Richardson kritikoa ezagunak idatzi luze demoleadore bat zekarren Guggenheim eta bere zuzendari Krensen aurka, «Go Go Guggenheim» izenburuarekin. Gogoia lurrera erori zitzaigun hura irakurtzean. Eta gero, begiak zabaltzera beharturik jadanik, beste aldizkarietan antzeko zalantzak eta kritikak ikusi ditugu.

Bilbo New Yorken parodia artistiko txiki bat egitekotan, denok Guggenheimen alde egon beharko genuke. Nahitaezko dira elkarren erferentziak gaur eguneko mundu intelektual eta artistikoan. Edozein obra beste norbaitenaren oihartzun, ispilu, kopia, berrasnaketa da. Ez geure betikotasun berdinen alde, baizik eta inoren diferentziaren alde gaudenok, kultura ireki, hibrido, anizkotasunean aberastutakoa nahi dugu.

Baina badirudi, hemen Estatu Batuetako prentsan idatzitakoak irakurri ondoren, museoaren «showbiz» honekin komedia borobila ere badugula esku artean, intriga, abentura, eta zirkoaren elementuak ere falta ez zaizkiolarik.

Adibide bat: Nagoya hiri japoniarrak Bostonentzat suposatu zuena, beste horrenbeste izango omen da Bilbo New Yorkentzat aipatu du *The New York Times*-ek.¹ Guggenheimen antzeko zabalkuntza baten ondorioz *Boston Museum of Fine Arts*-ek porrotegin zuen oraindik orain, eta Nagoyarekin komenio bat egitera behartua egon zen bere zenbait kolekzio errentatuaz aurrera jarrai ahal izateko. Guggenheimen diru estuasunak ikusita, Bilborekin egiten duena antzekoa omen da. Sinets ezinik bezala idazten du *The New York Times*-ek Bilbori buruz: «kulturaliki ambizioso eta arte modernoko museorik ez duen hiria (sic), Guggenheimek persuaditu du dozenaka milioi dolar ordaintzera bere kolekzioko zenbait parte prestatu-rik edukitzearen pribilegioagatik... Ordainez Guggenheimek bere kolekzioa erakusteko espazio gehiago izango du...»² Ez gaitzatela

beti terrorismoaren desastrearekin pintatu euskaldunok. Oraingoan New York beraren defizit artistikoak konpontzera goaz.

Baina ez genuke koadro siniestro baten inpresio beltza sortu nahi. Erasmok zioen bezala, Eromenak ere bere laudorioak merezi ditu, bera gabe ez bailirateke hainbat beharrezko gauza egingo. Gure historiari estetikoki begiratu dioteneak azpimarratu ohi dutenez ere, abenturero eta konspiradore zentzugabeak izan dira euskaldun adierazkorrenak, zerbait gogoangarri egin izan duten bakarrak. Beraz ez gara gu izango, disparate hutsa dirudiela eta, beste gabe, horregatik proiektuari bere posibilitate apartak ukatuko dizkiogunak. Hainbat gauza dira izkututzen zaizkigunak, bai politikoei hala hobe dela juzgatu dutelako, bai Eromenaren designioek erabakita...

* * *

EEBBetako arte-munduak diru publikotik laguntza gutxi jasotzen du, horrek zergak eskatzen baititu. Ameriketara bizi garen bakoitzak dolar baten 65 zentabo ordaintzen ditugu urtean artegintzarako; banda militarretan gehiago gastatzen da artean baino. Bertan diru publikorik ez, eta 1990ean arte-merkatu amerikarra lurjota, Guggenheim Museoak bere New Yorkeko berrikuntza finantzatzeko izugarritzko prestamo-zamak leporatu zituen. Hemengo prentsako artikulua guztiek azpimarratzen dutenez, Krens zuzendari berriaren proiektu faraonikoei esker sartu da Guggenheim zulo horretan, eta denek suertea opa diote.

Krens zuzendariak, beste neurri konbenzionalagoekin batera, inoiz ezagutu ez den ideia genial bat asmatu du bere arazoak konpontzeko: museo frankiak. Hemen «McGuggenheim» bataiatu dituzte, McDonaldsen antzekotasunagatik. Nork erosi? Osaka, Salzburgo, Graz, Viena, Venezia, hauek behintzat nolahalako harremanetan egon omen dira Guggenheimekin, baina inork ez du baietzik eman. Zergatik? Japoniarrek «Guggenheim imperialismoa» leporatu omen zuten. Zenbait europarrek, beste arrazoiez gain, «New Yorkeko minimalistengatik entusiasmo falta txaubinista».³ Espainian ere Madrid, Barcelona, Sevilla, Santander, eta Salamancaren posibilitateak aztertu omen ziren. Azkenik Bilbo etorri omen zen, azkenik baina adoretuen, eta honetxe erosi zuen Krens idea.

Historian zehar lehen aldiz praktikan jartzen dena da museo frankia, eta euskaldunok dugu ohore hori. Bilbo ez dela toki egokia museo horretarako, Guggenheimekoek esan omen zioten euskal politikariei; Carmen Jimenez, Guggenheim eta euskal arduradunen tartekariak ere, zalantza ugari azaldu ditu proiektu honetaz, hemen idatzi denez.⁴ Euskaldunon papera hitzarmen honetan zein izango den *Los Angeles Times*-eko artikulista batek garbi utzi du: Guggenheimek bere berrikuntzarako atera zuen 54,9 milioko prestamoaren interesak ordaindu. Arte-zerrega gisa amerikar bakoitzari 65 peseta inguru tokatzen bazaizkio urteko, euskaldun bakoitzari zenbat milaka duro tokatuko zaizkio Guggenheim eraikitzeko, eta gero zenbat milaka peseta urtero museoaren erosketak eta gastuak ordaintzeko?

Xabier Cilleroren artikulua agertzen duen bezala, Krens museoeko buru denaren gestio guztien inguruan kritika gogorak eta zalantza handiak agertu dira hemengo prentsan. Inork gutxi gogora omen dezake museo-zuzendari bat hainbat nahasketa eta kontrobertsia sortu duenik.⁵ Hilton Kramer-ek *New Criterion*-en zioenez: «Desastre osoa dela besterik ez du frogatu orain arte Krensek.» Kritiko amerikarrek «kolonialismo kulturula» leporatzen diote, «espektakulu entretenigarri ikaragarri bat montatu du», «Estatu Batuetan fabrikatutako artea promozionatzea» beste interesik ez izatea, etab. *Time* edo *Newsweek* bezalako aldizkari popularretan berari dedikatutako artikuluek «Gehiegi Hazitako Gizona?» bezalako izenburuak darmatzate, eta jiggantismoz jotako irudiekin laguntzen dituzte textoak. Bilboren aurreproiektu gisa edo, ezaguna da Krensek Mass MoCA diseinatu zuela lehenago, porrot galanta.

Sinesgaitzak izanik bere proiektu faraonikoak denak ondo irtetea, idazleek suertea opa diote bere abentura finantzeroak ondo irten diezaizkion. Museoetako zuzendari eta zaindari ugari ere, suertea opatzeaz gain, *off the record* urduri agertzen dira Guggenheimen proiektuetaz.⁶ *The New York Times*-ek zioenez, «arteaz baino gehiago, diruaz, botereaz, eta prestigioaz da (Guggenheim) museoa.»⁷

Jakina den bezala, 1980ko hamarkadak diru errazaren aberraste izugarriak ezagutu zituen. Milken, Boesky, eta abar bihurtu ziren negozioetako heroe berriak «junk-bond» bezala eza-

gunak diren fidantza-lokarri errazekin. Larogeiko hamarkadaren sinbolo bihurtu diren zabor-balio hauen aztikeria ezaguna da dagoeneko: kreditu arangilotina besteengan ezarri eta norberarentzako ikaragarrizko fortunak egin haien etekinekin. Arte-merkatua ez zen libre gelditu espekuladore hauen-gandik; eresketa erorria 1990ean bukatu zen arte-merkatuak krak egin zuenean. Zalantzarik gabe, Krens da museo-zuzendarien artean gehien tipifikatzen duena merkatuaren lehentasun hori. Hemengo museo-munduan aspaldian ezagutu den zuzendaririk eztabaidatuena eta gaitzetsiena, horixe da hain zuzen euskaldunok patroi hartu duguna; beste inork ez du erosi nahi izan museofrankiaren proiektu kolonialista; Krens izango da azkenik zer arte erosi eta zer ez euskaldunoi inposatuko diguna.

* * *

«Artea ekonomiaren akuilu» da gure arduradunen lema. Honetarako Frankfurt jarri digute eredu gisa. Laurogeiko hamarkadan, garapen ekonomikoarekin batera hamairu museo berri sortu edo berritu ziren Frankfurten. Artea eta ekonomia zorion betean uztarturik. Haiek egin badute, zergatik ez guk ere? Bilbon ere arteak errekupeazio ekonomikoa berpiztuko duela da gure politikarien ikuspegi futurista. Behar hainbat propaganda eginez gero, edozer sinesteko prest gaude gu, eta agian hala izango da.

Nor gara gu gure aldean ondo informaturik daudenen proiektioak zalantzan jartzeko? Egia esan, apenas dakigu ezer hainbat arazo premiazkoetaz eta isilik egotea litzateke onena. Baina, esperto ez izanik ere, eta arduradunek inor ezertaz enteratu baino lehen beren kabuz ia guztia egin zutelarik, egunkariak irakurtzeari bada ere ezingo diogu uko egin. Horrelaxe dakigu Frankfurt (Alemaniako Banku Federalaren egoitza) eta Bilboren egoerak ez direla hain zuzen berdin-berdinak.

Frankfurt, bere 143 banketxe nazional eta 245 banketxe internazionalekin, Alemaniako finantzen hiriburua da. Honek esan nahi du baita ere, gero eta gehiago, Europako diruen hiriburua dela. Bilboren kasua gutxi gorabehera, ezta?

Frankfurten urtero 300.000 metro karratu gehiago bule-goetarako behar zirela eta, 200 metrotik gorako etxeorrazak egitera eman zioten, bertako ondare artistikoa desegiteko erreparririk gabe horretarako beharrezko zenean.⁸ Eta etxeorrazak bakarrik ez zirela aski yuppi exigentearentzat, zerbait gehiago ere eskaini behar zitzaiola, zerbait «kulturalagoa», eta Munich eta Hamburgo bezala itsaso edo eskia praktikatzeko mendi garairik ez izanik, denbora libre mugatua bertan igaro behar, eta museogintzari eman zioten.

Hala eratu zuten beren «Museumsufer» proiektua («Museoen ibaiertza»): Marin ibaiaren bi aldetan, estazio zentraletik hiria-
ren erdigunera, hamairu museo ilaran eraiki edo eraberritu zituzten. Historia, Prehistoria, Juduen Historia, Paleontologia, Goethe, Rothchild, Arkitektura, Zinema, Etnologia, Posta, Musika, Artisautza... denek dute beren museoa. Okindegia-
rena ere egitekoak dira, eta, hain arrazionalki guztia planeaturik egonik, Becker-Koch idazlea urduri dago bere egoitzak inguruan dituen Poliziak ere bere Museoa izango ote duen.

Museo guzti hauen eraikitzearen kostuak? Hogeita bost mila milioi peseta. Bilboko Guggenheimen proiektuari botatzen zaion kostua hogeita mila milioi izan da. Proiektzio eta kostu errearen arteko desberdintasunak kontuan hartu gabe ere, Bilbokoa Frankfurteko guztiak bezainbat kostako dela dirudi. Gure ezjakintasunean aldizkariak irakurriz ateratzen dugu hau. Baina garbi uzten du zenbaiterainoko inbertsioa suposatuko duen euskal ekonomiarentzat.

Alemanian artegintzarako presupostu handienak Frankfurtek omen ditu eta hala ere lehengo urtetik drastikoki murriztu ditu kulturarako diruak: laurehun milioi marko gutxiago.⁹ Uztarturik izanik ere, lehenik ekonomia, gero arteare n eraskinak. Jakitekoa izango litzateke museogintzari euskaldunok baino beren presupostuen zati handiagorik inork munduan eskainiko dion datozen urte hauetan. Zenbaki hauek gonbaratzean, Krensi oraindik zaila egin behar zaio Bilboren eskuzabaltasuna zenbaterainokoa izan den sinestea, arteare n amorioagatik.

Frankfurtek egin badu, zergatik ez Bilbok? Guztia posible dela frogatzeko, horretarako dira biabilitate-estudioak. Eta Bil-

boko Guggenheimek ere baditu bereak. Hauen arabera urtero sei erhun mila bisitari izango omen ditu museoak; hau da, New York bertako Guggenheimera azken berrikuntza aurretik joaten ziren bezainbat. Madrid bertan bederatzita hilabetetan Bilbon gehiengo izango diren minimalista berberen erakusketak ehun eta berrogeita hamar mila ikusle erakarri omen zituen. Baina Madriderako lau adina erakarriko ditu urtero Bilbon. Mila peseta inguruko sarrera izatea ere ez dela arazo euskaldunentzat, idatzi da hemen. Ez, ez, ez dakigu ezer biabilitate-ikerketak hauek nola egiten diren, eta zenbat eta artezaleago jendea, ba hobe. Baina Bilboko «zona»n 29.852.902 biztanle bizi direla irakurtzen dugunean,¹⁰ zalantzak sortzen zaizkigu. Gipuzkoak 1.107.471 biztanle ditu estudioak dioen bezala, ala zazpirehun mila eskas? Zonaren baitako Akitaniak 8.990.160 biztanle ditu, ala bi milioi terdi pasatxo? Euskaldunok, Errioxa eta Burgos gehiturik, 4.767.322 biztanle bagara, biabilitateko adituek diotenez, gure estadistikak erabat obsoletoak gelditu ziren eta gu enteratu gabe. Zenbakiak, jendetzak, bisitariak, turismoa, dirua... dena gehitzen ari da dagoeneko Bilbon.

* * *

Baina arazo nagusia ez da dirua bera. Kultura-munduan bizi garenok artegintzari diruak eskaintzea nahiago dugu eskopeta-fabrika bati baino. Arazoa diru horien bidez euskaldunoi inposatzen zaigun morrontza ekonomiko eta menpekotasun intelektuala da.

Hemengo zenbait kritikari lotsaturik agertzen da Krensen *imperialismo kulturalaz*. John Richardson kritikoak, adibidez, aipatutako artikuluan zera idazten zuen: «Krensek arte kontzeptual eta minimalismoari eman nahi dion garrantzi gehiegizko hori —mugimendu modernoaren azalpen gorenak direla, guk hala sinestea nahiko luke— txaubinismo enpresarialarekin askozaz ere zerikusi gehiago duela dirudi edozein konbikzio artistikoekin baino. Beste negozio-gizon amerikar gehienek bezala, Krensen helburua bere produktua promozionatu eta esportatzea da: EEBBetan fabrikatutako artea...»¹¹

Ezer baino lehen, bi mila milioi ordaindu beharra izan da Guggenheim-en izena erostearren. Esperientzia, administrazioa,

eta abarregatik omen dira horiek, baina holako ezer etorri baino lehenago ordaindu beharrak izan dira bi mila milioi horiek. Krens bera aitortu nahi ezta ibili da zenbaki hori hemengo prentsaren aurrean, proiektu guztiaren «misterio» horietako bat erreportero batek zioenez.¹² Misterio gutxi dago hor: morrontza-harremana onartzen dela amerikarrei segurtatzeko ezaugarria izan da. Bizi garen denbora hauetan kolonizazio kulturala, ez bakarrik imajina, moda, telebista, zinema, eta bestelako kultur produkzioen bitartez, baita ere milioi dolarretan ordaindu beharra, hain anakroniko eta ez-ohizko izaki, amerikarrek eurek ere horren berri ez jakitea hobe.

William Blake profeta anti-inperialistak ikusi zuen argien: «Imperioaren Oinarriak Artea eta Zientzia dira... Imperioak Arteari darraio eta ez alderantziz.»¹³ Negozioa, probetxua, etekina, eta negozio, probetxu, eta etekin gehiago ateratzeko esperantza, denok dakigun bezala horixe izan da edozein inperioaren espiritua. Baina badago zerbait gehiago kolonialismoaren kulturak berezko duena, Edward Saidek bere azken obran dioen bezala:¹⁴ territorio urrutietako natiboak dominatuak behar zuten izan beren onerako, honela imperioak berarekin daraman subordinatuak gobernatzeko zama kasikan obligazio metafisiko bat gertatzen delarik mundua hobetzeko. Ipar Amerika oraindik kultura honetan leporaino sartuta dago, munduko polizia izateko obligazioa duela sinestuz.

Orain arte ikusigabea, ordea, arteak ere inperialismoaren formarik biluzenean funtziona lezakeela zen, eta XX. mendearen bukaeran. Horregatik sortu da halako interesa hemengo medio artistikoetan. McGuggenheim eta euskaldunon arteko tratuak direla medio, horixe baita denon bistan dagoena: supermerkatu baten antzera frankiak munduan zehar zabalduaz, ez bakarrik odolkiak eta hamburgesak eta futbol amerikarra, mende bateko arteak, imajinak, ideiak, sentsibilitateak ere saldu daitezkeela New Yorketik negozio ederra eginaz, eta gainera espiritu uni-bertsal eta abangoardiakoaren izenean.

* * *

Lehengo mendearen bukaeran eman zioten amerikarrek museoak eraikitzeari; ez estatuaren diruaz, baizik eta diru pri-

batuaz. Gizartearentzat trszendentzia gordailuak altzatzea zen helburu; negozioa egitea baino lehen, beren neurasteniak sendatzea zen aberats haien nahia. Europarrendandik mentalitate desberdina zuten. Bertan kuadro, eskultura eta artea nahi beste izanik, Europako arazoa museoen baitan obra guzti hori gordetzea zen; Amerikan, aldiz, bertan ezer ez egonik, joan gaitezen bila eta eros dezagun ahal dugun guztia, pentsatu zuten. Horrela kapitalismoaren Prometeo Errenazimenduko Birjinararekin ezkondu ahal izan zuten. Abanguardismo terapeutikoaren izenean eraiki ziren museoak, estetizismoa eta benefizio soziala zituztela zutabetzat. Bilbo izango da agian lehenengo museoa European egonik Amerikaren espirituz altzatzen dena. Gutxik usteko zuten esentzia sabinianoak horrenbesteko adaptaziorako ahalmenik zuenik; mota askotako kultura ireki baten alde gaudenok ere, munduan lehen aldiz patentatzen den asmakizun honek ustekabeen harrapatu gaitu.

Inperioak ez du zergatik bortxaz inposatu beharrik bere boterea. D.F. Fieldhousek idatzi duenez, «Autoritate inperialaren oinarria kolonizatuaren gogo jarreraren zetzan. Honen morrontzaren onartzeak —guraso estatuarekin interesa amankomun bat zuelaren uste positiboagatik, edo inolako alternatibarik sortzeko abilitaterik ez zuelako— egin zuen inperioa iraunkor.»¹⁵ Euskal politikoen ere, Bilbo «mapa kulturean» jarri dutela eta, harro agertzen dira. Kolonizatuaren lilurak beti horrelakoak izan dira.

New Yorkeko izen ospetsu bat erosiz euskal ekonomia eta kultura berpiztuko direla sinestea, izan ere bada sinestea. Fetitxismo handi baten sorginkeriarik ezean, zaila da konklusio horretara iristea. Fetitxismoaren esanahia honela bereizi ohi da: objektu batengan sinesmen magikoa, debozio estrabagantea, eta desplazamendu erotikoa patologikoa. Gauza baten izana bere harreman medioekin, edo edukia formarekin nahastea, klasikoki horrela ikusi izan da. Adibidez, Marxek, «urrearen fetitxismoa» eta honen «absurdoa» aztertu zuen. Eta antropologoen oso gogokoa izan dute kontzeptu hau beren zenbait materiale etnografiko aztertzeko.¹⁶ New Yorken Bilboko diruaz gauzak konponduko direla uste badute, eta bide batez Bilbon New Yorkeko museo baten izenak guztia salbatuko duela, harre-

manen mistifikazio handia behar da horretarako. Arte eta museoaren fetitxismoa bete-betean.

* * *

Euskaldunon menpekotasun intelektual eta estetikoak zein erabatekoak izango den ikusteko, ez dago kontratua irakurri besterik. Adibidez, hamarkada batean zehar Bilbok 5 milioi urtero jarri beharko du obra erosteko, baina Guggenheimek erabakiko du zein artistari erosi. Alegia, zein artelan den ona ala txarra, egokia ala desegokia, horrek suposatzen duen guztia-rekin artearen eta merkatuaren munduan, artistaren eta gizartearen kokagunean, etab. hori guztia New Yorken interesak erabakiko dute funtsean.

Eta interes hauek zeintzuk diren susmatzea ere ez da hain zaila hemengo prentsa espezializatua irakurri ondoren. Krensek, New Yorkeko mundu artistikoaren higuinerako, Kandinsky, Chagall eta Modiglianiren hiru koadro saldu zituen hauen truke Panza di Biumo konte (titulu faszista beranta) italiarrari Amerikako arte minimalistaren bilduma handi bat erostearren. *The New York Times*-ek salatu zuenez, bilduma honetako obra gehienak ez dira gauzatutako obrak, artisten plano, ideia, zertifikatu, etab. baizik. Judd artistak dioenez, «Guggenheimek zerri bat erosi zuen Panza batean.»¹⁷

Kritika oso gogorak jaso zituen Krensek erosketa honengatik. Eta ez da harrizkoa orain Bilbok erosiko dituen obra gehienak bilduma honetakoak izango direla jakitea. Hauetako onenak, inork zalantzarik bazuen, New Yorken geratuko direla hemengo irakurleari asegurantza eman omen zaio.¹⁸ Hitz batez, eta salmentak obra bati ematen dion balioaren gehigarriak poltsikoratuz, Bilbon sartuko dizkigute milioika dolarren truke amerikarren obra minimalistak, arte unibertsalaren izenean obra maisu omen direnak, baina amerikarrek eurentzat gordetzeko irrika gehiegi ez dutenak. «Panzaren bilduma lortzeak, Krensi hainbeste prentsa txar gaineratu ziona» azkenik «aurre-jakitunezko» erosketa probidentzial gertatuko zaio Guggenheimi, irakurtzen da hemen¹⁹ —Bilbori eskerrak, jakina.

Unamunok zioen Santxo Panza zela egiazko heroia, ez Don Kixote. Don Kixoterentzat erraza zen edozein abentura, bere ero-

menean ezin baizituen bereizi haize-errotak eta armadak; Santxo Panzaren ikuspegia, aldiz, errealismo hutsa zen, eta hala ere bere maisuari jarraitu egiten zion. Panzak ematen zion errealitatea Kixoteren aluzinazioari. Cervantesen fikzioa beste behin historiak egiaztatu egin du: oraingoan Panza konte lodikotearen errealismoari esker, Guggenheimeko Krens bere lagun luzearen medioz —«gauzaren luzea eta motza», norbaitek deitzen omen die²⁰— euskaldunok Kixoteren ikurra altu gordetzeko parada daukagu.

* * *

Nor gara gu arte unibertsalaren balioak juzgatzeko? galdezen diogu geure buruari berriro ere. Horretarako daude adituak, ezta? Zer dakigu guk zer komeni zaigun gure museoetan? Hain lokalista izaki euskaldunon ikuspegia, ez al zaigu komeni aberri eta lekukotasunetik gain dagoen zerbait? Arte unibertsala eta kitto, da agian gure arazoen soluzioa.

Unibertsalismo horren predikuaren adar bat gu euskaldunok kanpora irten beharra izaten da. «Pasa ezak urte bat New Yorken eta ikusiko duk zein desberdin ikusiko dituan gauzak», nik neuk nere lagunei aholkatu izan diet mila aldiz. Era berean, euskal artegintzaren arazo bat bertako artistak kanpora irteteko medioak jartzea zela, pentsatu izan dugu askok. Baina oker geunden nonbait. Erremedioa New Yorkeko artistak euskal herriratzea izango dela erabaki du Euskal Gobernuak.

EEBBetan 200.000 artista daude, merkatu amerikarra lurjota dago, eta Bilbon irteera bat aurkitzen badute, ba gora amerikarrak. Hau ez da euskal artistak «unibertsalizatzea», amerikarrak baizik, honetarako euskal artistak (Txillida ezik) bigarren edo hirugarren mailarako gelditzen direlarik. Pop artea, minimalismoa, eta abar, aspaldidanik dira ezagunak eta horien berri edonondik izan genezake; diferentziaren alde gaudenok arte-mota desberdinak nahi ditugu, euskalduna ere bai, eta ondorioz bertako artea munduan ezagutzearen alde gaude, ez bertako artea bertan ere baztertearen alde. Herri batek bere kreazioak eta bere ametsen ingudeak erakutsi behar dizkio munduari; orduan da interesgarri, orduan aberasten ditu besteak ere, ez besteek egindakoaren morroi, erosle eta museolari xume bihurtzen denean.

Bilbon sartuko dituzten minimalista, pop eta gainontze-koak, hamarretik zazpi amerikarrak izango omen dira. Orain hogeita hamar urte New York inguruko arte-munduan minimalismoa garai glorioso bat izan zen. Bainan beren gloria ez zen hain zuzen museoen inguruan bildu, museoen aurka baizik. Beren balio artistiko diskutiezinetik aparte, minimalismoak museoekin harreman zailak izan zituen, zenbait kasutan erabat kontrajarriak ere bai. Bilbon izango diren Carl Andre, Dan Flavin edo Robert Morrisen tendentziari «minimalista» deitzen zaio, hain zuzen, beren abstrakzio geometrikotik aparte, arte bezala eguneroko gauza arruntak erakusten dituztelako, hau da, ez-arte diren objetuetatik «minimalki» bereizten dituztelako (Duchamp-en tradizioa jarraiki). «Anti-Forma» ere deitu izan zaio joera honi. Artearen pertzepzio eta balidazio instituzionalak kolokan jartzea izan zuen helburu nagusizat jarrera honek. «Performance» (ekintza) eta «zirkunstantzia»ren artea bezala ere ezaguna da minimalismoa. Teatroarekin, dantzarekin, eta beste *happening*ekin batera hirurogeigarren hamarkadako artistek presentatu zituzten obrak, sarritan gero desegiteko. Morrisen lehen eskultura minimalista, adibidez, *Column* («Zutabea»), ez zen galeria batean erakutsia izan, teatro batean baizik; eskulturaren akzio berezia antzezlearen gorputzaren aurka ulertu behar zen; Morris bera, hain zuzen, zutabearen barne hutsean egotekoa zen antzerkian zehar, une seinalatuan eskultura botaraziaz eta horrela eskultura gorputzaren ordeko zela literalki eta metaforikoki adieraziz (Morrisek min hartu zuen saioetan eta lokarri bidez botarazi zuten eskultura). Arte honen alderdik ahulena, ondorioz, bere momentuan esperientzia berri ziren haien fijazio objetiboa gauzatzea izan da, geroagoko belaunaldiek berresperimentatu ahal izateko; zirkunstantziak aldatzearekin batera obra beraren esanahia ere ez baita berdina. Arte-obra eta ikusleagoaren arteko alderdi *teatral* horretatik dator museoratzeko dituen zailtasunak. 1980etarako jadanik arte objetuaren errekonozibilitate-arazoa (eserlekua artistak ala udaletxeko igeltseruak jarria ote?) komikietako gai bihurtu zen. Eta Kenneth Baker arte-kritikoak dioenez, arazo hori «museoek tribialki erretorikoa egiten dute lan minimalistak mugimendu eta garai bateko muestra gisa erakusten dituztenean.»²¹

1960ko hamarkadako minimalista amerikar errebolta-riek, non eta Guggenheim museoan, non eta Bilbon bukatu behar-
rak, ironia gehiegi ditu aipatu gabe uzteko. Erabat erradika-
lak ziren New Yorken biltzen ziren artistok, momentuko kon-
trakultura aireek eskatzen zuten bezala. Gaurko arte-histo-
rialarietako minimalisten garrantzia honetan ikusten dute: mug-
imendu gisa klarifikatu egin zutela artistaren legitimazioa zein
neurritan boterea eta diruaren esku dagoen. Anti-arte honek,
bere erradikaltasunean, arte objektu estatikoaren forma eta
konbentzioak hautsi nahi zituen, bereziki museoetako eska-
kizunak betetzeko eginiko objektuak. Hain zuzen, Bilbon egoteko
diren zenbait artistek (Serra, Morris, Andre) koalizio bat sortu
zuten New Yorken 1969an, eta beren gerra-oihua, ironikoki,
«museoaren bankarrota» izan zen.²² Morrisek, adibidez, «muse-
oak ezartzen duen kontrol harro, opresibo eta faszista» aipatzen
zuen²³, eta berarentzat «museoko espazioa... kapitalismo beran-
taren egitura instituzionalaren mikroskosmo bat zen.»²⁴ Protesta
ugari egin zuten minimalistek museoa opresio-erakunde gisa
kritikatuz. Krensen aurreko Guggenheimeko zuzendariak, Mes-
ser-ek, suspenditu egin zuen Haacke eskultore minimalistak
bertan egitera zihoan erakusketa bere jarrera eztabaidatu-
enatik. Horren ondorioz, ehun artistek Guggenheimen sekula ez
esponitzera sinatu zuten «arteari zentsura ezartzen dioten orde-
z-kariak aldatu arte». Krensek bengantza hartu diela dirudi:
beren obra multzoan erosi, eurekin McGuggenheim frankiak zir-
kulazioan jarri, negozio ederrak egin, eta azkenik Bilbora des-
terratu.

* * *

Guggenheimen babesean ikasitako zerbaitek behartzen nau
Guggenheim Museoaren jokabideak eztabaidatzera. Alegia,
gizarte batek ezin dituela bere arazo politiko, moral, esteti-
koak kanpoko «aditu» batzuen esku utzi. Gogoratzen euskal bio-
lentzia konpontzeko 1986an osatu zen «terrorismo adituen»
komite internazional hura? Haien erreportaia aztertu nuen
H.F. Guggenheimek montatutako konferentzia baterako.²⁵ Adi-
tuen ezjankintasunaz ohartzea ez da zaila; zailagoa da kontu-
ratzea politikariek nola manipulatu duten adituen konozi-

menu tekniko-zientifiko delako hori; eta batez ere nolako engainoa den gure arazo funtsezkoak zientzia edo arte unibertsal baten erremedioz konpon ditezkeela ustea.

Politikan eta kulturari, elkartu ezin garelako edo uzten ez digutelako, gure benetako arazoa geure etorkizunaz ezin erabakirik hartzea da. Guggenheim honekin ere —Bilbok dirua ipini, New Yorkek erabakiak— morrontza berdinarekin jarraitzen dugu, nahiz eta euskal politikoei ikaragarritzko aurrerapauso kulturala emango dutela uste izan. Hau baldin bada gure soluzioa, egin dezagun algara Eroarekin. Guggenheim da gure burujabetza ezaren adierazpen nabarmenena. Gu, gu... Guggenheim.

Nola ez, sinestu nahi dugu New Yorken gure aldean asko dakitela eta bertako artistak agian gureak baino askozaz hobekak direla. Kolonizatuaren mentalitate hutsa da hori. Askok omen dakiten horien inguruan urteak pasatzen dituzunean konturatzeko zara ez direla zeu baino ez askozaz azkarragoak ez askozaz tontoagoak, zeure antzekoak hori nonbait. Guggenheim museoaren kasuan ere, bertako historiak garbi adierazten du zer nolako «adituen» esku egon diren bertako erosketak. Adibidez, Hilla Rebay baronesak bere eta bere amorante —baina pintore halamoduzko— zen Bauerren ehundaka koadroak erosiarazi zizkion «Guggieri» prezio erabat gehiegizkoan. Ondorengo zuzendariak, Sweeneyk, ezin izan zuen baloratu Frank Lloyd Wrighten egindako museo eraikuntza maisua (agian amerikar edifiziorik ahaztezinena gaur egun) eta *The New York Times* berari azaldu zion bera zuzendari zen museoaren eraikuntzak sortzen zion higuina. Wrighten eraikuntza estreinatu zen egunean, ez bere alargunari, ez guztiaren ideia izan zuen Hilla Rebayri, eta ez bertako zuzendariari ez omen zioten hitz egiten utzi, «museoa erridikuloan utziko zutelako.»²⁶ Krensen minimalista-bildumak zer erreakzio sortu zituen aipatu dugu lehen; edo Sohoko museo berria irekitzean, emakume, beltz, gay eta abar kanpo gelditu zirelarik, Krensen protesta gogorrenekin aurkitu zen eta emakume bat, Louise Bourgeois, erantsi behar izan zuen. Eta abar, eta abar. Beraz, gure Guggenheimeko «adituek» infalibilitate urrutia daude.

Familia honetxek diruek ni urtetan mantentzen nautenez, agian pentsa beharko nuke badakitela zer den ona eta zer txar

rra kulturaren munduan. Zenbaitentzat nire idatzi hau izango da froga zein oker dagoen iritzi hori ere.

* * *

«Mortalek nitaz nahi dutena esan dezatela —eta badakit Erokeriaren fama zein txarra den, erorik handienen artean ere— baina ez dago halaz ere zalantzarik ni neu, orain zuen aurrean zutik dagoen pertsona hau, neuk eta neuk bakarrik jartzten dudala poza bai jainko eta bai gizonen bihotzetan.» Horrela hasten zuen Erasmok bere *Stultitiae laus* sonatua.

Guk ere egin genezake, zergatik ez, Eroa gure pertsonaia faborittoa. Azken batean, historiak dioenez, erokeria batek behartu zuen Solomon Guggenheim Hilla Rebay *femme fatale*-aren saretan erortzera, hau estiloz eta ohez sarri aldatzen zen gerra-arteko urte haietan. Harrez gero gehienetan «absurduaren amildegiko puntuan»²⁷ egon omen da Guggenheim. Antzeko desarrazoiren batek behartuko zuen Peggy eta Hillaren arteko ezin ikusia, eta ezin uka lehia honek izan zituen ondorio guztiz positiboak museoaren gerorako. Wright berare n inspirazioa ere —Mesopotamiako ziguratetik hartu Manhattan erdian templo bezala ezartzeko, bidebatez Hiroshima antzeko bonba New Yorken lehertzean airean joan ondoren errebotatu egingo zuela esplikatur— ezin esan Eromenaren iturritik oso urrun izango zenik.

Guggenheimi haserretuen eraso dion gure eskultore zahar lagunak ere erokeriaren teoria luzaro ibili izan ohi du euskaldunon estiloa bereizteko orduan. «Gure historian egin diren gauza baliagarri bakarrak zentzugabeek egin dituzte», esan ohi du. Beraz poztu egin beharko luke, ez desesperatu. Lope de Agirre, San Inazio/Don Kixote, Santa Kruz, eta abarren tradizioak tinko dirau.

Hori bai, orain ere unibertsalismoaren altarean *Eldorado* eskuratuko digute. Euskal adituek ere hala diote. Hau ez da agian hain kezagarri, zeren euskal adituak amerikar adituak irakurtzen saiatzen dira, eta oraintxe bertan hemen Robert Hughes arte kritikariaren azken liburua²⁸ da best-sellerra. (Hau da katalanek etekin ederra atera dioten kritikaria; Olimpiada Culturalak *El Brusi* saria eman berri dio, Barzelonaz

liburua eta Amerikako telebistetarako dokumentari eder bat osatu ondoren). Begira zer irakurtzen ari diren amerikarrak Hughesen liburuan, euskal adituek ere noizbait irakurriko dutena: «kultura zentralizatu, inperialista baten aurka reaktionatzen dut nik... moda nagusiak dioten baino interesatuago nago ni orain diferentzian... Amerikarren etorkizuna, Gerra Hotzik gabeko ekonomia globalizatuan, marra etniko, kultural, hizkuntzazkoen bidez erraztasunez pentsatzen eta ibiltzen dakitenengan dago. Eta horrelako pertsona izatera iristeko lehen pausoa ez garela mundu-familia handi bat onartzea da, ezta ere inoiz izango garela: arraza, nazio, kultura eta beren historia desberdinen arteko diferentziak beren arteko antzekotasunak bezain sakon eta iraunkor direla; diferentzia hauek ez direla norma europar batetik desbideratze, baizik eta beren kabuz ezagutzea guztiz merezi duten egiturak. Datorkigun munduan, diferentzia nabiga ezin baduzu, zureak egin du.»²⁹ Sherman Lee, Cleveland museoko zuzendariak antzera hitzegin du Guggenheimen proiektua ikusita: «Nik uste inork ez dugula nahi museo sistema uniforme, homogeen bat, London Erromatik bereiztuko ez duena, Amerikar supermekatu sistemaren antzeko zerbait».³⁰

Gure artistarik internazionalenaren jokabidea ikusi besterik ez daukagu. Haize-horraziak Hernaniko labetan egiten ari ordez New Yorkeko «junk art» imitatzen ari izan bazen, ez genuen gaur Txillidarik izango. Minimalisten lanak ere arte-historian garai interesgarri bat markatu bazuten, New Yorkeko eta hamarkada hartako arazoei kreatiboki erantzun zietelako izan zen. Galdetu Txillidari nondik datozkion bere sustraiak, bere inspirazioa, bere unibertsalismoa. Bilboko Guggenheimek Txillida izango omen du euskal artista bakarra; hauxe da agian proiektu horretaz gustatzen zaigun gauza bakarra. Ez dugu hala ere uste museo horren beharrik zuenik Txillidak; bere obra ezagunenak aide librean daude egokien; Euskal Herrian bere museo propioa egitekotan, berriz, Zabalaga horretarako dauka erosita, eta hantxe baserri zaharraren inguruan imajinatu izan ohi ditu bere obrak. Guri ere, Armin Zweite idazleak ohartu zuen bezala,³¹ Txillidaren egitura konplexuak «zein harreman problematikoa» duten museo itxiko espazioekin iruditatu izan zaigu.

Dena den, eta dena esana eta erabakia baitzegoen kaleko jendeok museoaren berri izan genuenerako, parodiatik aparte ezer gutxi gelditzen zaigu eransteke. «Publikoari aditzera eman baino askozaz lehenago»³² arkitekto kanpokoak kontaktatuak omen ziren, idatzi da hemen. Lehiaketa bat egon zela eta abar esan digute, baina Euskal Herrian inor ezertaz enteratu baino lehen. Zergatik galdetu ere euskaldunoi? Hona Renora hots egin zuten Guggenheim Museotik 1991ko udaberrian euskaldunon terrorismo-imagina Estatu Batuetan zenbaiterainokoa zen jakin nahirik. Hau da, traturako eta morrontzarako behar bezain «garbiak» ote garen jakin nahi zuten, ez ote ziren terrorismoz mantxatuko alegia.

Kontraste modura, 1993ko uztaileko egun hauetan, Bilboko diseinatu duen Gehryren proiektu bat Pragan eztabaidatzen ari direla da notizia. Arkitekto batzuk alde (Havel bera ere bai), gehienak kontra, eta Gehry bera bere obra defenditzen, «Hollywoodeko kitscha Pragara esportatzeko intentziorik ez nuen»,³³ argudiatuz. Euskaldunokin, gu indio gizajookin, ez zegoen zer hitz egin eta zer galdetu. Gure arduradunek erabaki zuten nonbait New Yorkekoek gure aldean hain jakintsuak eta artistak direla, hain efikazak eta desinteresatuak, denon onerako hobe zela inperioari bere kabuz gauzak egiten uztea.

«Fierki independenteak», horixe da euskaldunex sarritan irakurtzen den klitxea. Galde diezaiotela Krensi herri umil eta zerbitzariagorik ezagutu ote duen. Pragako debatearen erdian batek Gehry imajinatzen du Bilboz gogoratzen eta bere buruari esaten: «Komunista ohi ezjakin hauek euskaldunen ikuspegi bisionarioa balute behintzat...»

Solomon Guggenheimen helburuetan, bai jatorrizko museoan eta bai orain Bilbokoan, lehena eta nagusia zein den ez ahaztea komeni zaigu: «procurar la difusión del arte así como el desarrollo mental y moral de 108 hombres y mujeres favoreciendo su educación, ilustración y gusto estético, y desarrollando la comprensión y apreciación del arte por el público».³⁴ Bere lagun Hilla Rebayrentzat ere «sólo el lenguaje abstracto visual común podía elevarse sobre las diferencias culturales y la superficialidad del materialismo mundano».³⁵ John Richardsonek, agian injustoki, beste arte forma abstraktu bat nabari du Guggenheimen proiektu berri guztiak Krensen megaloma-

nia eta 80ko hamarkadako finantza-gizonen aztikeriara itzulzen dituenen: «hauen artean bereziki iunk bondak, zeintzuk egiazki arte kontzeptual era bat dira: eurak aberastu ia beste guztien kaltetarako».³⁶

Eta horrela gelditzen gara gu Eroarekin dantzan. «Abentura eroa izan daiteke baina abentura eroa zuhurra behar du izan», idatzi zuen gure estetak. Liburutegi baten bila Oesteko basamortura etorri ginenok aspaldidanik dugu lagun Eromena. Zorroagara iritsi ginen egun batean, maisu izateko gogo handirik gabe, eta konturatu ginen 1983-84ean armario txiki bat gehiegizkoa zela antropologiako liburutegi osoa gordetzeko (Barandiaran, Caro Baroja, eta abar luze baten gloriak betetako ikerketa espezializatua, Euskal Herria ia-ia berrasmatu egin zuten autoren tradizio bera). Baina harrigarriagoa oraindik —eta hau isilpean esan beharra dago gehiegi ez daitezten enteratu— han igaro nuen urte osoan liburutegia *ixita* egon zen, atea irekirik edukitzeko pare bat ikasleri ordaintzeko dirurik ez omen zegoelako. Hau Donostia ilustratuan eta Euskal Herriko Unibertsitate Publiko bakarrean.

Hori orain hamar urte zen. Laster pop-arte, minimalismoa, eta abar luze bat ikustera Bilbora joateko irrikatzen gaude. Bide batez, New York bera ere salbatu egingo du Bilbok. Lastima López de Arriortuari ez dioten utzi General Motors salbatzen, Zornotza ren laguntzarekin, eta horrela eusko-amerikarron lankidetzak kotxe-industria japoniarren menpetik behingoz atera.

«Hitz batean», dio Erasmoren Eroak, «ez gizarte, ez bizitzako harreman, izan daiteke atsegin edo iraunkor ni gabe. Herri batek ez luke bere printzea toleratuko, maisuak bere zerbitzaria, neskameak bere etxekoandrea, irakasleak bere ikaslea, lagunak bere laguna, emazteak bere senarra, lurjabeak bere maizterra, soldaduak bere partaidea, edo apopiloak bere apopilo-kidea, elkarren arteko harremanetan noizbehinka herraturik ez baleude, noizbehinka elkar lausengatu, noizbehinka elkarri begikeinuak egin, eta edonola ere euren buruak eromenaren gantzu eztiarekin gozatu... bizitzako onespenean ukerak hauek Eromenari zor dizkiozu, eta —trufaren azken zukua dena— partaide izan behar ez duzun erokeriaren fruituak jasotzen dituzu.»

1. Ekainak 21, 1992.
2. *The New York Times*, Ekainak 21, 1992.
3. J. Richardson, «Go, Go, Guggenheim», *The New York Review of Books*, Uztailak 16, 1992, 22 or.
4. J. Richardson, *ibid.*
5. Cembalest-Robin, *ARTnews*, 91(5), Maiatza 1992.
6. Cembalest-Robin, *ibid.*
7. Ekainak 21, 1992.
8. Ikus Markus Becker-Kochen artikulua «Frankfurt, la nueva ciudad cultural». *El Guía: revista de la cultura visual*, Segunda Epoca, Año II, Número 9, Mayo-Junio 1991. Idatzi honetatik jaso ditut datu hauek.
9. Ikus Becker-Kochen idatzia, 56 or.
10. Ikus *Museo Guggenheim Bilbao. Estudio de viabilidad. Borrador definitivo*, 48 or.
11. *Ibid.*, 22 or.
12. Robin Cimbalest, *ARTnews*, 1992 Maiatza, 85 or.
13. N. Frie, (ed.) *Selected Poetry and Prose of Blake*. New York: Random House, 1953, 447 or.
14. *Culture and Imperialism*. New York: Knopf, 1993.
15. *The Colonial Empires: A Comparative Survey from the Eighteenth Century*. Houndmills: Macmillan, 1991, 103 or.
16. Ikus adibidez Etnofoor 3 alea (1990)
17. Ikus Cembalest-Robin, *ibid.*, 90 or.
18. Ikus J. Richardson, *ibid.*, 19 or.
19. Ikus Kay Larson, «Modern Times», *New-York*, 25(28), Uztailak 20, 1992, 54 or.
20. J. Richardson, *ibid.*, 19 or.
21. *Minimalism: Art of Circumstance*. New York: Abbeville Press, 25 or.
22. Ikus, adibidez, *Labyrinths: Robert Morris. Minimalism and the 1960s*. New York: Harper and Row, 92 or.
23. *Ibid.*, 119 or.
24. *Ibid.*, 133 or.
25. J. Zulaika, «Terror, Totem, and Taboo: Reporting on a Report». *Terrorism and Political Violence*, 3(1991):34-49.
26. J. Richardson, *ibid.*, 21 or.
27. J. Richardson, *ibid.*, 19 or.
28. *Culture of Complaint: The Fraying of America*. New York: Oxford.
29. *Ibid.*, 94-96 or.
30. Robin Cimbalest, *ibid.*
31. «Evidence and Experience of Self: Some Spatially Related Sculptures by Richard Serra». In Ernst-Gerhard Guse, *Richard Serra*. New York: Rizzoli, 1988, 15 or.
32. Robin Cembalest, «Everywhere except Antartica?» *ARTnews*, 90(10), 1991 Abendua, 39 or.
33. Ikus *The New York Times*, Uztailak 13, 1993.
34. *Museo Guggenheim Bilbao*, 7 or.
35. «Museo Guggenheim Bilbao: propuesta de programa de exposiciones especiales y colección permanente; propuesta de adquisición parcial.» Borrador. 1 de Diciembre, 1991, 9 or.
36. *Ibid.*, 22 or.

GUNEN GURPILEAN

ANDONI EGAÑA

OPORRAK
ITZALEN ITZAL
VILLABONATIK GORAKOA
TELEBISTA ETA INTELEKTUALAK

HASIER ETXEBERRIA

TXALUPA KULUNKARIAK
UNIBERTSALTASUNAREN MUGAK
TERRORISMO KULTURALA
WHAT CRISIS?

ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA

PILTDOWN-EKO GIZAKIAREN IRUZURRA
DENBORAREN HERIOTZA
ANIMALI KONTZIENTZIA

JENARO GARATE

KRISI-AZTERKETA. SORBURU OBJETIBOEN ATALA
ENPRESARIEI BURUZ ZERBAIT
GREBEN ARAZOA

BEGOÑA DEL TESO

UDAKO ANTZERKIA. BAI DESASTREA!
KALE-ANTZERKIAK KALE NAGUSIAN KALE ETA HUTS
ORAINTE ORAINTE NITAZ PENTSATZEN. BERANDU
BERANDU, BERANDUEGI
HILDAKOAK TELEBISTAN BERPIZTU NOIZKO?

KULTURA
ARTEA
ZIENTZIA
EKONOMIA
IKUSKIZUNAK

KULTURA

ANDONI EGAÑA

OPORRAK

Xelebreak gara. Oporrak hartzen ditugu! Lanean etenaldia egiteari deitzen zitzaien oporraldia garai batean. Tuerkak, ate-markoak edo plastikozko esku-narruak egiten dituzten haientzat oso beharrezko iruditzen zait gainera.

Baina egungo gizartean, tuerkak eta ate-markoak egitetik bizi direnak gero eta gutxiago dira. Gehienok bestelako eginkizunak ditugu. Eta bestelako eginkizunak dituen jende horrek ere oporrak hartzeak uzten nau ahoa bete hortz.

Egunkariak xumeagoak azaltzen dira, beti berdintsuak diren festei buruzko berriz puztu-puztu eginda. Oporretan ez da libururik argitaratzen (oporretarako bai). Telebistamaren produkzio-zentrua itxi egin dute hilabetean. Kulturaren hezkuntza eta sorkuntza-arloak jolas eta zabalkuntzak jaten ditu. Lege-biltzarrean jai hartzen dute. Ikastolei buruzko eztabaida gordin hura, hilabetean atzendu egin dugu.

Irailaren hasieran zurrunbiloak harrapatuko gaitu. Bakoi-tzak berea, munduko gauzarik garrantzitsuentzat hartuko du. Ez da pakerik izango. Nik, barkatu, baina ez dut sinesten. Ete-naldia onartzen duen ezer ez da oso-oso garrantzitsua. Alferrik zin egingo didazue baietz.

ITZALEN ITZAL

Uste dut Juan Goytisolak esan zuela: «No me interesa un gran número de lectores, sino un cierto número de relectores».

Idazlearen, eta oro har artistaren gatazkarik latzena muga non jartzeari dagokio. Norentzat idatzi, zenbatsurentzat izkiri-riatu, zer eta nola esan erabaki, jakinik erabiki horren araberrako izango direla, tamalez, salmenten neurria, ospea eta onespena.

Azken boladan, langa inork gora jarri badu, Juan Garzia Garmendia dugu inor hori. Italiako hamaika hiritan barrena —hamaikak ere ezkutuko esanahirik ba ote duen duda dut de Dios!— hamaika kontakizun txirikordatu ditu, zein baino zein trinkoago, jolastiago, lakarrago...

Gauzak erraz eta ulergarri egitearen aldekoa izan da euskalgintzan joera nagusia. Oraindik ere bada, «Basarri»ri dena ulertzen diotela eta euskara bikaina hura dela dioenik. Ulertuko ez dute bada! Kintoek bilera non eta noiz duten baita txineraz ere!

Goiko muga marraztu digu Juanek. Noraino hel gaitzezkeenaren lehen zipristinborrasteak baino apur bat gehiago.

Itzalen itzal, izenak berak dio, ez da hondartzarako liburu-a. Baina bai udazkenerakoa. Natura bete-betean egon ondoren itzaltzen hasten den garaia egokia baita, patxadan hitzak asmatzen hasteko, josterekin saiatzeko, kontakizun bakoi-tzaren jolas gaiztoak zukutzeko.

VILLABONATIK GORAKOA

Hala behar omen zuen, garai batean, bertsolariak.

Bernardo Atxagaren zirikaldi batek ekarri du gure artera zer esanik. Irratiz egin zioten elkarrizketa batean, saioaren amaiera aldera, bertsolaritzaz hitz egin nahi zuela adierazi zuen, ondoren, bertsolaritzaren ingurua gehiegi puztu den ustea agertzeko.

Baina esan zuenak baino esan beharrak harritu ninduen (Aizu! Ez didazu ezer galdetu bertsolaritzaz!).

Badakigu jakin, gure jarduera ez dela goi-mailako literaturarikiko alderagarri. Zer edo zer izango du ordea, hainbesteko jende-pilak bere arreta eskaini dionerako. Eta dituen dohaien artean, bat behintzat, literatur baliabideak erabiliz, xehe-xehe egin eta testuinguru egokian txertatzen asmatu izanean datza. Egungo bertsolaria intertestualitate-jolasak egiten hasia dago, pertsonaia bakoitza bere hizkuntz eta ideologia-erregistroetan kokatu nahian dabil, dela zita, dela argudio, dela arrazoien mailakatze-era, literaturatik ikasten ari da, eta literatur figurak ere (onomatopeia, aliterazio, imajin, errepikapen, etab.) gero eta maizago erabili zalea da.

Literaturgileek harrotasun puntu bat behar lukete beraz, haiengandik hartuak zein emaitza ona izan duen ikusita, ez inola ere, errezero edo bekaitz aztarnarik.

Gainera, bertsolariok ez dugu egiten eskatu ahala eta eskatu adina produzitzea beste pekatuik. Ume gogorrek gara; gaur bezala bihar, bihar adinaxe etzi eta etzi baino hobeto etzidamu, egin egiten dugu. Eta denbora izaten dugu «Bertsolamintza» bezalako jardunaldiak antolatu eta burutzeko. Ume txintxoak ere bagara baina; telebista-kamaren aurrean jartzen gara, baldintzarik txarrenetan, makilaiarik gabe, goizaldeko ordu txikietan, geure buruari hainbesteko inportantziarik emateke.

Saltsa guzti horien emaitza da bertsolaritza aparretan ibiltze hau. Idazle eta gainerakoak ez lituzke halere, gehiegi kezkatu behar. Ondo dakit nik ez dela juxtua. Liburu bat idazteak, a reago ona bada, sekulako ahalegina eskatzen du, gero oneritzi murriz eta eskasa jasotzeko.

Baina besteri begira jartzea baino hobe lukete, beren ekimena dela telebistaz, dela irratis, dela nik ahal dakit nola, zer modutan zabaldu arazi aztertzen hasiko balira.

TELEBISTA ETA INTELEKTUALAK

Amatiñok piztu du sua. Egoki derizkiot gainera, Udako Unibertsitateko hitzaldi batean gaia plazaratu nahi horri; tarteka-tarteka «Cartas al director» delako sailean honekin edo harekin mokoka aritzea adinakoa bada.

Telebistaz eta intelektualez hitz egin zuen eibartarrak. Bat nator esan zuen hainbat gauzarekin. Intelektualek beti gutxie-tsi izan dute telebista. Pio Baroja, egun biziko balitz, igual izango litzateke, bai, bideo-klip errealizatzailea. Intelektualek, egia da, ez dute telebistan gainerakoek baino irudimen handiagorik erakutsi. Medio bati «Kaxatontoa» deitzea munduko tontakeria handiena da. Ados nago bai, bota zituen ideiarik gehienekin. Zalantzarik ere badut ordea: inori kontuak hartzeko adinako indarrez eta arrazoiz sentitzen al da? Nori zuzendu zitzaion intelektualak aipatzean? Ni ez naiz nor lehenengo galderari erantzuteko eta ez naiz saiaturiko erantzuten. Bigarrenari dagokionez ere ez naiz nor, baina ahalegindu egingo naiz.

Intelektualak zirikatu zituen Amatiñok eta norbait izango zuen burutan. Baina ez da intelektualik izan intelektual gisara behintzat erantzun dionik. Elkarteen eroldan ere, ileapaintzaile, zigilu-biltzaile, iturgin eta horrelakoak azaldu arren ez da Intelektualen Elkarterik azaltzen.

Ondorioa garbia da. Intelektualak bere burua izendatzen du intelektual, baina ez da gizartearen aurrean intelektual agertzen. Hemen bada zerbaiten hutsunea. Amatiñok ere ongi zekien hori. Errazagoa da, jakineko ezer ez den multzo bati erasotzea, marrazkilari, garbitzaile, edo harotzei buruz aritzea baino.

Seguraski, intelektualaren kontzeptuak berak aldatu behar luke gizartearekin. Garai batean honakoak ziren intelektualaren ezaugarriak: jakin, egoten jakin eta isilik egoten jakin. Jakinduria, tenplea eta zuhurtasuna ziren beraz premiazko, inor intelektualtzat hartzeko.

Telebista heldu zenetik ordea, jakitea soilik salbatu da. Egoten jakiteak ez du ezertarako balio, egiten dakien edo ez dakien edonork hartzen baitio gaina egonean dagoenari. (MacLuhane-k aspaldian esan zuen: telebistan irteten dena bada eta irteten ez dena ez). Eta isilik egoten jakiteak ere apenas baliorik duen,

nahiz eta oro har telebistan agertzen direnek ordu gehiago eman irrifarrak eta algarak entsaiatzen, tajuzko ezer esan ahal izateko beren buruak jazten baino.

Gaur purian dagoen hirutasun santua ez da beraz, jakin —egoten jakin— isilik egoten jakin, jakin (gutxixeago bada ere) —egiten jakin— egina zabaltzen jakin, baizik.

Eta hor intelektualak galdu egiten dira. Intelektuala definizioz baita endogamikoa, lana noizik behin egiten duena, egiten duena nori eta nola saldu oso gutxi pentsatzen duena. Orain artean halatsu zen behintzat; orain egokitzen jakin beharko du.

Mendira joateko ere erak daude. Planak egin, planoak aztertu eta ikasi, jazkera prestatu, orduak kalkulatu, janaria aukeratu, eta munduko zeremonia osoarekin tipi-tapa maldan gora abiatzen da bat. Horrelakoek, beti topatzen dute norbait goitik behera datorrena. Inongo inportantziarik eman gabe, txistua joaz, oinetako ziztrin batzuekin, inor baino goiztiarrago gailurrera heldu eta bueltan datorrena.

Hori da zinezko intelektuala. Beti bueltan datorrena. Eta horrek badaki, Loiolako Inaziok bezala, ez dela etsairik, ez mediorik «jarriko zaionik».

ARTEA

HASIER ETXEBERRIA

TXALUPA KULUNKARIAK

Udarekin batera, negu bezperan usoak bezala, bidaiariak etortzen dira gure paraje hauetara. Bartzelonatik, Madrildik, Milanotik, Parisetik... nonahitik. Parada egokia izaten dute orduan galeristek gure artisten lanak erakusteko, Euskal Artea aideratzeko. Koadrotxo bat hemendik, brontze edo grabatu bat handik... poliki-poliki klink, eta klank, itsulapikoa apur bat berotzeko aukera izaten dute aberastasunaren sinonimo den abuztuan.

Baina begiratzen hasita, arte-mugidak itsas bazterreko herrietan soilik biltzen direla, bistakoa da. Lekeitio, Zarautz,

Hondarribia, Hendaia, Donibane Lohitzune... turista-lekuetan i rekitzen dira galeriak. Lehen igoal abarketak ezin saldurik zebilen aretoa, arte-saltoki bilakatzen da bat-bateko metamorfosi azkarrean. Armiamak kendu, hautsa astindu eta aurrrera, lehen lau kamiseta saltzen zuen berbera, bihurtzen da arte-jakitun. Pikareskaren kontuak dira. Sosaren deiadarra.

Zer ikusten dute, ordea, artezale kanpotar horiek hemengo galerietan? Zer erosten? Zein da bueltan eramaten duten juzuak?

Gutxi dira, (nik bat bera ere ez dut ezagutzen), uda-garaian galeristaren izpiritu eta eginbehar ausartari eusten dionik. Inon gutxi ikusiko duzu artelan berririk, gazterik, gordinik. Arte-objetua souvenir bilakatzen den garaia da. Arteak berak adierazten duenak baino gehiago balio du objektu artezkoaren ahalmen ebokatiboak. Ibilera eta leku baten oihartzuna ekartzeko erabiliko da artelana, izpirituari igurtzi bat emateko baino gehiago.

Ondorioz, arte-galerietako eskaparate guztiek bat egiten dute udan, eta ezberdintasunean eta norberaren proposamenan oinarritu ordez, mila lekutan barreiatutako aukera berbera agertzen da behin eta berriz errepikatuta. Galeria guztietan ikusiko dituzue, behin eta berriz, gurdiaekin datozen baserri zaharren erretratoan ondoan, gure mendietako paisaia errazen artean, brontzezko arraunlari eta aizkolarien alboan. Beraiek dira euskal kistcharen ordezkari finenak. Zeintzuk diren? Ba, hori, koloretako txalupa moñoñoak kulunkan.

Zer hoberik, Berlin, Paris edo Liverpoolera itzulitakoan, Euskal Herrira eginiko bidaiak gogoratzeko, muga erositako torerobat, bailaora gorri bat eta gure txalupatxo kulunkariak baino?

UNIBERTSALTASUNAREN MUGAK

Artelanak derrigorrezko du mintzaira unibertsala, zerbait izango bada. Unibertsaltasuna, errotik aitortzen den baldintza da artegintzan. Hala ere, Bidasoa mugagabetu hori, traba da, oraindik ere, hango eta hemengo artegintzaren ezagupenerako.

Egun hauetan Roberto Matta pintore handiaren erakusketa bat dago Biarritzeko Estazio Zaharrean. Zenbatek gurutzatutako dugu muga halako gertakizun baten lekuko izateko? Zenbatek jakin du hemen, hegoan, han maisu unibertsal baten lana ikusgai zegoenik?

Bidasoaren gortina gardenak traba egiten digu oraindik ere harantz-honantzko ibilerarako eta apenas dakigun ezer mugaz gaindi egiten denaz. Unibertsala izanik, geure alboan egiten den artegintza baizik ez zaigu iristen begietara eta belarrietara.

Horretan adibide da hiru euskal artista gaztek joan den uda honetan egin duten erakusketa bat. Unai San Martin, Eugenio Ortiz eta Xabier Arribas gipuzkoarrek, Hendaiako hondartzaren ondoko gela batean jarri zituzten beraien lanak izen ponposo baten barnean: «Euskal Itsas bazterreko lehenengo Arte Biurterkoak». Zenbatek ikusi ote ditu, beste askoren artean galduta zeuden lan horiek? Zenbat jende jakin du mugaz gaindiko ahalegin honen berri?

Oraindik ere, Iparraldeak eman duen artista unibertsal bakarra, Ravel musikaria da. Badirudi leiho parean daukadan Iparralde horretan, inork ez duela artelanik egiten.

Beraiek gauza berbera uste ote dute hegoaz? Balenziaga izango ote da gure artegintzatik ezagutzen duten artista bakarra?

TERRORISMO KULTURALA

Jainkoak intentzio ona eta dotoretasuna banatu zituen egunean, gure politikari batzuk komunean paperik gabe harrapatu zituen, antza denez, banaketa horrek. Zenbaiten adierazpenak entzun eta irakurritakoan, hori dirudi behintzat.

Azpeitiko Tren-Museoan egindako astakirtenkeriaren ostean, hitzik ez da agertu defenda ezina den gertaera lazkarria apur bat argitzeko. Nor izan den ere inork ez daki, baina dena delako piromano modernotu horiek, *Fahrenheit 451* nobelako pertsonaien antza dute. Trenak erretzen dituzten hauek, industria eta komunikabideen memoriaren zati bat ezkutatu digute betirako. Aipatu nobelako biztanleek osterara, memoria oro desagertarazten zuten liburuak erretzen zituzten bakoitzean, eta hori

baino okerragoa zena, idazlearen sorkuntza-unekoa arnasa berezia.

Museoak eta liburutegiak beti izan dira energumenoen begiko, gizadiaren historian zehar. Baina terrorismo kulturala ez da suaz bakarrik egiten. Jakin nahi nuke Josu Bergara jaunak zer esan nahi ote zuen erdara garbian honako hitzok esan zituenean: «Los autodenominados defensores de la cultura vasca tendrán que contestar a muchas preguntas».

Egin litezkeen irakurketa ezberdin guztien gaintik badago azterketa orokor baterako gaia bere hitzetan. Bergara Garraio Sailburuak, azkar asko sartu ditu kulturagintza ofizialaren barnean ez dabilzan guztiak piromano eroen zaku berean. Horretarako hizkuntza poliziala erabili du gainera, «autodenominados» hitza esaterakoan. Azkar asko hasi da baimenak banatzen, nor den eta nor ez den herri honetako kulturaren defendatzaile. Eta jakina, berarekin ez dagoena, piromanoekin dago. Seguru asko *Jakin*-en ale hau irakurtzen ari zaren euskaltzale hori ere, «autodenominado defensor de la cultura vasca» gisara ikusiko zaitu Bergara jaunak. Eta ez da harritzekoa, izan ere, euskaraz hau bezalako artikulua irakurtzeko gauza den hiritarrak beti dauzka piromanoen artekoa izateko puntu gehiago.

Aspertzeko modukoa izan da uda honetako mezuen bonbardaketa subliminala batzuetan eta esplizittoa besteetan. Baina arima beltza eduki behar du batek, Bergarak esandakoa esateko.

Ez al daki berak eskubide demokratikoen artean dagoela era guztietako terrorismo kulturalak gaitzesteko eskubidea? Historiaren pelikulako gaizto guztiak gaitzesteko eskubidea dugu, bai trenak erretzen dituztenak, baina baita proiektu erraldoi sustraigabeak bultzatzen dituztenak ere, eta, nola ez bada, zatiketa eta enfrentamendu-politika arduragabea egiten duten ahobero baldarrak. *Cultura Vasca* eta kea gauza berbera dela uste duten ezjakin gaizto boteretsuak.

WHAT CRISIS?

Sotheby's eta Christie's galerietako otsailean zeharreko enkanteetan, badirudi ez dagoela krisi handirik. New Yorken, Sam Francis-en pintura batengatik 125.635 dolar ordaindu

dira. Willem de Kooning-en beste batengatik, 116.000 dolar. Pintu r̄en artean izan den erosketa merkeena Sol Le Witt-en lan bat izan da, 17.000 dolarretan.

Londonen, ostera, Jean Dubuffett-en pintura bat izan da or dainduena: 142.000 libera britainiar. Enkanterik merkeena, Valerio Adami-ren lan batena izan da, 14.000 liberatan.

Eskulturen artean, Calder-en lan bat izan da garestiena, 65.000 libera. Marrazkietan, Serge Poliakoff-en pastel bat, 25.000 liberatan, baina agian berritasunik nabariena, argazkigintzan eman da. Uste ez bezala, argazkien erosketak ere gora egin du eta Man Ray-ren lanen ostetik, Alexander Rodchenko-ren argazkiak ere, ederki ordaindu dira: 30.000 libera inguruan.

Bitartean, hemengo merkatuak lotan dirudi. Apenas sal-tzen duen inork. Salerosketei buruzko azken albisteak, eskulturgile batek eman zidan lehengoan. Antza denez obispoa eta apaizak hasi dira orain arte berria erosten. Eskultore beronen lan handi bat behintzat, Museo Diocesana joango omen da, Jainkoak lagun.

Gure pintore ospetsuetako batek, ostera, ez du merkaturik inon ikusten, eta lehengo batean zertaz bizi ote zen jakin nahi izan nuenean, garbia izan zen bere erantzuna: *Urliak emandako laguntzei esker bizi nauk, mutil.*

Urliak hori, nire aitona izan zitekeen, eta pintore behartsua, nire aitaren adinekoa da. Hunkitu egiten naiz oraindik ere halakoak entzundakoan, izan ere: «bizitza hau berehala pasatzen duk, mutil, eta nik neure lanarekin jarraitu baizik ezin diat egin. Ezin nauk distraitu merkatuaren gorabehera eta salmentekin».

Une beltzean argitasun apur bat ikusi dutenak, Artelekun Asun Balzolarekin ilustrazio-ikastaroa egin duten 25 gazteak izan dira. Antza denez, Asun Balzolak argi jarri ditu gauzak, garden erakutsi ditu teknikak eta garbi adierazi ditu liburugintzarekiko loturak. «Neure esperientzia arrazoitu eta erreleboa diren gazte hauei erakusteko moduan aurkitzen naiz», esan zidan.

Gazteek, berriz, pena bakarra zuten: hilabete osoko ikastaroa hain azkar bukatu izana. Entusiasmoaren kontuak dira horiek.

ZIENTZIA

ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA

PILTDOWN-EKO GIZAKIAREN IRUZURRA

Zientziaren historian gertatutako iruzur garrantzitsu baten laurgei urte bete dira, orain dela gutxi. 1912ko azaroaren 21ean *Manchester Guardian* egunkariak eman zuen berria: Piltdown (Sussex) hiriaren aztarnategi batean gizaki aurrehistoriko baten burezur bat aurkitua izan zen, gizakumearen eta tximinoaren artean falta zen katemaila galdua, seguraski. Bi aste beranduago *Nature* zientzi aldizkari ospetsuak berria azaldu zien munduko zientzi gizoni.

Gizaki zahar horren garezurrak gizaki modernoaren antza zuen, baina baraila tximinoena. Fetxa haietan eboluzionistek espero zuten katemaila galdua, azkenean, aurkitua zirudien. Gainera, katemaila galduaren tesia bermatzeko, baraila tximuarrean bi betortz gizatiarrak txertaturik agertzen ziren.

Burezur hura aztertu zuten adituak garai hartako jende ospetsuenak izan ziren. Charles Dawson-ek aurkikuntza paleontologiko asko eginak zituen. Arthur Smith Woodward, «British Museum» Historia Naturaleko Departamenduko partaide ezaguna zen. Azkenik, Teilhard de Chardin fama handiko paleoantropologoa zen garai hartan.

Hasiera batean, fosil horren egiaztasuna argitzeko bildutako probak erabatekoak izan ziren. Burezurra ez zen bakarrik aurkitua izan, bere ondoan Pliozeno eta Pleistozenoko aurkikuntza ugari egin ziren: elefante, mastodonte, errinozeronte, hipopotamo eta zaldien arrasto-fosilak besteak beste.

Gizaki hark, beraz, gaurko gizakumearen adimena izango zuen, jatorrizko arbasoen baraila tximuarra gordetzen ba zuen ere. Dena den, baraila tximuarrekin batera aurkitutako betortzak nahiko gizatiarrak omen ziren. Betortz haiek 1913an Teilhard de Chardin-ek aurkitu zituen. Haiek ziren justu aurkitu behar ziren frogak, dudarik gabe, katemaila galduaren aurrean aurkitzen ginela guztiz onartzeko. Gainera, 1916an Dawson hil egiten da sorpresa postumo bat utziaz: berak aurkitutako Piltdown-eko bigarren gizakiaren fosilak (burezurren zatiak, eta hagin bat).

Urteak pasa ahala, gizakiaren zuhaitz genealogikoa konplikatu egin zen oso. Australopithecus izeneko gizakiak aurkitu ziren, eta eboluzionistek gizakumeaz zuten hasierako ikuskera murriztu egin zen eta defendiezin bihurtu. Eta 1940ko hamarkadan Piltdown-eko aurkikuntza beharrezko izatetik gaindiezinezko oztopo izatera pasa zen. Aurkikuntza hura ez zen gizakiaren zuhaitz genealogikoan kabitzen. Sobran zegoen.

Orduan hasi ziren, hain zuen, Piltdown gizakiarekiko zalan-tzak sortzen. Hasteko, Piltdown-eko gizakia aurkitutako aztarnategian Pliozenoko depositorik ez zela existitzen egiaztatu zen. Gainera, ~~buzurra~~ eta barailaren artean zeuden loditasun-diferentziak ez ziren aurkitzen ez gizakumeengan ez tximinoengan. Betortzen azaleko patina aztertu ondoren hortz modernoek duten kolore zuria zeukatela egiaztatu zen. Azkenik, test modernoek aplikatuz, hezurrek duten uranioaren arrastoak neurtuz, garezur hura 600 urte baino gehiago ez zuela pentsatu zen. Eta baraila (orangutan batena seguraski), 500 urtetan datatua izan zen. Fosil haiek Erdi Arokoak ziren, dudarik gabe.

Historia bitxi hau burutzeko, azkenik, berrogei urtetan zehar gizakumearen katemaila galdutzat jo zen fosila faltsua zela onartu zuen ofizialki «British Museum»ek, 1953 urtean.

Baina nor izan zen horrelako episodio ikaragarria eraikitzeko gai izan? Artifizialki eraikitako buzezur haren kreatzailak anatomiaz nahiz paleontologiaz aditua izan behar zuen. Frogak aztertu ondoren, iruzurra noraino sofistikatua zen baloratzeko gai izan ziren adituak. Betortzak manipulatuak zeuden eta horretarako higadura artifizialez eraginduak ziren. Gainera, hortz batean sortutako gehiegizko higadura berkonpontzeko plastilinarekin antzeko gai bat erabili izan zen, sortutako zuloa betez.

Falsifikatzaileak eraikitako eszenatokia ia perfektua izan zen. Buzurrak aurkitutako lekuan animalien fosilak landatu zituen, silaxeko harri leunduak eta, benetan sinesgaitza dena, «Elephans planifrons» baten inoiz aurkitutako lehenengo hortza. Tankerako beste bi hortz aurkitzeko zortzi urte gehiago behar izan ziren. Afrika aldean topatu ziren. Faltsifikatzaileak, beraz, paleontologi mailan aditu zorrotza izan behar zuen. Galdera batzuk sortzen dira berehalaxe. Nor izan zen? Eta, batez ere, zergatik egin zuen ekintza hura?

Elaberri poliziako honen historia argitzeko ikerketa-liburu asko argitaratu dira. Hasiara batean, susmo guztiak Dawson-en inguruan bildu ziren. Baina, badira beste hautagaiak. Grafton Elliot Smith anatomista australiarra da horietako bat. Honek Piltdown-eko gizakiaren inguruko azterketa guztiak hurbiletik jarraitu zituen. Burezurraren eraikitzean Woodward-ek egindako akats guztiak jarraitu zituen ezer esan gabe, bera eremu horretan espezialista izanda. Zergatik jokaera hori? Nonbait iruzurrak Smith-ek berak gizakumearen arbasoen migrazioez maite zuen teoria oinarritzen zuelako? Gainera Smith-ek «British Museum»en plaza bat nahi zuen. Iruzurra bitartez gustoz ikusiko zuen Woodward-en desprestigioa handitzen eta, nonbait, bere postua galdu ondoren berak lortu izatea. Beharbada, mendeku intelektual sofistikatuak izan zen, ikustean lehenengo mailako zientzilariak nola irristatzen ziren doktoradutza zuten espezialitateetan. Gainera Smith-ek Nubian lanak egin zituen eta, nonbait, handik «Elephans planifrons» deritzonaren hortza ekar zezakeen. Errudunaren argazkia betetzeko gogoratu behar da Smith-ek burezur erdiarotarren bilduma berezia zuela.

Eta zergatik famarik ez zuen Butterfield naturalista errudun ez izatea? Honen ardura zen fosilak aurkitutako lekuan ondoko herri baten museoaren kontserbatzailea izatea. Butterfield-ek Dawsonekin istiluak izan zituen garai batean aurkitutako «Iguanodon»aren hortz baten fosila herriko museoan ez uzteagatik. Butterfield-ek lurralde haiek ongi ezagutzen zituen, eta aztarnategietan lan egiten zuen jendearen bizikidea izanda, bidea libre izan zuen iruzurra lasai antolatzeke.

Eta zergatik Teilhard de Chardin ospetsua erruduna ez izatea? Berak aurkitu zuen, lehenengo aldiz, elefantearen hagin famatua. Hagin hori Tunez aldean bakarrik aurkitzerik dago, eta Teilhard-ek han lanak egin zituela gogoratu behar da.

Dena den, historia honen gauzarik harrigarriena da ikustea zientziaren mundua nola sinets dezakeen, denbora luzean, berak sortutako gezurrean, inolako arazorik gabe. Historia honek ere baieztatzen du, «Jainkoaren pentsamenduan islatzen den zientziaren metodo ukaezinezkoa» nola den hauskorra eta, gustatu ala ez gustatu, zientzia, gizakumearen beste jarduerak bezala, historikoa dela eta, beraz, errore eta akatsen menpe aurkitzen dela.

DENBORAREN HERIOTZA

«Denbora kanpoko guztiarekiko independenteki jariatzen ari da etengabe». Horrela definitzen zuen Newtonek denborare n nortasun absolutua. Nahiz eta unibertsoa ez existitu denbora han egongo zen Jainkoaren atributu bailitzan. Unibertsoa estatiko eta geldoa izango balitz posible izango genuke denbora desberdinak neurtzea, eta baita iraganaldi, orainaldi eta geroaldiaren egoerak ere antzematea.

Leibniz filosofo sakona ez zetorren bat oinarritzko kontzeptio horiekin eta era guttiz desberdinean planteatu zuen arazoa. Eman dezagun unibertsoaren orotasunak toki desberdinetan kokaturik ditugun bi puntu baino ez dituela osatzen. Bi puntu horiek geldirik badaude beraien artean dagoen distantzia mantentzen dela, ez dago esaterik unibertso horretan ezer gertatu denik mugimendurik ez baitago. Hori gertatzen denean denbora ez da jariatzen eta une desberdinak une berdinean fusio-natzen dira. Beraz, denboraren kontzeptua sortzeko mugimendua behar da. Denbora da, orduan, gizakumearen kontzeptio bat eta ez Jainkoaren atributua. Gauzak horrela, denbora kontzeptu erlatibo gisa azaltzen zaigu, eta horregatik teoria horri «denbora erlazionala»ren teoria deitu zitzaion, hain zuzen.

Baina, gure ezagutzarako hain oinarritzkoa den kategoria denborala, absolutua (newtondarra) ala erlazionala (leibniziarra), nola azaltzen da errealitatean? Hasiera batean, eta 200 urtetan zehar, Newtonen iritzia izan zen nagusi zientzilarien artean, baina 1915etik aurrera Leibnizen iritzia kokatu zen zientziaren erdian, Albert Einsteinen laguntzaz.

Einsteinentzat denboraren kontzeptu absolutua «a priori» iritzi bat baino ez zen. Einsteinek unibertsoan ez dagoela erreferentzia hartzeko sistema absoluturik (geldirik zegokeen sistemarik) postulatu zuen, dena da erlatiboa beraz, baita denboraren neurketa ere. Tesi erlazional horren bitartez zientzia irauli zuen, eta ez hori bakarrik, Einsteinek bere ekuazioen bitartez frogatu zuen denboraren fluxua desberdin jariatzen dela segun zein sistematik neurtzen den. Lehenengo aldiz, zientziaren historian, denbora gizakumearen menpe jartzen da zeren eta behatzailea segun nola mugitzen den desberdin

antzemango baitu denboraren fluxua. Beraz, denbora absolutu eta erlazionalaren alboan denbora erlatiboarekin egin dugu topo.

Baina Einstein ez zen horretan gelditu eta Erlatibitatearen bigarren partean (Erlatibitate Orokorrean hain zuzen) denbora geometrizatu egin zuen. Teoria miragarri horretan unibertsoan dagoen esentziarik bakunena sustrato geometrikoa da, eta sustrato hori espazio-denborazko metrika bat da. Unibertsoaren eboluzioa lau dimentsiotako sustrato horren eboluzioa da. Egungo Kosmologia eta Astrofisikaren lorpenik handienak teoria horretatik eratorriak izan dira. Beraz, denbora geometrizatua gertatu zen 1915etik aurrera.

Kosmologia erlatibistaren ondorioz 60ko hamarkadan astrofisikari eta kosmologoak konturatu ziren grabitatea ikaragarri intentsoa den leku batean Fisika kolapsatu egiten dela espazio-denborazko geometria zulatuz. Hain fenomeno bitxia gertatzeko kolapsatzen ari den izar handia behar da. Egun, teoriak auresaten zituen «zulo beltzak» antzematuak izan dira eta dudarik gabe, unibertsoan fenomeno horiek gertatzen dira.

Zulo beltz baten indar grabitatorioa ikaragarri intentsoa izaten da, eta Erlatibitate Orokorrak horrelako egoeratan denbora gero eta polikiago isurtzen dela auresaten du. Zulo beltz batean badago horizonte bat non denbora gelditu egiten den. Muga horretan denbora konjelatu egiten da, bere fluxua geldiaraziz. Beraz, denbora-kategoria berrehun urtetako eboluzio filosofikoaren bitartez, absolutu, erlatibizatu, geometrizatu eta azkenean konjelatu egin dugu.

Egun, Energia Handien Fisikan teorizatu egin da, distantzia oso txikietarako (Planck-en distantzietarako), denbora desestabilizatu egiten dela, dardar hasi eta, azkenean, desagertu huts kuantiko deritzon egituran. Horrelako teoria konfirmatuz gero guretzat guztiz basikoa izan den denboraren heriotzaren aurkiko gara, eta nonbait, betirako desagertuko da gure filosofia eta gure pentsamendutik. Dena den, hori gertatuko denerako denbora asko igaro beharko da eta gure bizitza arruntean, oraindik denbora luzean, hain maitatua izan dugun kategoria denborala jarraituko dugu erabiltzen mundua ulergarri bihurtzeko.

ANIMALI KONTZIENTZIA

Mende honetako aurkikuntzarik ernegarrietako bat animalia baztuek izan dezaketen adimenaz konturatzea izan da. Paleontologiak, biokimikak eta antropologiak gizakumearen tximino-jatorria aztertzerakoan, hominizazioa prozesu ebolutibo luze baten ondorioa baino ez dela konturatu dira. Orain dela hamar milioi urte inguru bizi izan ziren tximino eboluzionatuenean (Ramapithecus eta Kenyapithecus-ek) entzefalizazioaren koefizientearen balioa 2 unitate inguruan burutzen zuten. Kenyapithecus deritzon adarretik bi lerro desberdin garatu ziren, lehena Panidoena (gorila eta txinpantzeena) eta bestea hominidoena.

Adimeneranzko hominidoen eboluzio kitzikagarria Australopithecus-en zuhaitz ebolutiboan zehar eman zen, hauek bazuten humanoideek dituzten ezaugarri batzuk, batez ere inoiz lortu den adimen-koefizienterik handiena: 3 unitateko koefizientea hain zuzen.

Eboluzioaren hurrengo maila «Homo habilis»en urratsa dugu. Hauek, lan egiteko lanabesak, txabolak eta bizitza soziala eraikitzeko gai izan ziren, hizkuntzaren hastapen batzuekin batera. Adimenduak zirela esan daiteke, beraz. Bere adimen-koefizientea 5 unitatekoa zen.

Baina, gaurko gizakumearengana heltzeko beste urrats bat eman behar zen oraindik: «Homo erectus»a sortzea. Honek sua asmatu zuen, bizileku egonkorak antolatu, ehizan ibili zen eta, garun-fosilen bitartez dakigunez, oso burumuin garatua izan zuen. Burumuin horren barnean, jadanik, Broca-ren konkorra (hitz egiteko zonaldea) antolatutik zuten. Hain gizaki sofistikatu horren entzefalizazio-koefizientearen balioa 6 unitate baino handiagokoa zen.

Hominizazioaren azkeneko urratsa «Homo sapiens»engaino heldu zen, zerebralizazioaren muinoa burutuz: 7,5 unitatekoa.

Guzti hau ikusita, azkeneko urteetan berri guztiz ernegarriak sortu dira, gurekin parekotasunik ez duten beste animaliak aztertuz: izurdeak. Izurdeen garuna aztertzerakoan, batez ere Tursipos deritzon espeziarekin, gu bezain inteligentea den espezie bat aurkitu dugu. Adimen hori ez da isladatzen baka-

rrik duen trebetasunagatik edozein motatako ariketak egiten, baizik eta objetiboki adimena kalkulatzeko erabiltzen ditugun parametroak guztiz eskandalugarriak direlako. Animalia hauen entzefalizazio-koefizientearen balioak 7,3 balio du!!! Horrek esan nahi du «Australpithecus», «Habilis» eta «Erectus» hominidoen baino adimen askoz handiagoa duela izurdeak, eta, beraz, guregandik hurbilen daukagun inteligentzia.

Hori dela eta, azken urteotan inteligentzia zer den aztertzeko «animalia paradigmatico» bihurtu dira izurdeak eta, batez ere, gurekiko desberdinak diren inteligentziak nola eboluzionatu daitezkeen jakin ahal izateko.

Bitzta estralurtarraz etengabe ematen ari diren kongresuetan ondorio ikaragarri eta antiantropozentriko batera heldzen ari da: nonbait, adimenaren sorrera nonahi eman daitezkeen prozesua da eta lerro ebolutibo desberdinetatik garaturik, gainera. Nonbait Lurrean bertan, guk orain arte jakin gabe, horrelako prozesuak eman dira eta izurdeak prozesu horren ibilbide espezifiko bat baino ez dira izango.

Orain arte uste genuen, hizkuntza, lanabesen erabilpena eta teknologia, behar-beharrezko urratsak zirela izakiak «adimendu» bezala definitzeko. Baina zetazeoen kasuan, eta izurdeen espezieetan bereziki, gauzak desberdin interpretatu behar dira. Animalia hauek, gu bezalako ugaztunak izanda, garai urrun batean lehorretik itsasora pasa ziren, ur urdinetan beren urrats ebolutiboak garatzeko. Itsas-ingurune berezi horretan hankak (gero esku bihurtuko zirenak) desagertu zitzaizkien hegats igerilari bihurtuz. Hanken desagertzea eta, beraz, eskuen ez garatzeak eskuko teknologia ez sortzea suposatu zuen. Gainera, itsasoan aho eta bokalizazio-sistemek ez dute ezertarako balio eta horregatik desagertu ziren, era horretan guk daukagun bezalako sistema fonikoaren agerpena ezabatuz.

Izurdeek, aldiz, badute uretan seinaleak elkartrukatzeko askoz erabilgarriagoa den oso sistema sofistikatua; sonarena, alegia. Badute uhin-luzeko eta uhin-laburreko hizkuntza oso konplexua, orain ezagutzen hasi duguna. Hizkuntz berezi horrekin banakoen arteko harremanak garatzen dira eta «hitz egiten dute» beraien artean.

Laborategietan dituzten izurdeekin egindako esperimentuak ikaragarriak dira. Animalia hauek badakite jolasten eta

jolasteko jostailuak sortzen, esploratzeko gai dira eta irakatsitakoa ikasteko eta ikasitakoa egoera berritan erabiltzeko. Oso solidarioak dira eta kooperazio handia ematen da beraien artean. Ahaidetasun-mailak oso zehatz definitu eta errespetatzen dituzte. Egun, laborategietan, hizkuntz artifizial berezi bat sortzen ari da beraiekin elkarkomunikatzeko. Baina, izurdeek izango ahal dute zerbait kontatzeko beraiekin elkarkomunikazioa posible izango balitz? Adimenduak izango dira eta gurekin ez dira komunikatzen eboluzio prozesu desberdinek bi komunikazio-sistema desberdin ditugulako?

Horren inguruan eztabaida handia dago. Orain arte, nonbait okerturik, animaliek ezin zutela kontzientziarik izan hitz egiteko gai ez zirelako pentsatu izan dugu. Egun, gauzak ez dira hain simple ikusten.

Goimailako zientzilariek onartzen dute egun beren pentsamendu abstraktoaren parterik inportanteena, dena ez bada, berbalizazio gabeko prozesua bat izan dela. Alegia, bai Erlatibitate Teoria, Fisika kuantikoaren urratsik garrantzitsuenak nahiz DNAren biokimikarenak, hitz gabeko aurkikuntzak izan direla eta, aurkikuntza egin ondoren, gero jendeari aurkitutakoa adierazteko berbalizatu egin direnak.

Guzti hau ikusita, Penrose zientzilari ospetsuak diogenaren arabera, izurdeek ezin izango dute liburuak idatzi eskuak ez dituztelako (itsasoan eboluzionatu baitute), ezin izango dute berbalizatu guk bezala beren seinale-sistema guztiz desberdina delako, baina horrek ez du esan nahi filosofatzerik ezingo dutela edo bizitzaren helburuaz pentsatzeko eta sentitzeko gaitasunik ez dutela izango. Nonbait, guztiz kontzienteak dira unibertsoaz eta bizitzaz baina sentipen guzti horiek beren sonarreko seinale submarino konplexuen bitartez adierazten ari dira etengabe, guretzat ezezaguna den hizkuntz ezberbalizatu baten bitartez.

Zentzu honetan, izurdeekin kontaktu kontzientea lortzeko egiten ari diren ikerketak guztiz ernegarriak dira. Diotenez, ingelesezko sekuentzia batzuk irakatsiak izan dira, jadanik, eta izurdeek ulertu egin dituzte. Ikerlari batek zioen moduan bukatuko dut: «Egun batean, izurdeekin elkarkomunikazioa lortzen baldin badugu han egon nahi nuke, animalia eder hauek milioi urtetako eboluzioan zehar ikasi, ikusi eta pentsatu duten

mundu ernegarrian murgiltzeko. Hori gertatuko denean, zibilizazio alienigena batekin kontaktua izan dugula konturatuko gara, Lurretik atera gabe».

EKONOMIA

JENARO GARATE

KRISI-AZTERKETA. SORBURU OBJETIBOEN ATALA

Edozein krisik sorburu asko dauzka. Ez sorburuak bakarrik, krisiak eurak ere bat baino gehiago batera izaten dira gehienetan, elkarren barruan edo elkarri erantsita. Gaurko krisiari begiratu, aipatzekoak dira sorburu objetiboak.

Krisi-sorburu objetiboen ezaugarria hau da: ez datozela ekonomiatik, gizarte-arazo oro korretatik baino. Adibidez, produktu berrien aurkitze eta zabaltzetik.

Sorburu subjektiboak, ordea, mila eratakoak izan litezke. Adibide bat emateko, Felipe González-ek eta José María Aznar-ek joan zen maiatzean Tele5ean egindako debatean eman zuten diagnostiko eta errezetan adierazia:

«Ahorro, inversión y empleo es una secuencia que todos los españoles entienden. Para que exista más capacidad de empleo es necesario fomentar el ahorro.»

José María Aznar

«Hay que recuperar la inversión a través del ahorro para generar empleo.»

Felipe González

Hitz horietan ez dago krisi objektiboaren aztarnarik. Krisi honetako ikurra den langabezia —ardura, negarra, aztegia— horren samurra balitz konpontzea, eragile mekaniko keynesiar hori erabiliz, ez litzateke mundu guztia ilunpean izango. Nonbait Felipe González eta José María Aznar eta politikoez, hautesleen aurrean dihardutenean, ekonomi zientziaren jakturia osoa eta dudarik gabekoa daukate.

Goazen gure harira. Krisi honetako sorburu berezi bat, objektiboa, eta baliteke nagusia izatea ere, teknologiarena da. Eta labur esanda, hauxe, bikoitza:

a) Informatika asmatu dugu ondasun gutxiagorekin gauza ia guztiak (bai inbertsiogai eta bai kontsumogaiak) errazago (eta merkeago, noski) produzitzeko.

b) Ez dugu asmatu kontsumogai berririk, inbertsio berriak eskatu/eragingo dituenik; ez inbertsiogai eta ez kontsumogai-enpresetan, ez eraikuntza-instalazio-makina-tresnerian eta ez stocketan.

Gaurko egoera teknologikoa hobeto ulertzeko, gogora dezagun atzenengo berrogeita hamar-hirurogei urteetan gertatua. Berebilak (kotxe, kamioi, abioi eta abar), batetik, eta etxerako elektrodomestikoak, bestetik, asmatu genituen. Ondorioz, lan-tegi itzelak eta kontaezinak eraiki behar izan genituen; instalazioz, makinaz, tresneriaz osatu; langaiez ere bete. Eta hori produkzioaren kate luzean, kotxe edo frigorifiko-lantegitik hasi, eta galtzairugintza eta meategietaraino helduz.

Orain, berriz, batez ere informatikari esker, kate luze horretan zera ari gara eragiten: makina gutxiago-errezagoekin, tresna arinago eta soilagoekin, stock askoz txikiagoekin, lehen baino gehiago produzitu. Eta ez dugu ezer berririk asmatu kontsumitzeko, zeren Ekonomia Domestikoen informatika-kontsumoa oso urria baita, orokorrean informatika-produkzioa inbertsio eta lanpostu gutxikoa izanik ere. Beraz, eskaintza erraztu/merketu egin dugu, eta eskari berririk sortu ez.

Baieztape hauek datuak dira, zalantzarik gabekoak. Datu exogeno hauek —ekonomia kanpotik erakarriak— ekonomian duten eragina, beste arazo bat da, ekonomi zientziari dago-kiona.

Gai hau argituko dion nire teoria norbaitek sakondu nahiko balu, jo beza 1980an *Jakin*-en 16. alean argitaratu nuen lanera.

Orain eta hemen bi puntu argituko dugu: Bat: lehenbizi, garai honetan baztertuta eta lurperatuta dagoen Marxen arki-kuntza garrantzitsua aipatuz:

Inbertsio/Produktua = Sistemaren Irabazia

Eta sistemaren produkzioarako inbertsiogile den enpresa-sek-torreak ezin du irabazirik lortu, inbertsioak eragiteko eskaririk,

bultzakadarik, akuilurik ez badago sisteman. Inbertsiorik ez, irabazirik ez. Irabazia inbertsioaren asmoa, arnasa da, bai. Baina irabazia ez da gauzatzen inbertsioetan baino, zeren irabazia produktua baita, sistema osoari begiratuz. Hori da, garai honetan lanik eza eragiten duena: inbertsiorik eza, gaurko teknologia berri zoragarrien ondorioz. Eta irabazirik ezeean, balizko inbertsiorik ezinean, ardura osoa kostuak murriztean jarri behar. Krisi sakon garaian, enpresa oro ren zereginen sail nagusia bat da: kostuak. Stock txikiagoekin jardun, tresneria berdina hobeto erabili, eta lagileak/lansariak murriztu. Bizi ala hil, lanik eza eragin behar.

Bi: Ekonomi jokoan —baita enpresen sektorean ere—, milaka jokalarik dihardu, kontaezin joko-erresuma eta joko-sailetan. Eta, zero-, gehi- edo gutxi-jokoan ari, beti dago irabaziko duen jokalaririk. Eta jokalari asko dagoen munduan, askok galdu baina beste askok irabazi egingo du. Gure politika puntuala hori da, jokalari irabazle izatea.

Lortu dugun informatika-teknologia zoragarria da. Gure gaurko krisia, aurrerapen-krisia da. Betidanik ikaratu izan gaituzte aurrerapen teknikoen ondorioz ezagutu izan ditugun krisi eta langabezi-uneek. Baina aurrerapenak izan ziren, bizi-modu erosago lortzeko gai egin gintuztenak, eta lanpostu berriak —desberdinak sarritan, hori bai— besapean zekarkigutenak.

Artean, baina, oso gogoan eduki beharrezkoa da gaurko krisiaren eragile objektibo hori hor dirauela, oraingoz aldatzeke. Eta enpresek prezioak igo behar gorrian daudela, nahiz eta kostuei eutsi. Hor neurtezinezko inflazio potentziala dago.

ENPRESARIEI BURUZ ZERBAIT

Bi enpresari-mota bereiz daitezke: nagusitzat enpresaren jabea bera duena eta enpresa-jabeek izendatutako nagusia daukana. Lehena zabalduagoa da European, batetik, eta enpresa ez handietan, bestetik. Bestea, Estatu Batuetan, eta enpresa handietan. Era batekoa izan edota bestekoa, jokamolde desberdinetara jotzen dute. Kontrasteak azpimarratzekotan, jabe den enpresaria iraunkorra da, asko begiratzen dio epe luzeari, arazo estrukturaleri, goi-langileen fideltasunari. Enpresari izen-

datua nahiko merzenario izan ohi da sarritan, bere aurrera-pidearren jarraitzaile, arazo puntualei gehiago atxikia, dibidendoak ematearen etsai, berrikuntza eta aldaketei emanago, goi-langileen galtzearen minik gabekoa. Baina era batekoa ala bestekoa, enpresako nagusia langile porrokatu nekazina da beti, asmo sendokoa, gizakien liderra. Eta enpresaren, jardunaren, asmoen aldeko itsu-itsua. Politikoen lehengusu urrak dira. Ezinezkoa da enpresari bat liberala izatea, politikoak bere alderdiari eta buruari begira bezala. Enpresaria baldin bada, ez da liberala izango, inolaz, bere enpresari buruz. Beti uste izango du bere enpresaren aldeko arau eta ahalbideak arazoizkoak direla. Eta hori uste ez badu, ez da enpresaria. Nola-baiteko mailako norberekoikeria ere izan behar du enpresariak, beste birtute askoren artean. Horregatik, merkatu libre kontzeptuez begiratzea enpresara, erru itzela da. Hauek dira merkatu librearen ezaugarriak:

a) Autonomia. Bertako jokalariek, ez beste inork (Estatuak adibidez) bakar-bakarrik arautua.

b) Sarrera irekikoa. Nahi duen orok sartu, irten, eskaini edo eskatu ahal izango du.

c) Ertsatu gabea. Inork ezin du behartu jokalarien independentzia.

d) Gardena. Jokalari guztiak elkar ezagutu eta eskaintza-eskari guztiak begi-bistan edukitzeko modukoa.

e) Produktu homogeno edo bereiztezinezkoena. Ondorioz merkantzia bakoitzarentzat prezio bakarra azalduko duena.

Enpresaren sena zeharo baldintza hauen kontra-kontrakoa da.

a) Lehenbizi, arantzel, baimen, arau eta abar guztiak eskatuko dio Estatuari, ahal duen une orotan, bere sektore edo enpresaren onerako, ezkutuan edo agerian, beti gogo bete-betean eta gizarte osoaren onura aipatuz. 'Ez atzean geratu'.

b) Bere sen gremiala edo berekoia noiznahi azalduko da, bere sektorean edo produktu-sailean sartzeko baldintza bere iziak beharrezko direla erakutsiz. 'Etsaiari ateak ez zabaldu'.

c) Kontratu, akordio, entente guztiak dira zuzenak, merkatu-zatiak defenditzeko edo bereganatzeko. 'Lortuari eutsi eta areago'.

d) Informazioa jaso eta eman ez. Hori da enpresaren dekalogoko lege bat, garrantzitsuenetakoa. 'Besteek ez dakitena eta ez dagiena egin'.

e) Eta, batez ere, produktu homogenorik ez. Horixe ez ba. Enpresaren zeregin garrantzitsuena hori da, bere irabaziak gehien neurtzen dituena: produktu desberdina eskaini, hobea. Ur hutsa arrunta eskainiko bada ere, botilaren bitartez, markaren, propagandaren, zerbitzu bizkorraren, sendagaitasunen eta abarren eraginez, bere ura zeharo desberdina, onena dela pentsarazten saiatuko da. Monopolioa: hori da enpresaren sen nagusia. Jaun eta jabe izan merkatuan. Eta beste norbait aurreratzen bada, haren monopolioa jan. «Monopolioa».

Horregatik, marginalismoaren asmakizunak utzita, merkatu librearen oinarritzko denifinizioa hau da: edozeinek monopolista izateko askatasuna izango duen merkatua. Eta honen muga liberala hortxe bertan datza: hots, beste edozeini monopolista izaten —lehenbizi izaten— eragotzi ezinean. Ez da hitz-jokoa. Mercedes Enpresa Mercedes kotxeen monopolista da, baina ezin dio eragotzi BMWri BMW kotxeen monopolista izatea. Eta ez beste inori sortu asmotan dagoenari ere ez. Bestalde, BMW Mercedesi, eta alderantziz, elkarri monopolioa jaten ari dira beti. Eta enpresa oro ren dinamika nagusia, asper eta neke-unerik onartzen ez duena, produktu orokorretik alde eta produktu monopolistaren bila jardutea da. Egunero egoera berriari egokitzen, berritzen, eta aurea hartzen. Geldiunerik ez. Dinamika hutsa. Bestela ez dago irabazirik. Eta irabazirik gabe, heriotza. Hori da enpresa-jokoaren lege makurra.

Enpresaren joera guzti horiek helburu bat daukate: irabazi. Enpresak ozen aldarrikatu behar du, inolako lotsarik gabe, bere eginkizun zehatzaren helburu nagusia irabaztea dela. Eta eduki gogoan irabaztea produktu akumulatzea dela, inbertitzea, lanpostuak eskaintzea. Aurrerapidea.

Enpresak duen baliabidea bere helburuak betetzeko, gizakiak dira, gizakiek etenik gabe bereganatzen eta enpresan gauzatzen diharduten jakituria. Lehenago ere garbia baldin bazen egia hori, pertsonak direla garrantzitsuena enpresan —irabaziak lortzeko dihardut esaten—, orain gero eta argiago. Zenbat eta teknologia ahaltsuagoa erabili, garrantzitsuago.

Langileei begiratzuz, ez dago zehatz mehatz esaterik zein den enpresa politikarik onena: barruko langileak mantendu/landu, batez ere goimailakoak, edo langileak kendu/hartu. Mantentze/lantzea onuragarria da alderdi askotatik. Enpresan jarraibidea izateko itxaropenak lasaitasuna ematen du, lasaitasunak berriz kreatibitatea, enpresaren ardura, dakitena enpresara aporatzeko nahia. Eta enpresan ikasteko aukerak, enpresa bertan gora joteko esperantza, ekipo-giroa. Baina baita ere, teniko berriak lan-era erabili gabeak dakarkite, ikusmolde ezezagunak, asmo eta jokaera-berrikuntzak. Langileen jarraibidearen aldeko, japoniarrak dira, batez ere. Han lanpostua bizi-postua izan ohi da. Baita ere alemanak eta frantsesak. Bigarrenaren eredu, batez ere, Estatu Batuetakoak. Badirudi hauek ere ekipo tekniko iraukorren zale direla gero eta gehiago, batez-beste. Baina hau edo hura bide hobea izan, enpresatik eta gizartetik begiratzuz hauxe esan beharra dago: enpresaren izana eta etorkizuna pertsonen ikasi-jakinari eta saiatzeko-nahiari datxekiola. Edozein herriren ekonomiaren aurrerapena horretan datza: eskolan saiatu eta ikasi; gero, enpresan eginean eginez ikasi eta ikasiaz egiten saiatu. Ekonomiaren maila enpresak, eta enpresen maila eskolak ematen du. Nolabait, enpresak eskola izaten jarraitu behar du.

GREBEN ARAZOA

Bazen herri bat... Sumendi baten pean bizi zen. Aztiaren jakin ziurraren arabera, sumendiak iragarri egin zuen, gizaldietan zehar noizbehinka ohi zuenez —ikaragarritzko trumoi-hotsez—, lehertu nahian zegoela. Mendiaren nahia aldatzeko, gerlariren batek bere alaba birjina eskaini behar izaten zion opari. Zeinen alaba izango ote, gezia jaurtiz erabakitzen zen. Nork urren jaurti, haren alaba erre behar bizirik.

Saioa egin eta, buruzagia zahartxoak izaki, bere jaurtiketa izan zen laburrena. Buruzagiak, orduan, bere alaba ez zela birjina, eta saioa berriz egitera behartu zituen beste gerlariak.

Hu ren go gerlari galtzaileak ez zela saioa zuzen eratua izan eta berriz egin beharra zegoela. Horrela beste gerlariak. Atzearan gerlari guztiek bat eginda zera onartu zuten: aztiak ere alaba zeukala eta berak ere jokoan sartu behar zuela. Baina

aztiak besteek baino urrutiago jaurti zuen gezia. Orduan gerlariak, gezi-jokoa baztertuta, aztiaren alaba izan behar zuela errea, besterik gabe, erabaki zuten.

Erreketa, arratsaldeko ilunabarrean egin behar izaten zen. Aztiak, ordea, eguzkia zeruan gerarazteko ahalmena zeukan, eta erreopari egunean geratu egin zuen eguzkia eguerdiko gal-datan. Eztabaida bizia piztu zen, baina akordiorik ez. Orduak eta orduak joan eta eguzkia beti gainean, eguerdi amaitezinezkoan. Inork amore eman ez, eta eguzkipean lehortuta eta kiskalita hil ziren herri hartako gizon, emakume, alaba birjin-ebirjin eta haur guztiak. Horrelaxe galdu zen betiko herri haren hazia.

Grebak eta grebak daude. Baina grebaren eraginez, gazteak eguna joan eta eguna etorri eskolarik gabe daudenean, herriko eguzkia geratuta dago eta biztanle guztiak kiskaltzeaz.

Gure alegoriako herria kiskaltzearen errudun bakarra, aztia izan zen, berak gerarazi zuelako eguzkia. Herrikideen gaiztakeria gordinak eraginda izan bazen ere, pertsona baten arriskutik salto egin eta herri osoaren galzorira jo —hau da, genozidioa aukeratu—, hori berak bakarrik egin zuen, berak bakarrik zeukan ahalmena erabiliz.

Eskolarik ezaren errudun, greba-eragile irakasleak dira, grebaren beraren «alaba birjina» salbatu nahian egingo badute ere. Zeren eurok, ez beste inor, baitira geldiarazten duten eguzkiaren jaun.

IKUSKIZUNAK

BEGOÑA DEL TESO

UDAKO ANTZERKIA, BAI DESASTREA!

Urtero-urtero lelo bera, lelo bero. Hemengo antzerki-taldeak kexu agertzen dira inork ez baitie taularik uzten. Kalea dute, hiriburu guztietako Aste Nagusietan, eszenatoki bakarra.

Urtero-urtero Madrildik datoz konpainiak. Aspaldiko kontua da hori. Antzinako tradizioa. Udazken, negu eta udaberri

partean, «kapitalean» zeuden lanean. Uztailean ixten ziren han, ordean, aretoak, eta aktoreek —ez beti, nahitaez, «izar handiek»— iparralderako bidea hartzen zuten.

Euskal Herriko ikusleen errezelua beti berdintsua zen. Dekoratuak ez bide ziren Madrilen erabilitakoak bezain luxuzkoak eta «errepertua», zeharo aldaturik zetorkigun. Halere, bai Donostian, bai Bilbon, Iruñean, Gasteizen eta Azpeitian oihera bera entzuten zen lau izkinetan: «Badatoz komeriantek!».

Baziren neska panpox eta ederrez beteriko «errebistak». Gidoi idatzirik ia ez zutenak. «Komikoak» esandako bizpahiru txiste, mutil guapo bat, eta...«vedette» andereñoa. Zirujia zuen egina gorputz guztian baina argi-jokoez inor ez zen jabetzen. Dantzan, jira eta bueltan zebilen ederto kantari lumazko soineko txiki eta estu batean sarturik.

Bazegoen beste teatro-mota. «Intelektualagoa» omen zen. Gai sakon eta gizarte haren garaikideak zerabiltzan. Batzuetan hitzez, tonuz eta ideia politikoez «atrebitua» zirudien inkluso.

Hirugarren eta laugarrenik; atez beteriko istorioak. Normalenean, britaniarrak ziren idazleak. Ia beti hotel batean suertatzen ziren pasadizoak. Politikaria edota negozio-gizona han biltzen zen maitalearekin baina deskuido batez, beste bikotea hasten zen amodio-jokoetan gela berean. Jeneralean, emakumea politikariaren emaztea zen eta amorantea, berriz, idazkaria. Moralitatearekiko atrebentzi horrek ez zuen arrisku handirik. Udan geunden. Fresko-fresko, libre-libre kasi. Ez ahaztu arrakasta sekulakoa izan zuen lan baten izenburua «Sé infiel y no mires con quién» zenik.

Kontua, gakoa, ateak ziren benetan. Bi ordu ematen zituzten aktoreek ez zegozkien geletan barrena, beraienak ez ziren atetan joka. Eta ikusleak, pozaren pozez eta algara bizian. Eta Iruñeako seme bat, Pedro Osinaga, Arturo Fernándezekin batera, udako errege nonnahi.

Urteak joan, urteak etorri eta Madrilgo horiek etorri bai baina ikuslegoa haiengana joan ez. Hasiera batean, pixkat aztoratu ziren, apur bat beldurtu ere bai. Era berria asmatu zuten, alabaina, gu konkistatu nahian. Jada ez lukete ekarriko Madrilen zegoeneko zende guztiak ikusiak ziren antzerki-lanak. Alderantziz, gurean estreinatuko zituzten eta gero... kapitalera.

Une batez, ilusioz beterik izan ginen. Zeharo hunkiturik. Gurean estreinatu, txo. Sinestu ezinean ibiltzen ginen.

Segituan ikasi genuen ikasi beharreko egia mingarria. Gu, «conejillo de Indias» gaixo batzuk besterik ez ginen. Txalo egiten bagenuen, agian, akaso, bazitekeen Madrilen estreinatzea. Txistuka hartuz gero, adio lanari, adio konpainiari. Arrazoi eta dotorezia osoz, joko ziztrin horretan ez ginen erori...

Halere, komikoez udan ere bazkaldu, afaldu eta kreditoa ordaintzeko ohitura, beharra eta betebeharrak txarra dute. Beraz, etortzeari ez zioten uko egin. Guk bai, ordea, joateari.

Aurten, Donostian —seguruena beste hiriburuetan ere gauza bera gertatu da baina ez naiz ausartzen esaten ez bainaiz izan— udako antzerki-denboraldia desastre hutsa izan da. Katastrofe ikaragarria. Dardaraz geratu dira etorritakoak eta ekarri dituztenak. Artistei «bokatak» erosteko ere ez zitzaizkien iristen takilan zegoenarekin. Aretotako jabeei, ordea, ezta argiaren kontua ordaintzeko ere...

Badirudi, ordea, gu, ikusleok garelako kulpanteak. Errudunak. Jatekorik, gisako bizitzekorik errefusatu egin diegu taula gainetan dabilzan horiei. Sentitzen dut baina nik errugabetzat jotzen dut neure burua. Baita lagun buri eta arimak ere, jakina.

Bestalde, errudun bakarra nor den badakidalakoan nago. «Bakarra» idatzi dut eta franko dira udako teatroa hil dutenak baina laburbilduz, bat da aipurik handiena, ozenena merezi duena: nagikeria, baldreskeria, trakeskeria. Izen asko eta errudun bakarra.

Inor ez da molestatu jende gaztea antzerkiratzen —mesedez, ez natzaizue udazken eta udaberri, neguan ere herri guztietan, ezagunak ditugun taldeek egiten dituzten ahalegin hondratuez ari—.

Antzinean markaturiko ildo beretik doaz oraindino konpainia guztiak. Apur bat gaurkotu dituzte gai eta egoerak baina desastrosoak dira zeharo emaitzak. Eta, desde luego, horrela ez dago gazterik konkistatzerik.

Ez ahaztu ere «krisia» denen ahotan dagoela. Edadeko jendea da gehien edo goizen beldurtzen dena. 3.600 pezeta ordaintzea senarra, emazte edo edonorekin joateko gehiegizko da. Azken finean, inolako aldaketarik ez denez, ezaguna zaie —aur-

kezturiko lana berria izan arren— testu eta mamia. Baita aktoreen ahots kaskar horiek ere inork ez baitu intonazioaren sekretua menperatzen. «Intonazioa» deituriko zerbait dagoenik ere jakingo balute sikiera....!

Beraz, hiltorian antzerki udatiarra. Ez du hileta polit ederrik izango. Donostiako enpresari bati entzuna: «Datorren urtean, ez dut ezer ekarriko, konfidantza handikoa ez bada bederen».

Eta orain eta hemen, gure neska-mutil teatroak sartzen zaizkigu trumilka, tropelean, kexati eta protestaka. Beraiei utzi behar zaizkiela bi hilabetez ia hutsik izan diren antzoki horiek. Hemengoek izan behar dutela lehentasuna.

Igoal bai. Auskalo. Batek jakin baina ez dakit nik udako urtarorarraro, zail eta parekorik ez duen horrek eskatzen dituen arintasuna, freskotasuna, bihurrikeria emateko, sortzeko gauza diren.

Badut beraien ahalmen eta gaitasunaren berri zehatza baina barre egiteko gaitasun-falta handia ez ote duten da nire galdera. Niregatik, egin dezatela saio eta proba. Azken finean, okerragorik ezin izan eta esperantza beti itxaropen eta itxaroten.

Halere, atrebentzia osoz, aholku bat botako nieke. Ez pentsa udako antzerkiak «Ama begira zazu» mitologikoaren kopia kaskar eta erraza izan behar duenik. Bermeotik «Fascinación» izeneko lan hura aurkeztu zigutenek hala uste zuten eta berrtan ezin konbentzitu eta jenio txarrez utzi gintuzten.

Beraz, hortxe, erdi irekita, abuztuan ikusi behar den teatroaren atea. Zabal-zabalik norik irekiko duen ala betirako zergatik itxiko...horra hor koska, eta momentuz, erantzunik bakoa den ituna.

KALE-ANTZERKIAK KALE NAGUSIAN KALE ETA HUTS

Edonongo jaietara doanak baki zer aurkitua. Jendea txururtean, jendea dantzari, jendea saltoka, jendea parrandan eta nonhai, noiznahi, espaloi, jardinar eta plazetan, artistak. Poetak eta su-jaleak, ekilibrioetan erdipurdi dabiltzanak eta kartajokoetan sekulan galtzaile aterako ez diren horiek. Haien artean, jo eta fuego, berriro ere, goian aipaturiko neska-mutilak, gure teatroko maiteak.

Oraindino batzuek ez dute kale-antzerkiaren egia aurkitu. Oraindik ere ez dakite gauza bat dela leku jakin batean aritzea, o rdu konkretuan, leku mugatuan, bestelako ikuskizunik ez duen tokian eta beste bat, arras bestelakoa, aurtengo eta datozen Aste Nagusietan pasa den eta pasako den legez, festa-giroan dabilen jendetzaren erdian murgiltzea.

Ikuskizun luze, handi, zabalek ez dute zer esanik jaietan. Ez naiz errazkerietan erori, beharraren alde ari. Bai, ordea, gauzak trinko eta sendo eman beharraren alde. Ia-ia testurik ez. Hiriak ematen dituen bitartekoak txukun eta maltzur erabili. Jendea mngandik ez espero gehiegi edo malkoetan itoko zarete. Koadrila handirik ez. Hamaika kontu, hamaika lagun, ertzain eta manifestari biltzen diren esparru horretan, ahalik eta artista eta tramankulu gutxien.

Ez, ez dut soluzio magikorik. Omenka, «akasoka» ari naiz baina gauza bat sumatu nuen udako arrats batean Alderdi Ederren: kale-antzerkia, Aste Nagusia eta Donostiako Bulebarra ez dira, hain zuzen, lagun minak.

ORAINTXE ORAINTXE NITAZ PENTSATZEN. BERANDU BERANDU,
BERANDUEGI DA

Testu hau irakurri orduko, titularrari grazia edo harrapa -tzeko, gogora ezazu arren, Aurrezki kutxek bankuetxeen kontra ateratako iragarkiaren doinuaz. («Qué tarde, qué tarde se acuerdan de mí...»)

Zinema-munduan berririk ez. Bai, bai, izango dugu aukera, tenorea, parada «Parque Jurásico»n sartzeko baina, momentuz, itxita daude ateak guretzat ere.

Hala eta guztiz, bada zer kontatu. Madril eta Bartzelonako bikoizleek aurrera eraman izan dute greba luxuzkoa, kasu. Orain arte, beraiek izan dira jaun eta jabe filmeen bikoizketan. Laguntza gutxi eta mesprezu handia jaso dute Euskal Herri, Sevilla, Valencia eta Galiziako hasi berriek. Orain, hauek dexente hobetu direnean, kezkatzen hasiak dira besteak eta diru-baldintza berdinak (gutxiago kobratzen dute greban ez daudenek baina ez pentsa haien alde dihardutenik besteek) eskatzen dituzte guztientzat. Oraintxe. Ez lehenago.

Aukera handiagoa izanik, filme-banatzaileek nahi duten lekura bidaltzen dituzte filmeak eta jakina, aberatsak, beldur.

Seguruena, Madril eta Bartzelonako bikoizleek arrazoi sako-nagorik izango dute baina begirada batez, inbidia-kontua dirudi. Aspaldiko kontu jakina zen bikoizketaren mundua mafia hertsia zela. «Hau niretzat, hori zuretzat eta honentzat... ezer ez». Aldatzen ari dira gauzak eta dardaraz ditugu ahots ederreko gangstertxo horiek. Lastima. Baina bitartean, desioan genituen filme handi-mandi guztiak mugaz beste aldean ikusi behar «El último tango»ren garaian bezalatsu.

HILDAKOAK TELEBISTAN BERPIZTU NOIZKO?

Telean zer udan zehar? Ohizkoa. Telesaio-pila piszinaren ertzean. Halere, izan da besterik gure kateetan. Orain arte, futbola udazkenean hasten zen. Oraingoan, A3, Tele5, TVE eta ETBk ere aginduta, udan ekin diogu denboraldiari. Partidu faltsuez, udako txapelketa pepelerdoez bete dizkigute 625 lerro zahar horiek. Gehiegi, benetan.

Bestelakorik gara ikusiak. Tele5ko «Otra dimensión»en hilda zegoen mediku batek bizirik zegoen beste baten bitartez, jendea sendatzen omen, bide, ei zuen. Zioen legez, momentu hartan izpirituez gainezka zen «platoa». Lastima inork ere ez zuen senideak agurtu nahi izan.

Hurrengo pausoa, dudarik ez, haragiaren berpiztea kamararen aurrean. Nire kontu eremu honetan kontatzea. Adiorik ez.

TOLOSA HIRIBIDEA, 103-I.C
TEL.(943) 21 80 92
FAX (943) 21 82 07
20009 DONOSTIA

